

goiena

ZU HEMEN ZAUDE



1, 2, 3...
ALOÑA!!!

Izaraitz Muñoz Aloña Mendik
asteburuan jokatu du Lehen Maila
Nazionalera igotzeko fasea / 38

Eskubaloitako taldeko
jokalariak Oñatiko Zubikoa
kiroldegian martitzeneko
entrenamenduan.

XABI URZELAI

Oñatiko gazteen %92,5ek euskaraz egiten du berba

Oñatiko kaleetan izaten diren hamar elkarriketatik ia zazpi euskaraz dira / 34

Bergarako
Agorrosingo zelaia
emakumezko
futbolarien bilgune
izango da etzi / 27

Aramaioko ekoizleak
eta beste, lehen
sektorea ardatz duen
Lorabarro Azokan,
bihar, zapatua / 22

Euspot lehiaketako
aurtengo edizioak
markak hautsi ditu,
kantitatez, kalitatez
eta hedapenez / 40

SINADURAK

	JOSEBA GABILONDO MARKES / 8		MARIJE UGALDE / 25
	SABIN ARANBURU / 23		GORETTI MADINA / 35
			MIKEL IRIZAR / 48

Itxi egingo dute
Eskoriatzako Santa
Ana auzoko
aparkalekua, akordio
faltarengatik / 19

 BNI plataforma:
enpresen arteko
elkarlana helburu

 Pedro Solis
zinemagileari
elkarriketa



ARTXI
PIELA
GOA

MAIATZAK 21
19 : 00
San Migel Parrokia
Oñati
12€



Sarrerak: Txantxiku Ikastola eta Txokolateixian
Sarrerak online: kilometroak.eus eta txantxikuikastola.eus

Puntaik Punta, bertako aberastasunaz gozatzeko

Debagoieneko Bidezidorren Jaialdiak Bergararen ondare naturala eta kulturala bertakoen eta bisitarien eskura jarriko du maiatzaren 17tik 21era, kirola, natura, aisialdia eta kultura uztartzen dituen eskaintza zabala baliatuta, eta adin tarte desberdinak aintzat hartuta

Ubane Madera DEBAGOIENA

Oihana Kortazar mendi korrikalariak emango dio hasiera Puntaik Puntaren bigarren edizioari, eguaztenean, 19:00etan, Bergarako Irizar jauregian egingo duen hitzaldi baten bitartez.

Hortik aurrera eta hurrengo hiru egunetan, Bergaran eta inguruan nahi adina aukera izango dira naturaz eta kulturaz gozatzeko bertako altxorrek eza-

gutzeko. "Adin desberdinetako jendeak topatuko du zerbait disfrutatzeko herrian era desberdinetan", azpimarratu du Bergarako alkate Elena Letek.

Ibilaldi ugari aukeran

Hori bai, bidezidorren jaialdia izaki, ibilaldiak dira Puntaik Puntaren abiapuntu; esaterako: Elgeta-Intxorta-Bergara; familian egiteko Aretxabaleta-Lete-E-

raña-Peñakulo-Areantza-Aretxabaleta eta Antzuolako San Isidro azokara joatekoa egin ahalko dira zapatuan, tokian tokiko mendi taldeek gidatuta -Kantsatzeke, Zاراia eta Pol-Pol, hurrenez hurren-. Bide batez, Pol-Pol elkar-teak 75. urteurrena duela eta, omenaldia egingo diote domekan: "Pentsatu genuen oso aproposa zela gure keinu hau haiei egitea", dio Letek Puntaik Punta Berga-

ran egiteko beste arrazoietakoa bat hori izan dela azalduta.

Bestalde, ibilaldiekin batera, bertako altxorrek ezagutzeko aukera ere bada hurrengo aste-buruan: Espeleo Arrikruz,, Atxorrotzen historia... Eta horren guztiaren osagarri, bizikleta martxa, orientazio probak, Bergarako lorategietara bisitak, eskualdeetako museotara bisita gidatuak, piraguismoa, tirolina, eskalada eta senderismo azoka ere izango dira, besteak beste.

Zea Mays, The Uski's, Enekora...

Hori guztia aberasteko, kultura hitzordu erakargarriak ere baditu bere baitan Puntaik Puntak: The Uski's -barikuan-; Diablues-Blucifer, musika eskolako udaberriko kontzertua eta Zea Maysen kontzertuak -zapatuan- eta umeendako ikuskizunak zapatuan eta domekan -Bola Bai eta Mister Pitxitxi, esaterako-.



UBANE MADERA

"Laguntzarekin, indar berezia hartzen du"

ELENA LETE
ALKATEA

"Bergarako ondare naturala zabala eta aberatsa" oinarri, eskatu zuten Puntaik Puntaren bigarren edizioa udalerrian egitea.

Bergarako Gerriko Berdea, adibidez, ezaguna bada...

Bai, eta asko erabiltzen dugu, baina beste maila bateko beste aukera batzuk ere badaude, eta pentsatu genuen oso egokia zela. Eta hau gizartearen laguntzarekin egiten bada, indar berezia hartzen du.

Gizarteak lagunduta?

Dugun ondare naturala aberatsa eta anitza da, adinen arabera zirkuituak ditugu, eta saiatu gara eskatzen antolaketan parte har dezaten talde eta adin desberdinetako jendea: San Joxepekoiei eta haiei esker bailarako beste egoitzetako ordezkariak, Pol-Pol taldekoei, musika eskolari...

Natura, kirola, kultura... eta gehiago



San Joxepekoak. GOIENA

Ibilaldiak, bertan eta kanpoan

Gorlora igoera, izarrak ikustera Surrara, Intxortara, Aretxabaletara, Antzuolako San Isidro azokara, Nordic Walking, Oñatiko muinoetara, Atxorrotxera, Arrikruzera... ibilbide zein bisitak egin ahalko dira, barikuan, zapatuan eta domekan.



Mendifilm. MENDIFILM FESTIVAL

Tailerrak, erakusketak...

Mendizaletasuna eta gizartea erakusketa, Mendifilm proiektzioa, orientazio eta kartografia tailerra, sendabelarrak ezagutzeko, elikadura osasuntsua lantzeko, Mendiko eta Naturako argazki erakusketa... aukeran dira.



Zea Mays. ZEA MAYS

Musika eta ikuskizunak

Enekora eta The Uski's taldeek barikuan joko dute; Txantxariak, Diablues-Blucifer, Bergarako Musika Eskola eta Zea Mays izango dira zapatuko izar. Eta umeendako, berriz, Bola Bai eta Mister Pitxitxi, zapatuan eta domekan.



Bergarako Motokrosa. GOIENA

Kirola protagonista

Oihana Kortazar mendi korrikalariaren hitzaldia, Pol-Pol eta Urdaburu mendi elkarteei omenaldiak, piraguismoa, eskalada, patin jolasak, edo motokroseko Euskadiko txapelketa, dira Bergaran izango diren aukeretako batzuk.

Azoka, posturak, tailerrak... bihar, artzainen V. egunean

Aretxabaletan, 10:00etan hasi eta 13:30ak bitartean egingo da bihar, zapatua, ardiak eta artzainen mundua oinarri dituen Debagoieneko Artzainen V. Eguna. Bertan erakutsi eta probatu ahalko dira artzaintzatik eratorritako gaiak. Adibidez, artilea landuko dute, eta bertako eta kanpoko arrazako ardiak ikusgai izango dira, plazan.

Egitaraua

Azoka, eta gainera:

- 11:00 Gatatu tailerra.
- 11:00-12:30 Gantxiloa eta puntua, zuhaitza apaintzeko.
- 11:30 Gazta dastatzea.
- 12:30 Burruntzian egindako bildots pintxoak.
- 10:00-12:30 *Ardi latxaren bila* jolasa. 13:30ak arte ahariaren pisua asmatzeko.

Bilbon egingo du hurrengo hitzordua Gure Esku Dago-k

Joan den asteburuko herri galdeketen ostean, datorren ekainaren 10a markatu du agendan Gure Esku Dago ekimenak, Bilborako gonbita eginda. "Euskal herritarrok ere nolako egitura politikoak nahi ditugun erabaki nahi dugulako... Erabakitzeak aukera gauza dadin eskatuko dugu elkarrekin", adierazi dute, besteak beste.

Bihar eta etzi, Ezkutuko Altxorren lehen bisitak

Bihar, zapatua, Elgetako Jaso-kunde Amaren elizako erretaula ikusteko bisita antolatu du Debagoieneko Interpretazio Zentroak, 12:00etan. Eta etzi, domeka, bi hitzordu egin ditu Oñatin: 12:00etan, kakao zaporea ezagutzeko; eta 18:00etan, Madalenako ermita ezagutzeko. Bisitetan parte hartzeko izena eman beharra dago: 943 79 64 63.

Debagoiena turistengandik gertuago, Donostian

Eskualdeen Txokoa, hamar hila-bete, hamar eskualde izenpean, Debagoieneko eskaintza aurkeztu da Explore San Sebastian Region turismo bulegoan. Ekimen horren bueltan, domekan, Donostiako Bulebarrean Oñati-Arrikruz Kobek antolatutako arkeologia tailerra egingo da -17:00- eta *Kimika bizirik tailerra*, Bergarako Laboratorium-en eskutik -18:00-.

Eskualdeko talde sozialistek Patxi Lopez babesten dute

Debagoieneko afiliatu gehienek lehendakari ohiaren hautagaitza bermatu dute; hala ere, Sanchezek eta Diazek ere eskuratu dituzte berme gutxi batzuk

Ubane Madera DEBAGOIENA

Kanpainan daude PSOEko idazkari nagusi izateko hilaren 21eko primarioetara aurkeztutako hiru hautagaiak: Patxi Lopez, Pedro Sanchez eta Susana Diaz. Esaterako, gaur, barikua, 18:30ean, Arrasateko PSE-EEren egoitzan, Pedro Sanchezen aldeko Gipuzkoako plataformako Jorge Letamendiak, Bixen Itxasok eta Laura del Curak berba egingo dute.

Pedro Sanchezen aldeko plataforma, baina, ez da Debagoieneko afiliatu sozialisten gehiengoaren bermeak eskuratu dituenak. "Arrasateko gehiengo izugarria Patxi Lopezen aldekoa izan da", dio Paco Garciak, Arrasateko PSE-EEko idazkari nagusiak eta bertako zinegotzi eta legebiltzarkide ohiak.

Arrasatekoak ez ezik, eskualdeko beste talde sozialista guztiek ere -Eskoriatza/Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Antzuola- lehendakari ohi hobesten dute PSOEko idazkari nagusi izan dadin. Susana Diaz da, hain justu, Debagoiengan berme gu-

txien eskuratu dituen hautagaia, Estatuko emaitzen kontrara.

Bermeak vs botoak

"Partidua orain hasi da. Azken minutura arte baloia jokoan dago, eta ea zeinek sartzen duen azken gola; ez dut ezer baztertzen (...) Ikusten gabilta ezusteko handiak; Frantziar, adibidez (...) Politika oso aztoratuta dago", esan du Garciak, Lopezek eskuratu dituen berme kopuru orokor txikiari buruz galdetuta -62.617 Diazek, 57.369 Sanchezek eta 12.000 Lopezek-.

Kopuru txiki hori da, bada, Sanchezek Debagoiengan dituen aldekoen argudioetako bat: "Lopez hautagai ona da, baina, berme kopurua ikusita, ez dut uste aukerarik duenik", adierazi du Sanchez abalatu duen Jose Gonzalez bergararrak. Eta, hain justu, berme kopuru handia azpimarratu du Aritz Arrieta Arrasateko zinegotzi ohiak, Diazen alde: "Alderdi sendo eta irabazlea izateko afiliatuen gehiengoaren laguntzaren euskarria du, bermeekin ikusi genuen moduan".



PACO GARCIA

PATXI LOPEZ BERMATU DU

"Pertsona egokiena da alderdia lasaiarazteko"

"Patxi Lopez babestu dut, uste dudalako pertsona egokiena dela alderdia lasaiarazi eta PPren alternatiba izan gaitzen. Eskumari aurre egiteko ezkerreko politikak egin behar ditugu, PPK garamatzen desastrea saihesteko (...) Uste dut borondateak batuko dituen pertsona dela. Gu ez

gaude inoren kontra; guretzat, guztiak dira kideak.

Berme gutxiago eskuratzek ez du ezer esan nahi. Bagabiltza ikusten inkestek hautagai bati garaipena eman eta hauteskundeetan guztia galtzen duten kasuak; Frantziar edo Alemanian gertatutakoak; zeinek esango zuen Trump AEBetako presidente izango zela?

Politika oso aztoratuta dago; ez dut baztertzen Patxi Lopez izatea idazkari nagusi; ez dut esaten irabazi egin behar duenik ere... Partidua orain hasi da. Azken minutura arte baloia jokoan dago eta ikusiko dugu zeinek sartzen duen azken gola.

Alderdia zatikatuta dago; baina PSOEk 138 urte bete ditu eta okerrenetik pasatu da: alderdikideak bahituta, fusilatuta, kartzelatuta, terrorismoak jazarrita... eta beti egin du aurrera. Orain ere aurrera egingo du. Norbaitek uste badu PSOE hil egin behar dela, oker dago, eta hala nahi duenak ez du lortuko.

Espero dut bozketaren biharamunean guztiok bat egingo dugula demokratikoki aukeratutako idazkari nagusiarekin; hala ez balitz, PSOEren haustura gertatuko litzateke, eta ez gertatzeko bezain zentzudunak bagarela uste dut".



JOSE GONZALEZ

PEDRO SANCHEZ BERMATU DU

"Ez ezetz da, eta hori babesten jarraitzen dut"

"Pedro Sanchez bermatu dut azkeneko hauteskundeetan berak defendatu zuelako

Rajoyrekiko ezezkua, ez ezetz da. Nik hura babesten segitzen dut Rajoyri ezetz esaten jarraitzen dudalako. Gainera, Talde Kudeatzailea sartu zen erdian, amarruren bat egin zuten, eta hori ez zitzaidan batere gustatu, ezta esku artean darabiltena ere.

Patxi Lopez lehendakaria izan da eta gauzak oso ondo egin zituen, baina ez du aukerarik. Hautagai ona da, baina dituen berme kopuruarengatik ez dut

uste aukerarik duenik. Eta Susanak ez nau konbentzitzen, eskumara lar egiten duela uste dudalako, eta erabat ezkerrekoak garenok...

Uste dut maiatzaren 21ean Sanchezek irabaziko duela, eta, hala ez bada, gehiengo errespetatu eta Susanak irabazten badu, hura babestu beharko dugu. Adostasunak lortu eta alderdia apurto barik elkartu egin beharko lukete".



ARITZ ARRIETA

SUSANA DIAZ BERMATU DU

"Susanaren lehentasuna herritarren ongizatea da"

"Susana abalatu eta hura bozkatuko dut. Abal gutxi izan ditu bailaran, baina

gauza bat abala da eta beste bat botoa.

Susanaren hautagaitza ilusioz beteriko proiektua da eta helburua da PSOE sendo eta irabazlea izatea berriro ere. Gehiengoaren laguntzaren euskarria du, bermeekin ikusitako moduan. Ez du bere neurriko alderdi bat egin nahi; alderantziz, militanteen parte hartzearekin indartu nahi du alderdia. PSOE bateratzeko momentua heldu da,

oso momentu latzak bizi izan ditugu. Alderdiaren etorkizuna dago jokoan eta PP gobernutik kanpo aterako duen pertsona bat behar dugu, irabazten ohituta dagoena. Susanaren lehentasuna herritarren ongizatea da; horretarako, hainbat lege aldatu/berritatuko ditu. Gauza hauek guztiak aurrera eramateko alderdi sendo bat behar dugu izan, eta hauxe lor dezakeen bakarra gaur egun Susana da".

GAURSA
RENT A CAR

Zure ibilgailu-alokairua GASTEIZEN

Gamarroko Atea, 46

618 88 12 42 rentacar@gaursa.com www.gaursa-rentacar.com



Sari banaketa ekitaldi osteko talde argazkia, Muren Oñatiko Enpresagintza Fakultatean. MAITE TXINTXURRETA

Gradu bukaerako lana euskaraz, balio erantsia

Mondragon unibertsitateak eta Mondragon korporazioak gradu amaierako euskarazko proiektu onenak saritu dituzte. Lehenengo saria Mikel Irusta Enpresagintzako ikaslearentzat izan da, Ikerlanentzat patenteen inguruan egindako lan bategatik

Maite Txintxurreta DEBAGOIENA

Eguaztenean, euskarazko gradu amaierako lan onenen egileak saritzeko ekitaldia egin zuten Oñatiko Enpresagintza Fakultatean. Mondragon Unibertsitateak eta Mondragon Korporazioak seigarrenez antolatuta dute sari-keta hori, eta helburua da jendeak lan horretarako euskararen aldeko hautua egitera animatzea.

Aurten, 194 proiektu egin dituzte, euskaraz, Mondragon Unibertsitatean. Horien artean one-na, Mikel Irustarena.

Patenteei buruzkoa izan da Irustaren lana, eta hainbat helburu zehatz proposatu ditu, faseka garatzekoak. IK4-Ikerlanen informazio-tresnak hobetuz joatea da helburua, industria jabetzan oinarritutako negozio ere-

duaren bidean. "Patenteena enpresetan asko ezagutzen ez den kontzeptua da, eta horretan sakondu nahi nuen", dio.

Irusta eskertuta agertu da jaso duen aitortzarekin: "Sorpresa hartu nuen lehen saria irabazi nuela jakinarazi zidatenean. Noski, orduak eman ostean lanean, eskertzekoa da halako sari bat jasotzea".

Gradu amaierako lana euskaraz egiteko hautuaren zergatiak galdetuta, Irustak azaldu du ez zuela zalantzarik izan: "Nire ama hizkuntza euskara da, beti euskaraz ikasi izan dut, eta Ikerlanen giro euskalduna topatu nuen. Gainera, uste dut enpresa edo unibertsitate bat euskaldun egiten duena euskara dela.

Bigarren saria

Aurtengo bigarren saria Irati Abadentzat izan da, hura ere gasteiztarra. Mondragon Goi Eskola Politeknikoan egin ditu ikasketak, eta Fagor Arrasate-rako egindako proiektuagatik saritu dute. Sari banaketan ezin izan zen egon, eta haren tutoreak, Andoitz Aranburuk, jaso zuen saria Abaden ordeiz.

Abadek egindako proiektuaren izena *Konpositeentzako HCL eta kargadorea duen transfer prentsaren diseinu estetiko* da. Hor-taz, Fagor Arrasaterendako bi prentsa motaren diseinu estetiko-a egin du.

Fagor Arrasateko Andoitz Aranburuk, Abaden tutoreak, azaldu du Fagorren asko baloratzen dutela proiektuak euskaraz egitea, eta hala eskatzen dutela, gainera. Lanera begira ere balioan jarri gura izan du euskararen aldeko hautua: "Proiektuak euskaraz egiteak bermatzen du etorkizunean pertsona hori enpresan lanean geratuko balitz, euskara maila hori bermatuta izatea".

Bi eguneko grebarako deia, eskola publikoan

Hilaren 16rako eta 23rako egun osoko grebak deitu dituzte Steilas, ELA eta LAB sindikatuek

Ubane Madera DEBAGOIENA

Unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoko irakasle, heziketa bereziko langile, sukaldari eta garbitzaileak eta Haurreskolak Partzuergoko hezitzaile eta langileak daude deituta maiatzeko mobilizazioetara.

Grebaren deitzaileek, Steilas, ELA eta LAB sindikatuek, salatu dute "egungo hezkuntza publikoaren egoera larritzat" jo zutela martxoaren 22ko mobilizazioen bitartez, eta horri "buelta emateko oinarri-oinarritzko neurriak plazaratu" arren, Eusko Jaurlaritzak ez duela "benetako negoziatorik" abiatzeko asmorik agertu.

Eskatzen dutena da, besteak beste, hezkuntza inbertsioa handitzea; gutxienez, 2.000 langile gehiago izatea lantaldean; batez besteko ia %40ko behin-behinekotasuna %6ra murriztea eta gelako ikasle kopurua %10 murriztea.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINITZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Txokolate gozoaren alde iluna aditzera emateko

Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna da bihar eta txokolate dastatzea egingo dute Arrasateko Harreman Dendan. Kakaoaren ekoizpenean gertatzen diren esplotazio egoerak salatu eta merkataritza justuagoa posible dela aldarrikatuko dute

Larraitz Zeberio ARRASATE

Sei txokolate mota dastatzeko aukera emango dute bihar, zapatua, Arrasateko Hiper Eroskiko sarreran dagoen Harreman Dendan. Fairtrade zigiludun produktuak izango dira guztiak. Horrek esan gura du bermatuta dagoela produktu horien ekoizpen prozesua baldintza jakin batzuetan gertatu dela. "Afrika-ko kakao plantazioetan 1.200.000 umetik gora bizi dira lan-esplotazio egoeran. Txokolateak badu bere alde iluna", adierazi du Harreman Dendako koordinatzaile Gorka Martinezek.

Ekimen horretako bultzatzaileek kontsumitzaile moduan dugun ardura eta boterea jarri nahi dute mahai gainean, eta Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna baliatuko dute horretarako. "Hainbat txokolate izango ditugu eskaintzeko eta kakaoaren osagaiak eta ezaugarriak azalduko ditugu. Horrekin batera, txokolatearen ekoizpenaren inguruan dugun informazioa zabalduko dugu: esaterako, ekoizleak zein egoeratan bizi diren eta zein alde dagoen Fairtrade zigilua duten eta ez duten txokolate tabletan artean".

Martinezek azaldu duenez, munduko kakao kontsumoaren %1 soilik da Fairtrade zigilua duena. "Afrikan ekoizten da kakaoaren %73. Haurrak dabilta lanean eta ezin dira eskolara joan. Horrek komunitate horien garapena eragozten du eta pobrezian bizitzera behartzen ditu". Bidezko merkataritzaren aldekoek uste dute harreman justuagoak posible direla, eta kontsumitzaileen ardura aldarrikatzen dute. "Kontzientzia hartu behar dugu kontsumitzaile moduan dugun botereaz. Europa iparraldeko herrialdeekin konparaketa egiten badugu, ikusiko dugu nola bertako supermerkatuetako txokolate marka zuriek Fairtrade zigilua duten. Han



Gorka Martinez, Arrasateko Harreman Dendan. Alboan, Fairtrade zigilua L.Z.

kontsumitzailea zorrotzagoa da. Jarrera hori bultzatu nahi dugu gurean". Martinezen esanetan, kafea eta azukrea dira hemengo bidezko merkataritza saltokietan gehien saltzen diren produktuak. "Gurean ere bikoiztu egin dugu produktu horien salmenta azken bi urteotan", azaldu du. "Gure dendako produktu guztiak dira bidezko merkataritzakoak eta helburua da produktu horiek bestelako esparruetara zabaltzea: supermerkatuetara, ostalaritza negozioetara, elkarreterara... Hori da gure lana: Fairtrade zigilua duten produktuak zabaltzea". Arrasateko Harreman Dendako koordinatzaileak azaldu duenez, Fairtrade edo bidezko merkataritzako ekoizleen sarea 75 herrialdeetara hedatu da, izan Afrikan, Asian edo Hego Amerikan. "Dagoeneko bi milioi ekoizle daude sarean lanean. Horien artean, milioi bat Afrikan".

Kanpotik datozen produktuak ekoizten dituzten komunitateendako soldata eta lan baldintza duinak aldarrikatuko dituzte, bihar, Arrasaten. Eta, neurri batean, kontsumitzaileen esku ere badago hori.

Debagoieneko Atzegi Eguna, zapatuan, Oñatin

Adimen urritasuna dutenendako elkartea da Atzegi, eta, urtero moduan, Debagoieneko Atzegi Eguna ospatuko dute. Bihar-ko, zapatua, egin dute hitzordua, Oñatin. Atzegiko kide Jokin Antxiaren esanetan, 130 bat lagun elkartzea aurreikusten dute antolatzaileek.

Oñatiko gaztelekuan emango diete hasiera ekitaldiei. Urteko batzarra egingo dute bertan, 12:00etan. Pauso Berriak egitasmoa izango dute mahai gainean. Lan integrazioa bilatzen duen Atzegiren programa da.

Eguneko ekitaldi formalak egin ostean, festa kutsua hartuko dute hurrengo ekintzek. 12:45erako euskal dantzak daude iragarrita Oñatiko Foruen Plazan, eta 13:15ean txikiteoa egingo dute Atzegikoek, trikitilariak lagunduta. Bazkaria Zubikoa kiroldegian izango da, 14:00etan. Elkarteko hainbat familiaren topalekua izango da bazkari hori, eta, jarraian, urteroko dantzaldia izango dute.

ausolan auzo lagun AUZO LAGUN Koop. E. – ARRASATE

Estatutu Sozialen 32. artikulua dioenaren arabera, Ohiko Batzar Nagusirako deia egiten da.

OHIKO BATZAR OROKORRA Deialdia

Eguna: 2017ko maiatzaren 27a
Ordua: 10:00etan, lehen deialdia - 10:30ean, bigarren deialdia
Tokia: Polo Garaia.

GAI - ZERRENDA

- 2016ko BATZAR NAGUSIKO AKTAREN ONARPENAREN BERRI EMATEA, ETA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATZEA.
- KUDEAKETA AZTERTZEA ETA ONARTZEA
 - 2016ko Kudeaketa onartzea
 - 2017eko Kudeaketa Plana berrestea
 - 2017-2020 Estrategiko Plana berrestea
- 2016ko EKITALDIKO KONTUAK AZTERTZEA ETA ONARTZEA
- SOBERAKIN GARBIEN BANAKETA
 - 5.1. Sarrera kuotak eta ekarpena
 - 5.2. Kapitalari egindako ordainketa
 - 5.3. IPDK aplikatzeko irizpideak
- AUDITOREAK IZENDATZEA
- KOOPERATIBIZAZIOA
- MONDRAGON TALDEARI ETA ERKOP KOOPERATIBARI BURUZKO TXOSTENAK
- KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK HAUTATZEA
- KONTSEILU SOZIALA BERRITZEA
- KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK
- GALDERAK ETA ESKARIK

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri dituztela Kooperatibaren agiri ekonomikoak eta agiri hauek doan emateko edo bidaltzeko eska ditzaketela

Kontseilu Errektoreko Lehendakaria
2017ko maiatzaren 11a

ULMA

ULMA C y E-, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Eguna: 2017ko maiatzaren 19a
Ordua: 08:30ean lehenengo deialdian eta 09:00etan bigarren
Tokia: Amaia Antzokia, Arrasate (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

- Aurreko aktaren onarpenari buruzko txostena eta bazkideen izendapena batzar honen aktaren onarpenarako
- 2016ko kudeaketa soziala aztertzea eta, hala badagokio, onartzea, eta 2017ko gestio plana onartzea, hala badagokio
- ULMA Taldeari buruzko txostena
- 2016ko urteko kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
 - 4.1. 2016ko banakako urteko kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
 - 4.2. 2016ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
- Auditorea izendatzea edo berriz aukeratzea
- Kapitalaren ordainsaria. 2016ko ekitaldiari dagozkion interesen sortzapena
- 2016ko ekitaldiko emaitzen banaketa
- POGU III-n kooperatiben arteko finantza tresnei buruz ari den III. idazpuruaren aldaketa, hala badagokio
- POGU III-ren II. idazpuruaren 1.4 atala eta Kooperatibaren Barne Araudiko 82. artikuluen 8. eta 9. artikuluen aldaketa, pizgarri kolektiboaren kalkulurako erreferentzi taulak egungo egoerara egokitzeko
- Kooperatibaren Barne Araudiko 27. bi, 28. bi, 29. bat eta 29. lau artikuluen eta estatutu sozialetan kontseilu sozialeko kideen agintaldia ezartzen duen 48. hiru artikuluen aldaketak, hala badagokio.
- Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa (IPDK) aplikatzea
 - 11.1. 2016an IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargua
 - 11.2. 2017an IPDK-k aplikatzeko proposamena
- Sartzen diren bazkide berriek kapitalera egin beharreko ekarpenak
- Menpeko Finantza Ekarpenean jaulkipena
 - 13.1. Menpeko Finantza Ekarpenean jaulkipenaren bilakaera eta itxiera
 - 13.2. Menpeko Finantza Ekarpenean jaulkipena
- Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
- Zaintza Batzordeko kideak berritzea
- Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
- Hurrengo batzarra egiteko lekua
- Ahalmenak eskuordetzea
- Galderak eta eskaerak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie ULMA CyE, S. Coop.en ("Kooperatiba") egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertzea ahal izan ditzaten. Halaber, bazkide guztiei jakinarazten zaie kooperatibaren helbide sozialean dituztela eskuragarri Estatutuaren, araudietan eta POGU III-n proposatutako aldaketen testu osoa eta aldaketa horien justifikazio txostenak, eta horiek denak doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2017ko maiatzaren 5a

"Egunero 24 orduko borroka da, oso gogorra"

ITSASO TORRES FIBROMIALGIADUN BATEN SENIDEA

Senarrari zer gertatzen zitaion jakin arte denbora luzez medikuz mediku aritu ostean jakin zuten fibromialgia zela gaixotasuna: "Gizonezkoek berdin-berdin sufritzen dute"

Jokin Bereziartua DEBAGOIENA

Gaur da Fibromialgiaren eta Neke Kronikoaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Orain 25 urte onartu zuen Osasunaren Mundu Erakundeak gaixotasun moduan eta biztanleriaren %3 ingururi eragiten dio; batez ere, emakumei. Baina ez emakumei bakarrik, badira fibromialgia duten gizonak. Bergaran bizi den Itsaso Torres azkoitiarraren senarra da adibide bat.

Fibromialgia gaitz ezezaguna da, errezeloz eta aurreiritziz josia. Gizonezkoengan aurreiritzi horiek areagotu egiten direla uste duzu?

Bai. Fibromialgia emakumeek bakarrik duten gaixotasuna dela uste du gizarteak, baina ez da horrela. Nire senarrak fibromialgia dauka. Emakumea ohi-tuago dago gizartearen aurrean minak-eta adieraztera baina gizezkoak ez. Gizezkoengan lotsak, emozioak adierazteko zailtasunak... ohikoak dira. Emakume zein gizon, berdin-berdin sufritzen da. Gizartearentzat tabu da, orokorrean. Gizarte Segurantzaren ez da bazarik edo elbarritasunik jasotzen, horretarako ez dago dirurik.

Nola jabetu zinen zure senarrak fibromialgia zuela?

Oso erraz nekatzen zen. Gogoan dut lanegun baten aulkian eserita geratu zela, mugitu ezinka, eta etxera ekarri zuten. Orduan hasi ginen gertatzen zitaiona jakiteko probak egiten; mediku batek, halako minak zituela ikusita, kantzer bat izango zuela pentsatu eta Debagoieneko ospitaleko makina guztietatik pasatu zuen. Proba horien ostean esan zuen seguruenik fibromialgia izango zela.

Eta nola ziurtatu zuten?

Minaren Unitatean hainbat proba egin zizkieten. Gizakiok mina detektatzeko 18 puntu ditugu eta horietatik hamarretan mina sentituz gero ondorioztatzen da fibromialgia dela. Orduan jarri



Itsaso Torres, Arrasaten, Goiena telebistako elkarrizketaren ostean. JOKIN BEREZIARTUA

"MINA ARINTZEKO TRATAMENDUAK BAI, BAINA FIBROMIALGIAK EZ DAUKA SENDABIDERIK"

genion izena gaitzari, eta berehala etorri zitzaigun galdera: "Zer da fibromialgia?". Izan ere, jatorria ezezaguna du eta horren eraginez oso zaila da detektatzen. Erresonantzia baten ez da ikusten mina eragiten duen hori; hortaz, bestelako gaitzak baztertzeko joan ginen.

Minaz gain, ze beste sintoma nabaritzen dituen senarrak?

Nekea, lo egiteko arazoak eta antsietatea. Ezin du ohea egin, dutzatzea oso gogorra zaio... Eguneroko lanetarako gai ez dela ikusteak antsietatea sortzen dio. Senarrak 49 urte ditu, eta kanpotik gazte egon arren barrutik 65 urteko pertsona sentitzen da.

Nola egin ahal zaio aurre gaitzari? Fibromialgia bera sendatzeko ez dago ezer ez. Minak arintzeko tratamendua bai, baina sendatzen duen produkturik ez dago. Hori azpimarratu gura dut, jen-

dea dagoelako ez dakit zein belar hartuta sendatzen dela esanez dirua irabazten ari dela. Fibromialgiak ez dauka sendabiderik, hori argi utzi gura dut. **Gizarteak erakusten al du enpatiarik fibromialgiadunekiko?**

Nire kasuan, jendeak ez du ulertu nahi izan. Kanean, jendeak esaten dio ondo dagoela, aurpegi ona duela. Aurpegi oso onarekin oso gaizki egon daiteke. 24 orduko borroka da, egoera oso gogorra. Ezin du lanik egin, egunean 27 pilula hartzen ditu. Ohetik altxatzea tortura bat da.

Mediku askok gaitza ukatzen dute.

Denetarik dago. Guri mediku bakarra tokatu zaigu onartu duena, nire senarrarena lehen kasua izan zen harendako.

Fibromialgiaren inguruan lanean diharduen elkarteren baten zaudete?

Ez. Donostiako elkartera jo genuen informatzeko baina urrutiegi dago guretzat. Guk elkartea Bergaran egotea beharko genuke. **Zer eskatuko zenuke?**

Euskal Herrian 35.000 pertsona daude fibromialgiarekin. Horiei esango nieke gaixorik daudela lotsa gabe esateko eta gaixorik ez daudenei eskatuko nieke ez ditzatela baztertu, pertsonak dira.



Debagoiena Zutik!-ek Mankomunitatearen atarian egindako elkarretaratzea. ANE VITORIA

Errauste plantaren lanak hasi direla salatzen protestak asteon

Diputazioko Gobernu Taldeak uste du plantak "behin betiko soluzioa" emango diola hondakinen kudeaketaren gaiari

J.B. ARRASATE

Zubietako errauste planta erakitzeko lanen hasiera dela eta haren aurkako protesta ekitaldiak izan dira asteon bailaran. Debagoiena Zutik!-ek deituta Mankomunitatearen kanpoan elkartu ziren astelehenean eta egun berean ere egin ziren agerraldiak Bergaran eta Aretxabaletan. Hondakinak kudeatzeko beste modu bat badagoela uste dute Debagoiena Zutik taldekoek. Era berean, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduko kideek uste dute Zubietako errauskailuaren lanak "herritarren oniritzi gabe" hasi dituztela, eta inposiziotzat jo dute proiektua: "Udalak dira euren hondakinak norekin kudeatu nahi dituzten erabakitze-ko eskumena dutenak, baina kasu honetan kontsultazioak edota Diputazioak, euren eskubideei iskin eginda, errauskailua inposatu nahi diete".

"Hasi da atzerako kontaketa"

Gipuzkoako Diputazioko Gobernu Taldearen ustez, berriz, lurraldeko hiri hondakinen kudeaketari "behin betiko konponbidea" emango dio azpiegiturak, eta, beraz, hura eraikitzen hastea "albiste ezin hobea" da. "Iritsi da eguna, hemendik aurrera atzerako kontaketa hasi da", adierazi zuen eguaztenean, obren hasiera ofiziala iragartzeko ekitaldian, Ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensiok.

Aurreikuspenen arabera, Zubietako errauste planta martxan egongo da 2019ko udazkenean eta lanek 217 milioi euroko aurrekontua izango dute. Plantaren kudeaketaren eta ustiapenaren esleipena, erraustegia barne, Urbaserrek eta LKS, Moyua, Murias eta Altuna eta Uria enpresek osatutako Aldi Baterako Enpresa Elkarteari (ABEE) egitea onartu zuen Diputazioak.

Euskadiko Elikagaien Bankuko boluntarioen topaketa Bergaran

Gaur, maiatzak 12, egingo dute urteroko batzarra Euskadiko Elikagaien Bankuko boluntarioek. Aurten Bergaran egingo dute topaketa. Autobusean iritsiko dira Bergarako San Martin plazara (10:00) eta handik Laboratorium museora joango dira bisita gidatu baterako (10:15); ondoren, fatxada eta monumentu historiko garra-

tzitsuenak bisitatuko dituzte eta 12:00etan Elena Lete alkateak ongiatorria egingo die udaltzeko osoko bilkuren aretoan. Alai taldeak ere hartuko du parte harrera ekitaldian.

Udaltzeko harreraren ostean, batzarra egingo dute San Juan auzoko egoitzan; 2016ko ekitaldiaren eta etorkizuneko erronken berri emango dute. Eguna boro-biltzeko, Lasa jatetxean bazkalduko dute (14:30). Bizkaitik, Arabatik eta Gipuzkoatik etorritako 200 bat lagun espero dira.

Labegaraietako Jai Batzordearen izenean, eskerrik asko

JOSE MARI ANDUAGA
LABEGARAIETAKO JAI BATZORDEAREN
IZENEAN
BERGARA

Aurten ere, maiatzaren 1erako auzoko jaietako egitaraua osatu dugu. Lerro hauek erabili nahi ditugu eskerrak emateko modu batean edo bestean laguntza eman duzenoi. Eskerrik asko, Hierros Naparra, Errota-gain Galdarategia, Sugoi, Kiroldegiko Taberna, Ormazabal Fisioterapia Zentroa, Lazkano Oinetakoak, Multioplicas Larrañaga, Felsinee, Laboral Kutxa, Bergara Pneumatikoak, Black 3, Tripontzi-OgiBerri, Gaitxao Harategia (Aliprox), Comercial Brunet, Elkar eta Super Amara. Esker berezia auzotar guztiei jaietan parte hartzeagatik!

'Titanic' = Lurra planeta?

JOSU GARITAONANDIA
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Joan den apirilean bete da mende pasatxo *Titanic* itsasontzia urperatu zela izotz zati batekin talka egin ondoren; 1.500 inguru izan ziren hildakoak. *Titanic*-en gertaera tragikoa gizakiaren zoramenaren

adierazle bat da; azkar eta dirua xahutzen bizi izateko joera zorua. Txarto egindako gauzak asko daude, eta, hain zuzen ere, lehenengoa da pentsatzea itsasontzi hura ezin zela urperatu. Eta pentsamendu hori gaur egun ere badago. Izan ere, gehienek uste dute bizi garen planeta hau, Lurra, alegia, betiko izango dela; eta beste askok, berriz, uste dute ez dela euren arazoa. Horrenbestez, pentsatu, une batez, Lurra planetan ezin dela bizi; ez da hain zaila imajinatzea, gure inguruko planetek ez daukate bizitzarik, ez daukagu nora joan... Eta orain, pentsatu zer egingo zenukeen Lurra planetan bizitza baldintzak mantentzeko; behintzat, ez okertzeko. Zerbait egiteko prest egongo zinateke?

Bergaran kirola euskalduntzeko egindakoez

IZASKUN LABAIEN
BERGARAKO UDALEKO EUSKARA
BATZORDEBURUA, BERGARAKO UDALAREN
IZENEAN
BERGARA

Apirilaren 28an GOIENAN Iñigo Iñurrategik argitaratutako *UDAk euskaraz irabazi* artikuluaen ildoari jarraituz, Bergaran kirola euskalduntzeko azken urteetan egiten

dihardugun lana azaldu nahiko genuke, Iñigoren idatzian zentratu barik eta inolako polemikatan sartu gabe. Ikerketek adierazten dute eskolaz kanpoko jarduerak direla ume eta gazteen euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreetako bat, eta hor, pisu berezia du kirolak. Horretaz jabeturik, Bergarako Udalak hainbat ekimen bideratu ditu azken urteetan: -2011n kirol taldeekin lau ikasturteko epean 18 urtez azpikoentzako entrenamenduak euskaraz izatea helburu zuen prozesua abiatu genuen; talde bakoitzerako helburuak finkatu, entrenamenduetako eta partiduetako jarraipena egin, emaitzen berri eman... Azken hiru urteetan, gainera, klubei ematen zaien laguntzaren %10 euskararen erabileraren arabera eman da. -Hainbat formazio saio eskaini dira: futbol-entrenatzaile titulua ateratzeko euskarazko ikastaroa, futbol-entrenatzaileentzako teknifikazio ikastaro berezitua... -Eskola kirolean entrenatzailea hizkuntza eragile izateko programa. -Udaleko Kirol Zerbitzuak eskaintzen dituen ikastaroak euskaraz izatea, partaideek horretarako aukera eskaintzen duten heinean.

Zein izan da bilakaera? Oro har, positiboa. Betiere, 18 urtez azpikoen datuak kontuan hartuta, une honetan kirolarien %75 euskaraz dabil eta beste %10, berriz, gehienbat, euskaraz. Kirol batzuk –pilota, ziklismoa, igeriketa, piraguismoa, eskubaloia...– euskara hutsez edo nagusiki euskaraz dira eta beste kirolean ere, hoberako bilakaera izan da, nahiz eta oraindik badiren hutsuneak: gimnasia erritmikoan, umeen %80 euskaraz; saskibaloian %70 euskaraz edo nagusiki euskaraz eta, futbolea, berriz, 8-12 urtez azpikoak –futbol eskolakoak– %100 euskaraz dabilta eta 18 urtera bitarteko federatueta %60 dira euskaraz edo nagusiki euskaraz dabiltzanak. Esan bezala, Udalarentzat funtsezko gaia da eta, aurrerantzean ere, herriko kirola euskalduntzeko lanean jarraituko du. Azkenik, eskerrik asko klubetan euskalduntzeko ahaleginean egunez egun boluntario diharduten guztiei!

Ardurarik eza ala inpunitatea?
KONTXITA SAN SEBASTIAN
ANTZUOLA
Izenburu horrekin, Luraldebuseko txofer batzuez ari naiz. Hemen azalpenak.

Apirilaren 21ean, ostirala, Zumarragatik Bergarara bidean datorren autobusaren zain geunden Antzuolan. Bere ordua 11:35 da. Lau lagun ginen. Horietako bi, 12:10ean Bergaran irten eta Gasteizera zihoan autobusa hartzekoak ginen; medikuarekin hitzordua geneukan. Gehienetan Zumarragara doan autobusa iristen da lehenengo geltokira, eta bere atzetik, Bergarara doana. Eta hala izan zen. Lehenengoa iristean, markesinaren parean geratu zen, ateak zabalduz; bere atzean, Bergarara zihoana geratu zen; hau da, guk hartu beharrekoa. Bertara joaten hasi ginen ateak irekiko zituelakoan. Horretan ginela, lehenengoa martxan jarri zen, bigarrenak gauza bera, ez zen markesina parean geratu ere egin, eta han laga gintuen lau lagunok. Zur eta lur geratu ginen, gertatua sinetsi ezinik. Lurraldebusera deitu genuen. Alferrik. Ez bada, erreklamatzek ezertarako ez duela balio ziurtatzeko. Horregatik diot izenburuan, ardurarik eza ala inpunitatea. Edota biak batera. Ez dakit norena litzatekeen ardura, baina uste dut hurrengo baterako taxi baten telefonoa beharko genukeela han.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





ZABALIK

JOSEBA GABILONDO MARKES

Normalizatzeko ala eraldatzeko?

Hezkuntzaren munduan gabilitzanok askotan galdetzen diogu gure buruari ea gure praktikak zertarako balio duen. Ingurua (mundua) erreproduzitu nahi dugu ala eraldatu?

Egongo dira hezkuntzaren izaera normalizatzailea defendatzen dutenak; bestalde, bagara beste asko hezkuntzaren bitartez jendartearen eraldatu nahi dugunok ere.

Bizi garen bidegabeko jendarte honen eraldaketan, baina, askotan, praktika profesionalean, teknika eta mekanikaren munduan sarturik, iparra galtzen dugu, izaera transformatzailea ahazten dugu.

Sistemak asimilatzen ote gaitu ala guk asimilatzen dugu sistema?

Izan ere, oso eroso da praktika normalizatzailea, tekniko.

Korrontearen kontra joatea, berriz, neketsua da, frustragarria.

ASKOTAN, IPARRA GALTZEN DUGU, IZAERA TRANSFORMATZAILEA AHAZTEN DUGU

Gurean eskola izan daiteke agente normalizatzaileetako bat, ez bakarria, noski; hor daude komunikabideak, esaterako.

Dena den, esango nuke eskolak bere izatean daukala izaera normalizatzailea, eta horri hezkuntza legeak jartzen

dituen oztopoak gehituz gero, zer esanik ez.

Horregatik, eskola gainditu behar dugula uste dut, hori izango litzateke benetako praktika eraldatzailea. Nekez lortuko baita transformazio soziala eskolatik.

Dena dela, esan beharra dago badaudela pedagogia eraldatzaileak darabilten eskolak eta aipatzekoa ere eskola libreen praktika transformatzailea.


Paulo Freirek esandakoa gogoan izan behar dugula uste dut: "Ez dago benetako salaketarik eraldaketarako konpromisorik gabe, ezta konpromisorik ekintzarik gabe ere".

Hezkuntza munduan gabilitzanok uneoroko azterketa bat egin beharrean gaudela uste dut; zein izaera dute gure praktikek, normalizatzailea ala eraldatzailea?

Normalizazioaren zuzenbidea okertu behar dugu, DUTekoek abesten zuten bezala: "Ondo dabilatzalakoan ez dabilatza ondo, norabide okerreko zuzenbidean, zuzena ez dabil ondo okerrak ondo bagabiltza".

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Norena da botoa?

JOKIN LABAIE

[HTTPS://LABUR.EUS/SFOUE](https://labur.eus/sfove)

Frantziako presidentetzarako hauteskondeek, munduan beste leku batzuetan azkenaldian izan direnek bezala, tarte handia hartu dute egunero kontsumitzen ditugun eta gudan eragin ukaezina duten hedabideetan. [...] Lehen itzulia amaitzerako sumatu nituen zantzu batzuk, eta, bigarren itzuliaren bezperetan, egunean bertan eta biharamunean deigarriegi egin zait. Botoaren jabetzaren inguruan egiten den irakurketaz ari naiz. Hau da, norena da herritarrak kutxan sartzen duen botoa? [...]

Galdera bera, izatez, absurdoa da. Badakit. Denok dakigu norbere botoa norberarena dela. Baina lehen itzuliari begira egindako lehen inkestetan urteetan nagusi izan diren bi alderdien beherakada nabarmena izango zela zabaldu zenetik, buruan izan dut. Ez nik bakarrik, gainera. Ulertzen dut alderdiek haien xake partidetan halako galderak egin eta neurriko estrategiak garatzea. Kazetariaren kezkatu nau. Era objektiboan ari direla uste izan, eta honen edo haren botoak nora alde egin edo egingo duten galdezka edo iradokitzen ikusi ditut, etenik gabe. [...] Ez zait gai hutsala iruditzen,

inkontzienteki bada ere, hautatzeko eskubidea urratzen baitigute. Badirudi, behin ideologia jakin bat bozkatu dudanez honek ideologia horretakoa izan behar dudala *per secula seculorum*; badirudi, hein batean, daukagun sistema hau behin betiko bihurtzeko modu bat dela. Joera horrek asko du garai berriei erantzun berriak emateko ditugun zailtasunekin. Areago, espero eta desio ez ditugun aldaketak –iritzi publikoaren arabera– datozenean. Kuriosoa da, ordea, nola aldarrikatzen ditugun gizarte honen zimendu sendo eta bidezkoak haiek kolokan jarritz.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Urbane Madera.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Urbane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa
arduraduna Marta Leturia.

Sailatako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber
Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amalia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza, Jokin
Uribeetxeberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua

PROTAGONISTA

"Taldean egindako lanari saria da; ez nirea bakarrik"

ENEKO IZQUIERDO ASMATZAILE ONENAREN SARIA JASO DUENA

Mireia Bikuña OÑATI


Urteko asmatzaile onenaren saria jaso du Oñatiko Ulma Packagingen lan egiten egiten duen Eneko Izquierdo amurriarrak.

Asmatzaile onenaren Galbahe saria jaso berri duzu. Zorionak! Espero zenuen halakorik?

Gure inguruko enpresetan badira jabetza industrialaren arloan aurrerapauso handiak egiten ari diren pertsona eta I+G taldeak; beraz, sariak ustekabeen harrapatu gintuen.

Zer da Galbahe saria eta zer saritzen du?

Galbahe sariak azken hamabi hilabeteetan aurkeztutako patenteen kantitatea eta kalitatea hartzen ditu kontuan, eta urteko asmatzaile onenari saria ematen dio Galbaian Jabetza Industrialeko Agentziak. Baina, gure kasuan, ezin dugu asmatzaile bakarrari buruz berba egin, Ulma Packagingen babesten ditugun garapenak lantalde ezberdinetako



Eneko Izquierdo Galbahe sariarekin ESTIBALITZ SOLANA

emaitzak direlako: *Roadmap* teknologikoak definitzen dituztenetik hasi, zehaztapen koadernoak lantzen dituztenekin jarraitu, eta Produktu Berrien Merkaturatze taldeen eta I+G

lanak egiten dituzten teknikariek amaituz. Kolektibo hauetako guztietako pertsonak dira gure patenteetan asmatzaile modura agertzen direnak eta, beraz, beraien saria ere bada.

Zuen kasuan, zer hartu dute kontuan?

Jabetza industrialarekin zerikusia duten gaien arduraduna naiz eta Galbaianeko kideekin harremanetan nabil patenteak eskatzeko, babes estrategiak definitu eta jabetza industrialeko eskubideak defendatu behar ditugunean. **Ulma Packagingeko Inteligentzia Lehiakorreko arduraduna zara. Zein da zure lana?**

Negozioetan gertatzen diren aldaketen seinaleak, joerak, erreakzioak, konpetentziaren estrategiak, mehatxu berriak, aukerak, eta abar aztertzen ditugu. Horiek guztiak gure negozioan izan ditzaketen eraginak aurreikusteko eta hartu beharreko erabakien arrisku maila murrizteko.

Eta, aurrera begira, zer?

Ulma Packagingera iritsi nintzenetik, aurrerapauso asko eman ditugu adimen lehiakorreko prozesua martxan jartzen, jabetza industrialaren enpresaren estrategiarekin lerrokatzeko eta patente zorroa indartzen. Ohore handia izan da guretzat Galbahe saria, baina ildo honekin lotuta gauza asko gelditzen zaizkigu egiteko oraindik, eta gogor egingo dugu lan gure helburuak betetzeko.

HAU BE BADOGU!

Ekaitzaren ostean, ortzadarrak



Eguazten arratsaldean bota zuen bat-bateko zaparradak eguzki izpiekin bateratuta irudi ikusgarriak utzi zituen, eta erabiltzaile ugari elkarbanatu zituzten Twitter, Facebook eta, batez ere, Instagram bidez. Oñatitik, Aretxabaletatik eta Arrasatetik ateratako hainbat irudi partekatu zituzten, baina baita ibarreko beste herri batzuetatik ere. Goiko argazkian, Jon Mikel Larrañagak eguazten arratsaldean Oñatitik hartutako ortzadar ikusgarria.

Txirrindulariak, errespetua eskatuz

Azken asteetan izan diren istripuen ondorioz, sare sozialak kexa-mezuz bete dira, txirrindulariendako errespetua eskatzeko:

@martinell: "Txirrindularia, gidaria eta motorzalea naiz, eta ez dut ikusten ziklistak ez errespetatzeko arrazoirik. Zentzuzko distantzia utzi behar da", (itzulita).

@chrisfroom: "Espaloitik jarraitu nauem gidari batek nahita bota nau! Ondo nago; bizikleta hondatuta. Gidariak alde egin du!" (itzulita).

Erraustegiaren aurka, traolak Twitterren

Twitterreko eta Facebookeko erabiltzaile askok eta askok #ErraustegirikEz eta #ErraustetarikEz traolak erabili dituzte aste honetan, Zubietako erraustegiaren aurka ozen azaltzeko asmoarekin, hain zuzen ere. Hori dela eta, bi traol horiek erabilienetakoak izan dira txiolari euskaldunen artean asteon:

@MaiderGalardi: "#ErraustetarikEz esateko herritar ugari bildu gara gaur ere. #EzNireIzenean!".

ITURRI ONETIK

Bueltan da 'Ti tau!' film labur lehiaketa

Iazko etenaldiaren ondoren, Eskoriatzan bost urtez egin den film laburren lehiaketa berreskuratu nahi izan dute aurten, "herriari bizitza emateko, euskara sustatzeko eta egun batez herria plato bilakatuz ondo pasatzeko". Egun batean hasi eta bukatzen den film labur lehiaketa da *Ti tau!* Banaka, binaka edo taldeka parte har daiteke bertan. Egunean bertan grabatu eta 3-4 minutuko bideoa egin behar da lehiatzeko. Umorea da haren oinarria. Aurtengoa ekainaren 10ean izango da.

GORA ETA BEHERA



Tamaina handikoak lekuz kanpo

Elgetatik ailegatu zaigu honako kexu hau: *Ze zikiñek laga ditxu honek, Izarreko bueltan? Inork ez dozue ezer ikusi?* Oraingoan, Elgetan gertatu da, baina Debagoieneko Mankomunitateak sarri egin behar izaten die halako errespetu faltei aurre. Tamaina handiko hondakinak dira, gehienetan, haiek uzteko ezarritako eguna errespetatu barik edozein lekutan lagata azaltzen direnak.



IKER IRAZABAL

Ordezkaritza sindikalaren etorkizuna erabakitzeke

Iturbiden lan egiten duten Aita Menni enpresako erizaintzako laguntzaileen enpresa batzordea kolokan dago. Lan egutegiaren onarpenak zatiketa eragin du langileen eta batzordearen artean, eta batzordea desegiteko batzarra dago deituta asteazkenerako

Xabi Gorostidi ARRASATE

Informazio nahasgarritz jositako lan gatazka arantzatsua dago Iturbideko egoitzako 52 erizaintza laguntzaileen eta haien interesak defendatzen dituen enpresa batzordearen artean.

Duela urte eta erdi enpresa batzorde bat eratu zen lehen aldiz. Batzordea bost ordezkari osatuta dago: CCOOko hiru, LABeko bat eta ELAko bat. Bertan gehiengo duen sindikatua- ren ekimenez, zuzendaritzak proposatzen zien lan egutegiaren aurkako ekintzak hasi ziren, euren ustez bitarteko karguen "pribilegioak" mantentzen ditue- lako, eta ez ditu langileen arte- ko errotazioak ahalbidetzen.

Baina langileen zati bat zu- zendaritzak planteatzen zuen egutegiaren alde zegoen, eta hori irudikatzeko batzar bat egin zuten urtarrilaren 30ean, egu- tegiaren inguruan bozkatzeko. Langileen estatutuko 77. artiku- luan jasotzen denez, langileen %33ren sinadurak batuz batza- rrak egin daitezke, eta 27 langi- laren sinadurak batu zituzten batzarra egiteko –%50 baino gehiago– eta 26tik 18k egutegia onartu zuten. CCOOko Iñaki Tempranok esan du batzar hura ilegala izan zela: "Hura konbo- katzeko sinadurak presioekin eta mehatxuekin lortu ziren". Bada, hori epaitegietan argitu- ko dute.

Etorkizuna, bi batzarretan

Egutegiaren alde zeuden langi- leek jakinarazi zuten batzar bat egingo zutela maiatzaren 17an, enpresa batzordearen desegitea bozkatu eta hauteskunde sindi- kalak eskatzeko.

Aldiz, CCOO jakinarazi du hori egin aurretik batzar bat egiteko hasierako akordio bat lortu dutela, langileek enpresa batzordeak planteatzen duen egutegia onartzen duten edo ez ikusteko.



Iturbideko egoitza kanpoko aldetik. XABI GOROSTIDI

Enpresa batzordearen azalpenak

CCOOk gehiengo duen enpresa batzordeak batzar bat egin zuen abenduan, non langileen gehiengoak lanpostuen errotazioa eskatzen zuen. "Hala, langileek funtzio gehiago egin ditzakete, eta egoiliarrei zerbitzu hobea eskaini".

Aita Menniko zuzendaritzarekin negoziatzera joan ziren Lan Harreman Kontseilura, eta bertan, Aita Menniko zuzendaritzak esan zien "eskuak lotuta" zituela. "Aita Mennik aldi baterako lan hitzarmena du Iturbideko egoitzarekin, eta bertako zuzendaritza errotazioen aurka dagoenez, esleipena egiten dion zuzendaritzaren aurka ezin dutela egin esan ziguten, argi eta garbi".

Langileen azalpenak gatazkarekiko

"Urtarrilaren 30eko batzarra egiteko sinadurak presio eta mehatxuean lortu ditugula esatea oso akusazio larria da, eta euren dagokie mehatxuak zeini, noiz eta nola egin diren argitzea epailearen aurrean", adierazi dute langileen interesak defendatzeko sortutako mahaiko kideek.

"Abenduan egindako batzarrean egia da errotazio sistema bat planteatzea onartu zela. Baina eredu eta zehaztasunak ez ziren aipatzen. Lau hilabete pasa ondoren, enpresa batzordearen gustura egindako errotazio sistema bat negoziatzera joan dira Aita Mennirekin, aurrez langileei eredu horren alde zeuden galdetu gabe".

Hainbat lan poltsa zabaldu ditu Udalak lan bila ari direnentzat

Kirol Sailerako leialtze teknikari bat, administrarien lan poltsa eta herriko sei langaberentzat plana dira horiek

X.G. ARRASATE

Iaz bezala, Arrasateko Udalak herriko langabeak kontratatuko ditu hurrengo hilabeteetan, bi programa hauen baitan: Lanbi- dek sustatutako Enplegu Pro- grama eta Udalak zuzenean sustatutako Enplegu Programa.

Hauek dira Udalak behar di- tuen sei profilak: zuzenbidean lizentziadun bat, leialtze tekni- kari bat, prebentzio teknikari bat, bi teknikari edo teknikari laguntzaile eta turismo tekni- kari bat. Iraupenak bost hilabe- tetatik hamabira joan daitezke,

eta lan jardunak %50, %80 eta %100ekoak dira.

Administrarien lan poltsa

Apirilaren 12ko Tokiko Gober- nu Batzarrean onartu zituzten poltsa horretan sartzeko baldin- tzak. Goi batxilergoa edo erdi mailako lanbide heziketako ikas- keta maila izatea eta euskaraz- ko 3. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea egiaztatzea eskatzen da horretarako. Lanpostu horiei guztiei buruzko informazio zeha- tzagoa udal webguneko *Enplegua* atalean dago jasota.

Cespari esleitu diote datozen lau urteetarako kale garbiketa

Oposizioa garbiketa udalekotzearen alde agertu da, baina Udal Gobernuak ez du hori kalkulatzeko astirik izan

X.G. ARRASATE

Urteko 1.687.948,91 euroko kostua izango du zerbitzuak (BEZa bar- ne), eta, besteak beste, aurreko kontratuaren aldean honako hobekuntza hauek izango ditu: pertsonal eta makineria gehiago kontratatatzeko baliabideak jarri- ko direla, markesinak eta auto- bus geltokiak, autoendako gar- bigunea eta hiri-altzariak garbi mantenduko direla eta pasabide eta arkupeak garbitzeko maiz- tasuna areagotu egingo dela.

Mozioak protagonista

Lehenik, auzoetako batzordeen hautaketari buruzko mozioa aurkeztu zuen Irabazik. Gaia dagokion batzordean aurkeztu zuten legealdi hasieran, baina, erantzunik jaso ez dutenez, mo- zio gisa aurkeztu zuten. Auzoe- tako ordezkariak ereduari buel- ta bat emate aldera, eredu ez- berdinarak aipatu zituzten; tartean, alkateak auzo mailako hautes- kunde bidez hautatzea. Oscar Garciak iragarri zuen gaiari heltzeko konpromisoa hartzen duela, nahiz eta mozioa ez zen onartua izan, eta maiatzaren 29an auzo alkateekin batzarra egingo dutela iragarri zuen.

Ondorengo lau mozioak Ira- bazik eta Baleikek aurkeztu zi- tuzten batera, baina ez zen ho- rietako bat ere onartu. Lehena, animaliak erabiltzen dituzten ikuskizunen aurkako udal izatea –zirkuak, kasu–; bigarrena, erre- publikaren aitorten instituzio- nala egitea; hirugarrena, uda- lekotze prozesuen defentsa; eta laugarrena, *Montoro legea* in- dargabetzea.

EAJk aurka bozkatu zuen guz- tietan, eta PSE-EEk eta EH Bil- duk puntuen arabera bozkatu zuten. EH Bilduk abstentziora jo zuen animalienan, *Montoro legea*-renean eta bigarren erre- publikakoarenean; azken horre- tan, euskal klabea egin ez ze- lako. Udalekotze prozesuen ka- suan, aldeko botoa eman zuen. PSE-EEri dagokionez, absten- tziora jo zuen animalien mozioan, alde bozkatu zuen errepublikaren aitortzarenean, eta gainontze- koetan aurkako botoa eman zuen.

Galdera eta eskaeren tartean, CCOOko kideek hartu zuten hitza, Iturbide egoitzako Aita Menniko langileen lan gatazka- ren harira, eta EAJk, EH Bilduk eta Irabazik gaiarekiko posizio- namendua egin zuten.

Poza gailenduko da Musakolako festetan

Gaur goizeko hamarretan kanpai errepika eta suziri jaurtiketarekin emango zaie hasiera Musakolako jaiei, eta, urtero bezala, egitaraua ekintzaz lepo egongo da. Gainera, Zigorrolan famatua den astakiloak 18 urte bete beteko ditu aurten

Ane Vitoria ARRASATE

Urtero bezala, maiatzaren giro onarekin batera datoz Musakolako jaiak. Gaur hasi diren arren, eta jaietan murgiltzen joateko, joan den asteburuan hainbat ekintza izan ziren: mus, briska eta tute karta-jokoen txapelketen finalak eta BTT mendi martxa, hain zuzen. Hala ere, gaur goizean ekingo zaie jaietako egitarauaren barruan dauden ekintza nagusiei, eta den-denak bereziak izango dira.

Hamaika ekintza

Antolakuntza-lanak aurreko urteetako berak izan dira. "Betikiko martxan ibili gara antolakuntza aldetik. Baina egia da BTT mendi martxaren 10. urteurrenak hainbat buruhauste eman dizkigula; izan ere, inoiz baino jende gehiagok parte hartu zuen. Hala ere, primeran joan zen", dio Musakolako jaien antolatzaile Iban Goñik. Urtero bezala, askotariko ekintzak es-

kainiko dituzte aurten ere, txiki, heldu zein nagusiei bidertuta egongo direnak, hala nola puzgarriak, kalejirak, dantzaldiak, umeen danborrada, spinning *master class*-a, auzoko artisten eskulanean erakusketa, eta abar. Baina badago berrikuntza bat egitarauan: gaur gaueko hamaiketan San Isidro plazan egingo den kantu afaria. Hain zuzen ere, kantu herrikoiak eta euskal kantak izango dira nagusi eta nork bere afaria eraman beharko du.

Astakiloaren 18. urteurrena

Aurten, ekainaren 19an, Musakolan famatua den astakiloak 18 urte beteko ditu, eta hori ere ospatuko dute zigorrolarrek. "Hamazortzi urte pasatu dira astakiloa hemen dagoenetik, eta hori ere ospatzeko asmoa daukagu. Egia da oraindik ez dugula zehaztu nola ospatuko dugun, baina zerbait egingo dugula argi daukagu", azpimarratu du Goñik.



Musakolako jaietako antolatzaileak egitarauarekin. ANE VITORIA

Egitarau zabala aurten ere

Maiatzak 12, egubakoitza

- **10:00** Kanpai errepika eta suziri jaurtiketa.
- **19:00** Ikurrina igotzea. Buruhandiak eta gaiteroak.
- **23:00** Disko festa: Amaia DJ, San Antolin plazan.
- **23:00** Kantu afaria. Kantu herrikoiak eta euskal kantak, Sei Pistols taldeak alaituta. Bakoitzak eraman dezala bere afaria. San Isidro plazan.

Maiatzak 13, zapatua

- **13:30** Urrezko Astakiloak eman eta jartzea.
- **15:00** Herri bazkaria, San Isidro eliza ondoan.
- **20:00** Trikitidantz taldea
- **23:00** Trikitidantz taldea, San Antolin plazan.

Maiatzak 14, domeka

- **12:30** Txikiteoa, Elutxa taldeak alaituta.
- **22:30** Azken traka itsas pasealekuan, suzko erroberak, sorpresa ikusgarria.

Maiatzak 15, astelehena

- **10:30** Prozesioa Santa Teresa elizatik San Isidro elizaraino.
- **11:00** Meza nagusia San Isidro elizan. Ondoren, abesbatza eta herritarrentzako luntxa San Isidro elkartearen.

OHARRA: EGITARAU OSOA WWW.MUSAKOLA.COM ATARIAN DAGO

EROSKI
ARRASATE

MAIATZAK 13 LARUNBATA

BEZa

oparituko dizugu
EHUN GAJETAN, AZOKAN, ELEKTRONIKAN
eta ETXETRESNA ELEKTRIKOETAN
 Bixietan eta optikan ere bai

Sustapen baldioduna EROSKI hipermerkatuetan produktu hauetan 25€-tik gorako erosketak egiteagatik.

* Kutxatik pasatzean sarritu dizugu erosiko produktu BEZa EROSKI club txartelean. Adib.: %21 BEZ daukan 100 €-tik gorako erosketa batengatik 17,35 € sortuko dizkizugu EROSKI club txartelean. Testuliburuak, esperientzia sortak, telefonoen birkargak, E-pay txartelak (aurteordainaketa), errebelatu digitala eta fidelizazioarako sustapenetako produktuak ez dira sustapenean sartzen. Edozein EROSKI supermerkatuetan eta hipermerkatuetan truka daiteke, bixi-dendak, optikak eta zerbitzuek baxe (auto-ordainketa erreia izan ezik), baita Eroski bidaietan ere. Gainerako baldintzak supermerkatuen kontsultatu.

Musakola z/g ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Nahi duzunean eta nahierako lekuan erosi...
www.eroski.es | EROSKI súper aplikazioa | Eroski dendak

Kalean egon arren, Internetera konektatuta

Hiru wifi gune jarri ditu Arrasateko Udalak herritarren zerbitzura. Garibaiko autobus geltoki inguruan, Biteri etorbidean eta Arimazubi plazan kokatu dituzte, eta, aurrerago, herriko beste leku eta auzo batzuetara hedatzea da asmoa

Xabi Gorostidi ARRASATE

Sarera konektatuta egoteko beharra gero eta hedatuago dagoen zerbait da, eta, horretarako erraztasunak emate aldera, Arrasateko Udalak hiru wifi gune jarri ditu herriko kaleetan. Hiru eraikin publiko baliatu dituzte antenak jarri eta kaleak Internet konexioarekin hornitzeko.

Hala, Iturbide egoitzan jarritakoak Garibai etorbideari emango dio estaldura, Gazte Bulegoan kokatutakoak Biteriko guneari eta, azkenik, Udal Euskaltegiakoak Arimazubi plazari. "Ikusi egin beharko da zer-nolako erabilera maila duten, baina, ondo funtzionatuz gero, etorkizunean herriko beste gune batzuetara hedatzea gustatuko litzaiguke", esan du Victor Fuentesek, Arrasateko Udaleko Garapen Teknologiko, Teknologia Berri, Turismo eta Komertzio zinegotziak.

Hauteskunde programa barruan

PSE-EE taldearen hauteskunde programan txertatutako akzioa da, eta 2017ko aurrekontuen zirriborroa aurkezterakoan iragarri zuen Oscar Garciak aurreko egiteko asmoa zutela. Martxo hasieran erabilgarri egotea zen aurreikuspena, baina, sarearen hornidura egin duen Vodafone enpresak izandako atzerapen-



Herritar bat Garibai kaleko gunera konektatu aurretik. XABI GOROSTIDI

gatik, hilabete geroago jarri da martxan. "Apiriletik hona hainbat proba egin ditugu, behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko" adierazi du Fuentesek.

60 GB-ko abiadura

Hori da wifi sareak, oro har, izango duen nabigazio abiadura. "Wifi publikoa jartzeko abiadura muga batzuk ezartzen ditu legeak, jendeak praktika desgokiak egin ez ditzan. Oso abiadura azkarra jarri gero, pelikula edo bestelako eduki multimedialak legez kanpo deskarga-

tzeko arriskua dago", azaldu du Fuentesek.

Konektatzeko erraza

Bi pauso eman beharko dira sarera konektatzeko: lehenik eta behin, wifia aktibatu eta Arrasateko Udalaren izeneko sarrera konektatu, eta ondoren, erabiltzaile gisa posta elektronikoa helbidea sartu. "Posta elektronikoa bidez, zenbat erabiltzaile konektatzen diren jakin dezakegu. Behin konektatuz gero, beste guneetan automatikoki konektatuko zara".

Doako aparkalekua izango dute Ibai-arteko erosleek, ordubetez

Laubideko Parkingarekin lortutako akordioari esker, erraztasunak emango dizkiete herrian erosten dutenei

X.G. ARRASATE

Autoa aparkatzea ez da aitzakia izango aurrerantzean herriko komertzioetan erosketak ez egiteko. Aparkatzeko zailtasunak herriko denden jarduna oztopatzen zuela ohartuta hasi ziren egitasmoari forma ematen, eta duela bi aste aurkeztutako hiri-ekonomia planean aurreikusitako neurria da.

Maiatzaren 8tik aurrera, Laubideko Parkingarekin lankidetzan, ordubete doan aparkatzeko txartelak oparitutako dituzte kanpainara atxikitako Ibai-Ar-

teko saltokiek. Horiek identifikatzeko, eranskailu bereizgarri bat izango dute saltokiek.

Txartela, erosketarekin bat

Abantaila hori baliatzeko, erosketa egiterakoan parking txartela eskatzea nahikoa izango da. Ondoren, aparkalekutik irteteko momentuan, txartela sartu eta barroteak zabalduko dira. "Autoa hartuz gero, maiatzaren 8tik aurrera ez ahaztu zure aparkaleku-txartela eskatzea Arrasateko saltokietan", adierazi dute Ibai-Arteko kideek.

Islamofobiaren aurkako tailerra Emakume Txokoan

Emakumeak islamofobiaren aurrean lelopean, prestakuntza saioa egingo dute bihar, zapatua. Hain zuzen ere, Emakume Txokoak Jose Luis Iñarra Abade Jauna kaleko 10. zenbakian duen egoitzan izango da. Goizeko hamarretan hasia eta 13:30ean bukatzea da antolatzaileen asmoa. Maya Amranek gidatuko du tailerra, eta Emakume Txokoak, SOS Arrazakeriak eta Udalak elkarlanean antolatu dute.

Umeen zaintzarekin

Ahalik eta jende gehien hurbildu dadin, umeen doako zaintza zerbitzua jarriko dute tailerra egiten den bitartean.

Amurrioko sekretuak ezagutuko dituzte Abaroako kideek

Abaroa elkarteak irteera antolatu du maiatzaren 18rako, Amurriora. Hara iritsi aurretik, Legution egingo dute geldialdia, hamarretako egin eta indarrak hartzeko.

Ondoren, Elosuko (Araba) Euskal Buztingintza Museora bisita gidatua egingo dute, eta jarraian, denbora libre izango dute nork bere erara Amurrioko bazterrak ezagutu ditzen.

Bazkalorduan, berriz elkartuko dira eta Ruperto jatetxean bazkalduko dute. Behin hori eginda, etxerako bidea hartuko dute, baina ez dira zuzenean Arrasatera etorriko; hori egin aurretik, Bilbon egingo dute azken geldialdixoa.

Halcon Bidaia

Olarte kalea 14, behea • 943 79 29 88
Halcon99@halcon-viajes.es

IRTEERA ARRASATETIK

TORREMOLINOSERA BIDAIA

2017KO MAIATZAREN 16TIK 30ERA

Autobusa Arrasatetik Loira

Hegaldi zuzena Malagara

Garraioa aireportutik hotelera

Natali Hotela 3***

14 gau mantenu osoarekin: ura eta ardoa otorduetan barne

Prezioa:
595€

Santa Barbara parkea sakonago ezagutzen

Arrasateko Haur Kontseilua Santa Barbara parkearen erabilera sustatzeko ideiak garatzen ari da. Hilabete batzuez landutako proposamenen artean, hauek daude: naturaz gozatzeko aukerak, udako zinema, kirol aisialdirako gunea eta aterpea jartzea

Ane Vitoria ARRASATE

Santa Barbara parkearen erabilera sustatzeko ideiak batzeko sortu da Arrasateko Haur Kontseilua. Bada, arrasatearren hazkuntzarako egokitutako hiri-eredua sortzeko ideiak eta proposamenak garatu dira. Lan horretan, haurrek presentzia nagusia izan dute, eta, taldea sortu zenetik, alkatetzaren aholkularitza organo gisa lanean aritu da hurrekin.

Haurrak dira kontseilukideak

Kontseilua Arrasateko Herri Eskolak eta Arizmendi Ikastolako Santa Teresa, Arimazubi eta Gazteluondo gunetako Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetakoko 18 haurrek osatzen dute. Eta, parekotasuna eta aniztasuna bultzatu nahian, bederatzi neskaz eta bederatzi mutil ez osatu da. Taldea urtarilean osatu zen, eta, geroztik, hainbat izan dira emandako pausoak. Lehen saioa elkar ezagutzeko izan zen, eta horretan, gazteak Arrasateko alkatearekin izan ziren. Saioan, Kontseiluko haurrek gaiaren gaineko euren lehen iritzi eta ezagutzak adierazi zituzten. Bigarren saioan,

Santa Barbara parkea ezagutzeko hainbat ekintzari ekin zion Kontseilua. Hasieran, umeei hala eskatuta, parkearen inguruko historia ezagutu zuten; eta, ondoren, gehiago sakondu nahian, Santa Barbarara gerturatu ziren. Bertan ibilbide txiki bat egin zuten, parkea esploratu eta inguruetako erabilerak aztertzeke. Azkenik, udaltzainei parkearen egungo erabilera eta gatazken gaineko galderak egin zizkieten. Hirugarren saioan, aurretik jasotako informazio guztia bildu eta parkeaz disfrutatzeko ideiak bota zituzten. Horretarako, irudimenaren lanketarekin zerikusia duten jolasei ekin zieten haurrek. Amaieran, alkatearekin berriz ere elkartu eta ideiak proposatu zituzten. Ildoari jarraituz, apirilean egindako azken bileran, momentura arte proposatutako ideia guztien arteko aukeraketa bat egin zuten, eta nagusiak bildu: naturaz gozatzeko aukerak, udako zinema, kirol aisialdi gunea eta aterpe bat jartzea, hain zuzen.

Azken saioa, maiatzean

Maiatzean izango da azken bilera, eta ikasturteari amaiera

emateko jaialdia prestatzen ari dira gazteak. Jaialdia ekainaren 9an izango da, arratsaldean, Arrasateko erdigunean, eta haur eta heldu guztiei dago zuzenduta. Egun horretan, jolasak izango dira eta jaialdiaren xede nagusia, hain zuzen, Kontseilua eginiko lana herritar guztiei ezagutaraztea da.

Amnistiaren inguruko afari-tertulia izango da gaur gauean

Amnistiaren alde egindako lanaz jardungo dute gaur gauean gaztetxean. Izan ere, gai horrekin lotura, afari-tertulia izango da gaueko bederatzietan. Hain zuzen, Juan Mari Olano eta Gari Arriaga izango dira gonbidatu bereziak, eta azken lau hamarkadetan euskal presoak kalartzeke egindako lana izango dute hizpide, *40 urte amnistiaren bidean* lelopean. Afarira gerturatu nahi dutenek txartelak erositatekin nahikoa izango dute. Horiek Irati tabernan eskura daitezke prezio honetan: langileek 10 euro ordaindu beharko dute eta, langabeek, berriz, 7 euroren truk lortu ditzakete txartelak.

Abian da San Juan jailetako esaldi laburren lehiaketa

Sanjuanetako esaldi laburren V. edizioa jarri dute martxan Arrasateko EHEk, Debagoieneko AEK euskaltegiak eta AED elkarteak, Udalararekin elkarlanean. Aukeraturako esaldia aurtengo jailetako zapi eta pegatinetan erabiliko da. Eta, egokia bada, jailetako kartel ofizialean ere ager daiteke. Esaldi laburra eta argia balioztatuko da eta Arrasaten bizi, ikasi edo lan egiten egiten duen edonork parte hartu dezake lehiaketan; taldean edo bakarka. Lanak AED elkartearen edo posta elektronikoko bitartez aed@aedelkarte.com helbidean aurkeztu behar dira maiatzaren 24a baino lehen; eta epaia maiatzaren 26an jakinaraziko da.



Haurrak, Santa Barbara hobeto ezagutzeko ekintza batean. ARRASATEKO UDALA

IRTEERA ARRASATETIK ITSAS BIDAIA NORUEGAKO FIORDOETARA 2017KO EKAINAREN 16TIK 23RA

Prezioan barne:

- 7 gau Noruegako Fiordoetan Costa Fascinosa itsasontzian

- Mantenu osoa

- Autobusa: Arrasate-Loiu-Arrasate

- Hegaldi zuzenak: Bilbo-Both-Bilbo

- Garraioa: aireportua-portua-aireportua

- Aireportuko eta ontziratze tasak

- Itsasontziko eskupekoak

Aukerakoak:

- Edariak

- Txangoak

Prezioa
Clasic barrukoa:
1.345€

Prezioa
Clasic kanpokoa:
1.475€



Halcon bidaiak

Olarte kalea 14, behea
943 79 29 88
Halconq99@halcon-viajes.es



Partidu aurretik, jokalariai, Isasi entrenatzaileak eta Jabo kapitainak emandako berbaldia entzuten. GOIENA

"Mailaz igotzeko taldea dugula ikusi behar da"

Kanpanzar Arrasateko jokalariek —eta zaleek— ez ahazteko moduko arratsaldea pasa zuten joan den zapatuan Mungian; Liga txapelkunak dira, eta mailaz igoko dira, "baldin eta jokalariek horrela erabakitzen badute", argitu du Igor Isasik

Xabier Urzelai ARRASATE

Ligako lehenengo fase borobila egin, eta iguera fasean ere lehenengo postua defendatuta —azkeneko jardunaldian 0-36 egin zuten Mungiaren kontra—, Kanpanzar Arrasate Rugby Taldea ligako txapelkun da, eta mailaz igotzeko txartela lortu dute: "Seguruenik denboraldiko partidua osoenetakoa" egin ostean, talde-

ko entrenatzaile Igor Isasiren esanetan. Mungiara talde indartsua eraman zuen Arrasatek, baina baita zalez betetako autobusa ere, eta beste asko autoz joan ziren.

Duela bi urte ere lortu zuten

Duela bi urte ere Arrasateko taldeak liga irabazi zuen berdegunean, baina ondoren muzin

egin zioten kategoriaz igotzeko aukerari, besteak beste, Euskadiko Txapelketako lehenengo mailan lehiatzeko, kopuruz, talde sendoa behar delako: "Aurre-rago hartuko dugu erabakia, baina jokalariai eurak dira protagonistak, eta euren erabakia izango da. Kopuru aldetik talde polita behar da goragoko mailan lehiatzeko".

Donostiara, Uarkapen lortutako emaitzari buelta ematera

Herri Arteko Txapelketako lehen kanporaketan donostiarrak 1-2 aurreratu dira; domekan da itzulerakoa

X.U. ARETXABALETA

"Donostiak erakutsi du talde indartsua daukala, eta egia da zaila dela kanporaketari buelta ematea, baina ahalegin hori egingo dugu", adierazi du, domekako partidura begira, Arrasateko pilota elkartek.

Egubakoitzean, Uarkapen jokotutako joanekoan Arrasateko pilotariek Donostiakoak hartu zituzten. Eta Gipuzkoako hiri-buruko ordezkariak erakutsi zuten aurten talde indartsueta-bat izango direla.



Arrasateko pilotaria sakea egiten. I.S.

Hirutik bat irabazi du Arrasatek

Kadete mailan Etxezarretak eta Garitanok neurtu zituzten indarrak donostiarren kontra, eta kanpotarrak gehiago izan ziren (8-22). Ondoren etorri zen gazte mailako partidua, eta hor bai, hor garaipena zuri-moreendako

izan zen, Llodio eta Muruak oso partidua txukuna jokotuta ondo menperatu zituzten-eta (22-10). Senior mailako norgehiagoka geratzen zen, eta hor Bolinaga eta Arabaolaza ahalegin-du ziren, baina 9-22 galdu zuten.

Dragoikoak Guadalajarara

Arrasateko Dragoi Gimnasia Taldekoak Guadalajarara joango dira asteburuan, Espainiako Aerobik Txapelketan esku hartzerako. Uxue Azkue, Arait Altube, Noah Berrocal, Izaskun Gartzia, Nahia Irazola eta Eider Lasanta izango dira Arrasateko ordezkariak.

Bestalde, beste gimnasta asko Ordizian lehiatuko dira asteburuan.



GOIENA

Zazpiko errugbi txapelketa prestatzera

Arrasatekoendako amaitu dira urteko lan gogorrak. Baina oraindik ez dute denboraldia amaitu, ekainean Nazioarteko Zazpiko Errugbi Txapelketa jokatu dute eta. Errugbia eta jaia bateratuko dituzte hor, baina Euskal Herritik datozen taldeen aurrean neurria eman gura izaten dute. Beteranoek, berriz, Erromako talde baten kontra izango dute lagunartekoa.



Mungian ateratako talde erretratua. KANPANZAR ART

Mondrate penaltietan geratu da iguera fasetik kanpo

Mondratekoek ezingo dute iguera faseko finala jokatu, joan den egubakoitzean Zaldibiaren kanp-kanp galduta eta gero. Arrasatekoek futbol giro ederrarekin egin zuten topo, zaldibiarrek zale asko zituzten harmailetan, Arrasatek ere kuadrilla polita joan zen, eta, partidua lehiatuaren ostean (2-2), penaltietan txanponak Zaldibiaren alde egin zuen.

Zaldibarren bi jardunaldi falta dira ligaxka amaitzeko

Bi jardunaldi geratzen dira Zaldibarko Txapelketako hurrengo fasera nortzuk sailkatuko diren erabakitzeko, eta sailkapenean talde asko pare-parean daude. Hala, zapatuko jardunaldia 09:30ean hasiko dute Elorrak eta Aldatzek, eta domekan Jibarosek eta Monte Tabernak jokatu dute lehenengo partidua, 12:30ean.

Literatura lehiaketak jada baditu irabazleak

AED Elkarteak antolatutako 30. Arrasate Literatur Lehiaketaren sari banaketa izan zen atzo arratsaldean Kultureteko areto nagusian. Ekitaldian, Unai Iturriaga bertsolari eta idazleak sorkuntza sustatzeko hitz motibagarriak eskaini zizkien parte hartzaileei

Ane Vitoria ARRASATE

Ekitaldi berezia izan zen atzokoa. Unai Iturriagaren hitzen ostean, sari banaketari ekin zioten. Ekitaldia giro politoan amaitzeko, bertso-paperean lehen saria jaso zuten Maren Tenak eta Josune Nietok eurek sortutako bertsoa abestu zuten, ezustekorik ezean, izan ere edizioa ekitaldia egin baino lehen itxi zen.

Sariak hiru ataletan banatuta

Ipuin ataleko LHko 5. eta 6. mailako lehenengo saria Lide Ezpeletak eta Izar Urangak jaso zuten, *Amandrea* lanarekin. DBHko 1. eta 2. mailako lehenengo saria *Pilotatxoaren bizitza* lanak jaso zuen, Danel Herarterenak. DBHko 3. eta 4. mailako lehen saria Ohiana Aranarentzat izan zen, *Negua* lanarekin. Eta, Batxilergotik gorako lehen saria, *Errutinarren morroi* lanarekin, Maria Osese jaso zuen. Poesia atalean, LHko 5. eta 6. mailatan, lehen saria Danel Iturberentzat izan zen, *Hilabeteak* lanarekin. DBHko 1. eta 2. mailatan, Kattalin Linazasoro izan zen garaile, *Bihoztzeko ateak* lanari esker. Batxilergotik gorakoetan, lehen saria *Habia abandonatuak* lanak jaso zuen, Eneko Barberenak idatzitakoa. Azkenik, bertso-paperean atalean, LHko 5. eta 6. mailatan, *Amodioa* bertso sortarekin, Maren Tenak eta Josune Nietok lortu zuten lehen saria. DBHko 1. eta 2. mailatan, *Nigeriatik nator Arrasatera bizitzera* bertso sortarekin, Garazi Barrenak, Beñat Barrenak, Eñaut Lasagak, Ane Zeziagak, Garazi Urrutiak eta Ixiar Okinak lortu zuten lehen saria. DBHko 3. eta 4. mailatan, *Iragana etorkizun* bertso sortarekin, Oihana Aranak eskuratu zuen lehen saria. Eta, azkenik, Batxilergotik gorakoetan, Andoni Goitiak *Siria, su-hiria* bertsoarekin lortu zuen lehenengo saria.

Eskaintza zabala Arrasate Musikalen eskutik aurten ere

Arrasate Musikaleko 2017/18 matrikulazio epea zabaltzeaz dago; izan ere, hilaren 16tik uztailaren 4ra bitartean egongo da irekita. Eskaintza zabala du Arrasate Musikalek: batetik, 4 urtetik aurrerakoentzat Suzuki metodoa; eta, bestetik, 5 eta 6 urte bitarteko ikasleentzat tailer musikala. Gainera, instrumentu musikalen eskaintza oso za-

bala daukate eta balleta ere irakasten dute. Izena emateko, Monterron jauregira gerturatzea nahikoa izango da; hala ere, telefono bitartez ere egin daiteke matrikulazioa: 943 77 05 40. Izena emateko, informazioa eskuratzeko edota harremanetan jartzeko, Arrasate Musikalen bulegoaren ordutegia izan behar da kontuan. Ordutegia hau da: astelehenetik ostegunera 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 20:00etara eta ostiraletan, 17:00etatik 19:00etara.



MAIATZAK 12, OSTIRALA (Jubilatuaren Eguna)

10:00 Kanpai errepika eta suziri jaurtiketa.
10:15 Haurrentzako kirol-jokoak eskoletan.
11:30 Umeen danborrada (Arizmendik antolatuta).
17:00 Spinning 'master class'-a (kiroldegian).
17:30 Txokolate eta bollikau banaketa eta tailerrak haurrentzat.
18:30 Gazteentzako jolasak gazte txokoan.
19:00 Ikurrina igotzea. Buruhandiak eta gaiteroak. Alkatetzatik gozokiak botatzea.
19:30 Jubilatuentzako jai-afaria.
22:30 Bolo txapelketa bolatokiak.
23:00 Disko Festa; Amaia DJ. San Antolin plazan.
23:00 Sei Pistols taldearekin kantu afaria.

MAIATZAK 13, LARUNBATA (Kuadrillen Eguna)

10:00 Eguzkia eta eguraldi ona.

10:00 Tennis, squash eta padel finalak.

11:00-13:00 Gazteentzako jolasak gazte txokoan.

11:30-13:30 Puzgarriak San Antolin eskolan.

12:00 Umeendako Asto Jaia eta herri txikitea.

13:30 Urrezko Astokiloak eman eta jartzea.

14:00 Aurten ere ez da egingo manifestazio ofizialik, edo bai.

15:00 Herri bazkaria San Isidro eliza ondoan.

Bazkalostean, motorren topaketa.

16:00 Gazteentzako jolasak, gazte txokoan.

17:00 Herri kalejira.

17:00-20:00 Puzgarriak San Antolinen.

18:00 San Isidro sokatira sari nagusia.

19:00 Arrasate Musikaleko Big Band-en kontzertua (Santa Teresan).

19:30 Buruhandiak eta gaiteroak.

20:00-21:30 Trikidantz.

23:00 Trikidantz.

23:00 Berbena San Isidro elizan, Kaixo taldearekin.

Gauerdian: hainbat moda-ikuskizun auzoko pertsonaia xelebreekin.

MAIATZAK 14, IGANDEA (Gaixoa ni)

10:00 Eguzkia eta eguraldi ona.

11:00-13:00 Puzgarriak San Antolinen.

11:30-14:00 Gimnasia erritmiko erakustaldia.

12:30 Txikitea, Elutxa txarangarekin.

17:30 Zementxoak San Antolinen.

18:30 Kalejira, Elutxa txarangak alaituta.

22:30 Azken traka, suzko errubarak...

MAIATZAK 15, ASTELEHENA (San Isidro eguna)

10:30 Prozesioa Santa Teresatik San Isidorraino.

11:00 Meza nagusia San Isidron. Ostean, luntxa.

ONDO PASATU JAIK!

ARIGARA iturgintza • GOI SOLUTIONS • EGUREN arrandegia
IMANOL BIETEK iturgintza eta energia berriztagarriak • ZIORLA taberna
ILUNA taberna • IOSU taberna • ESTRELLA taberna • MENETA taberna
TXINATO taberna • MUSAKOLA estankoa • ZIORLA fruta denda
BEBERLY taberna • JEY JULIWER taberna



Neska-mutikoak animaliekin jolasean iaz egindako ospakizunean. IMANOL BELOKI

Erromeria giroa izango da domekan Otala Zelain

Jai giroa sortuko dute herritarrek Aozaratza auzoko zelaian, maiatzaren 14an, Kultura Sailak gertatutako ekintzen bueltan; animaliekin jolasak izango dituzte umeek, dantzan egiteko trikitilariak eta disko festa eta paella txapelketa bazkalorduan

Mirari Altube ARETXABALETA

Urtero legez, lasterketek eman- go diote hasiera, domekan, Otala Zelaiko egunari. Lehenengo, haurrek jardungo dute zelai inguruan, eta ondoren, Joseba Larrinaga *Mardo* gogoan izanik, helduen txanda izango da urte- giaren bueltan.

Jolasak, musika eta dantzak

Lasterkariei sariak banatu on- doren ekingo diete Aozaratza auzoan dagoen zelaiko ospaki- zunei. Animaliekin jolasak izan- go dituzte neska-mutikoek, eta eguerdi partean, paella egiten hasiko dira txapelketan izena emandakoak. Egonaldia Leizarra musika eskolako trikitilari- ek girotuko dute sagardo kupelaren bueltan, eta 14:00 aldera bazkal- tzeiko mahaiak eta aulkiak ba- natuko dituzte antolatzaileek; bazkaria norberak eroango du, urtero legez.

Bazkalostea girotze- ko euskal disko festa izango da, beste behin, doinu dantzagarriekin, eta 18:00

inguruan Leizarra musika es- kolako dantzari- ek saioa eskai- niko dute. Eguraldi txarra eginez gero erromeria Iturri- gorri pilo- talekuan egingo dela iragarri dute antolatzaileek.

Paella txapelketa

Paellarako osagaiak antolatzaileek eramango dituzte: arroza, olio- a, tipula, gatza, koloratzaile- a eta berakatz- a. Izena emateko, Arkupera jo (5 euro). Euria eginez gero, bertan behera geratuko da txapelketa eta dirua itzuli egingo dute.

Sariak:

- **Lehenengoa** 100 euro.
- **Bigarrena** 70 euro.
- **Hirugarrena** 50 euro.

Egitaraua

- **10:00** Haurrendako lasterketak.
- **11:00** Joseba *Mardo*-ren oroimenezko 39. herri krosa.
- **12:30** Otala Zelai krosaren sari banaketa ekitaldia.
- **13:00** Animaliekin jolasak.
- **13:00** Paella txapelketaren hasiera.
- **13:30** Sagardo festa, Leizarra musika eskolako trikitilari- ek girotuta.
- **14:30** Herri bazkaria, norberak eroanda.
- **16:00** Euskal disko festa.
- **18:00** Dantza saioa Leizarra musika eskolako dantza taldearen eskutik.
- **19:00** Euskal disko festa.



Kiroldegiaren aurrealdea aldamioekin. M.A.

Astehenean hasiko dituzte Ibarra kiroldegiko lanak

lazko soberakinetik 442.808 euro lan horiek ordaintzeko erabiltzea onartu du udalbatzak aho batez

M.A. ARETXABALETA

Maiatzaren 15ean, astehena, hasiko dira Ibarra kiroldegia konpontzen, ondo bidean. Au- rrealdeko lanekin hasiko dira lehenengo, eta, horren ostean, gainerakoekin segituko dute.

Haizeak txikitutako kristal xaf- lak ordezkatzeko dituzte 60 milimetroko *sandwich* panele- kin, eta 23 zentimetroko tarte- arekin marra bertikal bat izan- go dute, aurretik zeuden kris- talen zabalera berekoa. Aurreal- dearen koloreak zurixka izaten jarraituko du; horregatik, he- rritarrek aldaketa handirik ez dutela igarriko uste dute udal ordezkari- ek. Behin fatxada kon- ponduta, sabai- leihoak aldatu- ko dituzte, horien beirak ere apurtu egin zirelako haizearen eraginez. Eta solariumeko be- larra ere aldatu beharrean izan- go dira, kristal txikiz josita dagoelako orain.

Soberakinetik 442.808 euro

Lanak 423.000 euroren bueltan ibiliko direla aurreikusitako dute, eta horiek ordaintzeko lazko soberakina erabiliko du Udalak. Izan ere, eraikinaren aseguru- a ez zegoen behar bezala eginda.

Joan den astean, maiatzaren 4an, egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, aho batez, soberakina erabiltzea horretarako. Soberakinen ko- puru osoa 743.261 euro da, eta hortik zati handiena kiroldegian egingo diren lanak ordaintzeko erabiliko dute: 442.808 euro, hain zuzen ere. Gainerako zatia bes- te aurreikuspen batzuetarako gorde dute.

Lanon gastua Udalak bere gain hartu arren orain, eraikitze- ko garaian akatsak egon zirela uste dute udal ordezkari- ek eta eran- tzukizunak eskatzeko asmoa dute. Kontu horrek, baina, luze joko duelakoan daude.

Aretxabaletako Lanbide Eskola ezagutzeko aukera

Ate irekiak egingo dituzte Are- txabaletako Lanbide Eskolan; Markolen, datorren eguaztenean, maiatzaren 17an, 18:30ean.

Goi eta erdi mailetako graduak eskaintzen dituzte ALEn: "Lan- bide heziketan zure behar eta zaletasunetara egokitutako gra- duak aurkituko dituzu, garapen profesional zein pertsonalean lagunduko dizutenak", jakina-

razi dute hango ordezkari- ek. Hala, "ikasgai eta baliabide sor- ta handia dute gazteen eskura", eta horren guztiaren berri eman- go diete gerturatzen direnei datorren eguaztenean: eskaintza akademikoa aurkeztu, instala- zioak erakutsi eta zerbitzuak zein proiektuak partekatu. Ha- lako aukeraketa egiteko orduan sortzen diren zalantzak eta kez- kak ere argituko dizkiete: "Ika- si, lan egin eta, batez ere, egiten duzunarekin gozatzea nahi dugu", diote.

"Sufrimendutik lortzen dugu gure poztasuna"

XUBANE GARAI ETA GARAZI ESTEBEZ TXIRRINDULARIAK

Kadete mailako ziklistak dira biak, aretxabaletarrak eta lagunak. "Sufrimendu handiko" kirola izan arren, oso gustura dihardute eta denboraldi polita egiten dabilta

M.Bikuña/M.Altube ARETXABALETA

Gipuzkoa Ogi Berri taldeko kidea da Garazi Estebez eta Dorletako Ama txirrindulari taldekoa Xubane Garai, biak kadeteak. **Zer moduz doa denboraldia?**

Xubane Garai: Bigarren urtea da ziklismoan dihardudala eta oso gustura nabil. Aldaketa handia izan da infantil mailatik kadeteetara, eta ondo sufrituta nabil, baina gustura.

Bi urte bakarrik daramatzazu!

X.G.: Aurretik sofán botata egotekoa nintzen ni. Etxean, baina, beti bizikletak ikusi izan ditut eta halaxe hasi nintzen.

Esaten dute bizikletak harrapatu egiten duela bat...

X.G.: Egia da; bizikletaren munduan sartzen dena nekez iriten da hortik. Lehenengo, norberak jardun; gero, seme-alabei erakutsi... beti hortxe.

Baina ondo sufrituta, esan duzu...

X.G.: Bai, hala da. Baina sufrimendu horretatik lortzen dugu gure poztasuna.

Eta mutilekin ere lehiatzen zara!

X.G.: Aukeraketa egitea tokatu zitzaizkidan mutilekin jarraitzea hautatu nuen, nahiz eta inguruko lasterketan neskekin ere aritzen naizen, nire maila hori delako. Mutilekin 20 kilometro gehiago egiten dituzte, 60 inguru guztira... Ahal dena egiten dut eta aurrera; horrela ere ikasi egiten da eta!

Ezberdintasun handia dago?

X.G.: Bai; tropela handiagoa izaten da, lasterkari gehiago dago. Erritmoa ere ezberdina izaten da eta ibilbideak gogorragoak dira; exijentzia maila handiagoa dago, orokorrean.

Dorletako Ama taldeko ziklista zara; taldean entrenatzen zara?

X.G.: Bai; gure kasuan, elkarrekin entrenatzeko aukera dugu eta hori beti dator ondo albokoa hobeto ezagutzeko. Gasteiz aldera egiten dugu, Landara; eta eskualdean ere ibiltzen gara: Bergara, Oñati, Aramaio...



Garai eta Estebez entrenamendua hasteko gertu Aramaion. MIREIA BIKUÑA

"TALDEKO GIROA GARRANTZITSUA DA; AURKARIAK GARA LASTERKETAN BAINA GERO LAGUNAK"

Estebez, zure izena sarri entzun dugu aurretik...

Garazi Estebez: Denboraldia ondo doa, espero baino hobeto. Orain dela lau edo bost urte hasi nintzen ziklismoan, jolasa balitz bezala, probatzearen, eta poliki-poliki helburuak jartzen joan naiz. Aurtengo erronka zen tropelean ibiltzen ikastea, eta, egia esan, oso ondo doa. Lider nago Euskaldun Txapelketan eta Espainiakoan bigarrena naiz.

Infantiletatik kadete mailarako salto handia da?

G.E.: Bai, oso handia. Izan ere, 10 kilometrotik 30 eta 40 kilometro ibiltzera pasatzen da, eta, mutilekin ibiliz gero, 60 kilometrotik gorako ibilbidetara; eta hor gabilta jo eta su!

Eta entrenamenduetan ere alde egongo da, ezta?

G.E.: Bai, horixe. Lehen, apenas entrenatzen nintzen, eta beste

kirol batzuk ere egiten nituen; saskibaloia Ointxerekin, esaterako. Orain, entrenatzaileak zehaztutako saioak ditut, baina oso gustura nabil.

Bakarka lehiatzen zara, baina entrenatu lagunekin?

G.E.: Bai, taldeko giroa oso garrantzitsua delako. Lasterketa garaian aurkariak izan arren, hori bukatutakoan lagunak izatea ere handia da. Horregatik, Gipuzkoa Ogi Berri taldearen egoitza Tolosan egon arren, aldiro elkartzeko gara, hobeto eza gutzeko eta taldea indartzeko.

Zer nahiago: pista ala errepidea?

G.E.: Biak, biak; eta ziklo-krosa ere gustuko dut.

Azken asteotan istripu asko izan dituzte ziklistek; horrek barruak astintzen ditu?

G.E.: Bai; beldurra eragiten du. Gu saiatzen gara beldur hori ez erakusten, baina jendeak ere behin eta berriz esaten digu kontuz ibiltzeko errepidean... Metro eta erdi hori, oraindik, askorendako mundu bat da, eta errespetatu barik jarraitzen dute. Gu saiatzen gara autoei samurtasunak ematen: ilaran jarrita, noiz pasatu esanda... Baina, batzuetan, alferrik da.



Erretiratuak iazko Dantza Astean, Herriko Plazan. MIRARI ALTUBE

Gorputzak astintzera bultzatuko ditu herritarrak Dantza Asteak

Maiatzaren 20tik 28ra bitartean egingo du Jaiki elkarteak eta ikastaro eta ikuskizun mordo egongo da

M.A. ARETXABALETA

Aretxabaletarrak dantzatzera animatuko ditu Jaiki elkarteak aurretik ere maiatzaren 20tik 28ra egingo duen Dantza Astearekin. Zortzi egunetan izango dira ekitaldiak, baina egun handia maiatzaren 20a da.

Goiz partean ikastaroak izango dira; hip-hop eta Kontakids kiroldegian; dantza sortzailea mojetan; eta swinga kuartelean. Eta ondoren ikuskizunak: dantza afrikarrak (13:30, Durana kalean); *Jam-Nam* (14:30, plazan); eta tximeleta oihal akrobaziak, flamenkoa, swinga eta hip-hop (18:30, Durana kalea).

Hilaren 21ean, oster, klake ikastaroa egingo dute goizean (10:00, kuartelean) eta ondoren erakustaldia (13:30, Duran).

Ikastaroetan jarduteko aurrez izena eman beharra dago; hona bideak: swing eta klake saioetarako: 688 86 21 87; eta gaine-

rakoendako: 688 81 96 65. Argibide gehiago gura dituenak Jaiki elkartera idatz dezake jai-kielkarta@yahoo.es.

Erretiratuak eta sahararrak

Hilaren 22an, astelehena, jarraipena izango dute ekitaldiek: Kontakids ekimenaren ate irekiak eta emakume sahararren dantzak. Martitzenean saloiko dantzen erakustaldia egingo dute erretiratuek eta umeendako jolasak landuko dituzte kuartelean; *Habrà que ponerse cachas* ikuskizuna ere egongo da Durana kalean, baita flamenko fusioa ezagutzeko aukera ere.

Eguaztenean euskal dantzak erakutsiko dituzte erretiratuek; egunean, oihal akrobaziak izango dira eta *Flash Dance* tertulia; egubakoitzean, Jaiki elkartearen ikuskizuna eta Rueda Cubana eta domekan, Haur Dantzarien Egunarekin bukatuko dute astea.

Odol ateratzeak egingo dituzte hiru astelehenetan

Arabako Odol Bankuko kideak hurrengo hiru astelehenetan etorriko dira odola ateratzera, maiatzaren 15ean, 22an eta 29an, hain zuzen ere. Durana kalean, Herriko Plaza barrenean, egongo da autobusa 16:45 eta 20:00ak bitartean hiru egunotan. 18 eta 70 urte arteko edozein herritarrek eman dezake, eta bertan osasun azterketa egiten dute.

**Mobiliario
ARENZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Enpresa-ikasketak egin dituen Miren Aranzabal, Toronton (Kanada). MIREN ARANZABAL

Bosgarren Ostegun Bidaiariak hasteko gertu

Maiatzaren 18an hasi eta ekainaren 8ra bitartean, bidaiatzeko modu ezberdinen berri emango dute herriko lau tabernatan. Mondragon Unibertsitateko ikasleak izango dira kontalariak eta, ikasketa garaian, han eta hemen bizitakoen berri emango dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Bidaietan bizitako esperientziak herritarrek partekatzeke sortutako egitasmoa bosgarrenez dator maiatzean, Udalaren eskutik eta Arteman Komunikazioaren laguntzarekin. Nobedareekin dator, gainera, beste-lako bidaia esperientzien bila joan direlako aurten, ikasleek

atzerrian bizitakoen bila, hain zuzen ere.

Hiru elorriak eta gasteiztar bat

"Askok dira atzerrira jotzen dutenak ikastera, trukeen bidez zein praktikak egitera. Bat-batean herrialde eta kultura desberdin batera ohitu behar izaten dute eta esperientzia bitxiak bizi iza-

ten dituzte. Halakoak dira edizio honetako laurak", jakinarazi dute antolatzaileek. Mondragon Unibertsitateko ikasleak dira, hiru elorriarrak: Guatemalan indigenekin egon den Elene Aizpuru; ikasketak Kanadan egin dituen Miren Aranzabal; eta Hezkuntza bereziko praktikak egiten Txilen egon den Irati Bor-

ge. Laugarrena, ostera, gasteiztarra, Mexikoko kulturarekin "maiteminduta" itzuli den Anne Baskaran.

Irabazleak 100 euro

Lau ikasleek Aretxabaletako taberna banatan emango dute bidaiaren berri, argazkiek lagun eginda. Eguenetan izango dira

emanaldiak, maiatzaren 18an hasita, eta bakoitza bukatutakoan ikusleek botoa eman ahal izango dute kontakizuna baloratzeko: "Edonork egin ditzakeen bidaietarako ideia iturri izateari eman nahi diogu garrantzia antolatzaileok", diote. Publikoak gustuko duenak 100 euro jasoko ditu.

Lau kontalariak

Guatemalako indigenekin

Elene Aizpuru Huheziko ikasleak hiru hilabete egin zituen Guatemalan. Indigena familia batekin bizi izan zen eta eskola txiki batean egin zituen irakasle praktikak. Herrixkak, oihanak, sumendiak eta kulturak ere ezagutu zituen.

Maiatzaren 18a, 21:30, Paulaner taberna

Ikasketak Kanadan

Miren Aranzabalek Enpresa-ikasketen azken lau hilabeteak Toronton (Kanada) egin zituen. Torontoz gain, Montreal, Ottawa eta New York bisitatu zituen, baita bizipen ahaztezinak bizi ere; elurtea, esaterako.

Maiatzaren 25a, 21:30, Express taberna

Praktikak Txilen


Irati Borgek Hezkuntza Berezia ikasten dihardu Huhezin, eta down sindromedunekin lan egiten duen elkarte batean egin zituen praktikak. Santiago hiriburuan eta Txile hegoaldean bizi izan zen eta herrialdea ezagutzeko aukera izan zuen.

Ekainaren 1a, 21:30, Haizea taberna

Mexikoko kultura

Anne Baskaranek Ikus-entzunezko ikasketen hirugarren maila egin zuen Mexikon eta bizipen asko ekarri zituen handik: hildakoen eguna Michoacaneko hilerrian, Mexikoko golkoan kayakean, Ozeano Barea ezagutu...

Ekainaren 8a, 21:30, Dagda taberna



MIRARI ALTUBE

Uribesalgoren liburuxka salgai

Isidoro Uribesalgo Gurutzeta (1865-1915) eskultorearen gainean Aitor Antxia Leturiak, Kepa anaiak eta Amaia Murgiondok egindako liburuxka salgai dago Arkupen –hiru eurotan–. Errotabarrin jaiotako artista balioan jarri gura izan dute: "Eskultore handia izan zen, haren obrak xehetasun guztiarekin eginda daude", zioen Antxiak aurkezpen ekitaldian.

Euskeriaren Eguna egingo du Loramendik maiatzaren 20an

Bazkarirako txartelak salgai daude Gurea eta Urbaltz tabernetan eta Loramendiren bulegoan hilaren 17a arte

M.A. ARETXABALETA

Euskarari beste bultzadaxo bat eman eta haren bueltan jai giroan elkartzeko helburuarekin egingo du Loramendi elkarteak Euskeriaren Eguna maiatzaren 20an, zapatua. Herri bazkaria izango da, azken urteotan legez, eta txartelak dagoeneko salgai dauzkate Loramendin bertan eta Gurea eta Urbaltz tabernetan. Bazkideek eta ikasleek 16 eurotan dituzte eta gainerakoek, 19 eurotan; erosteko azken eguna maiatzaren 17a da. Hona hemen bazkari horretarako iraga-

rri duten menua: entsalada, oilasko gisatua, pastela, kafea eta kopa.

Mingainluze lehiaketa

Bazkal aurretik Mingainluze lehiaketa egingo dute plazan. Hiru edo lau laguneko taldeak osatu eta hainbat proba gauditu beharko dituzte: galderak, hieroglifikoak... Edonork parte hartu ahal izango du eta horretarako izena aurrez eman beharra dago udaletxe zaharrean. Talde irabazleak bertako produktua sorta jasoko du.

'Konpost eroak' gaur Zirika Zirkusekin eta ipuin kontalaria bihar

Zirika Zirkus talde iruindarrak *Konpost eroak* antzezlanak eka-rriko du gaur, egubakoitza, 19:00etan, Arkupe kultura etxera –sarrera, debalde–. Zirkua, antzerkia, musika eta umorea uztartuta, birziklapenaren gainean jardungo dute hiru aktoreek oholta gainean, eta hondakinak bereizteak duen garrantziaren berri emango diete elkartutako umeei zein helduei.

Bihar, zapatua, ostera, Lur Usabiagak, eskarmentu handiko kontalariak, ipuinak kontatuko dizkie 4 urtetik gorako neska-mutikoei. *Ametsen kutxa* izeneko ekitaldia 11:30ean izango da, Udal Liburutegian –sarrera, debalde–.

Itxi egingo dute Santa Ana auzoko aparkalekua

Santa Anako aparkalekua jabego pribatukoa da, eta ez dute akordiorik egin Udalarekin, alokairuari dagokionez. Irtenbide bat bilatze aldera, aparkalekuak egiten ari dira herriko hainbat auzunetan. Hala ere, gune berri bat egitea ere planteatu dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Apirilaren 27an egindako ezohiko osoko bilkuran hainbat gai tratatu zituzten, eta horietako bat kredituak aldatzeko 4. espediente, kreditu gehikuntza onartzea izan zen. Horren harira, Rafa Bernal Irabazi alderdiko batzordeburuak Santa Ana aparkalekuarekin zer gertatuko den galdetu zuen.

Negoiazioetan ari zirela adierazi zuen Joserra Zubizarreta alkateak, eta gaineratu zuen aparkalekua dagoen lur eremuak jabea den enpresa pribatuarekin akordio batera ez badira heltzen, aparkalekua itxi egin beharko dela. Hala, Josu Ezkurdia Hirigintza eta Mugikortasuneko batzordeburuaren esanetan: "Ez gara akordio batera iritsi. Orain arte, 6.000 euro inguruko alokairua ordaintzen genuen urtean, aparkalekuagatik. Iaz, diru kopurua handitzea planteatu ziguten, eta guk aurrekontuetan bikoiztea adostu genuen. Hala ere, ez zeudela konforme adierazi ziguten, eta aparkalekua ixteko eskatu digute. Izan ere, negoziaketan merkatuko prezioa 40.000 euro ingurukoa dela adierazi ziguten eurek, baina diru gehiegi dela iruditu zitzaigun eta ez dugu akordiorik lortu".

Irtenbidea, bi fasetan

Santa Anako aparkalekuak 79 aparkaleku ditu, eta, horiek kenduko dituztenez, bi fase planteatu ditu Udalak irtenbidea bilatzeko.

Lehenengo faseari dagokionez, herriko txoko ezberdinetan aparkalekuak egiten dihardute azken egunotan, herri osoan zehar, auzo ezberdinetan banatuta. "40-50 aparkaleku berri egin nahi ditugu herrian zehar sakabanatuta, eta hasi gara dagoeneko: Arbiñosten, Aranburuzabalako bidegurutzean, Olazarren, Intxaurtxuetan eta Dorletan ari gara egiten".



Santa Ana auzoko aparkalekua. IMANOL BELOKI

Gune berria egiteko aukerak

Bigarren faseari dagokionez, 30-40 plaza dituen gunek bat eza-ri nahi da, eta, horretarako, bi proposamen aztertzen ari da Udala; Jose Arana zaharren egoitzako ortuaren ondoan, batetik,

eta unibertsitateko Dorleta eraikinaren belardiari zati bat kenduta, bestetik. "Bi proposamen posible horiek aztertzen ari gara eta lurjabeekin egon beharko dugu ea egitea posible den jakiteko", adierazi du Ezkurdiak.



Aparkaleku berriak

Santa Anako aparkalekua itxi egingo dutenez, herriko hainbat auzotan aparkalekuak egiten ari dira egunotan. 40-50 inguru egin nahi dituzte honako leku hauetan: Intxaurtxuetan, Dorletan, Aranburuzabalako bidegurutzean eta Arbiñosten.

Martxan da San Pedro jaietarako esaldi lehiaketa

Maiatzaren 21a izango da hiru pertsonatik gorako taldekako esaldi lehiaketan parte hartzeko azken eguna

I.B ESKORIATZA

San Pedro jaietako XVIII. esaldi lehiaketa martxan da eta parte hartu nahi duenak aukera izango du maiatzaren 21era arte. Irudimen handikoak, errimadunak, euskarazkoak... buruari bueltak emateko lehiaketa hasi da, horrenbestez.

Jaietarako pegatinak ateratzeko esaldi lehiaketak aurten ere ez du hutsik egingo, eta 13 urtetik gorako hiru pertsona baino gehiagoko taldeentzat da aurten ere.

Neurritz kanpokoak baztertu

Talde bakoitzak gutxienez esaldi bat aurkeztu beharko du eta gehienez, gura beste. Bestalde, ez dira onartuko neurritz kanpoko kontsumoa edo jarrera sexistak bultzatzen dituzten esaldiak. Talde bakoitzak gaitzitzen bat bakarrik erabil dezake

ke eta pertsona batek talde batean bakarrik har dezake parte.

Parte hartzeko egin beharrekoa

Kultura etxean, bibliotekan eta kiroldegian jarriko diren gutunontzietan entregatu beharko dira esaldiak; gutun-azalean, taldearen izena ipini behar da, eta, barruan, beste gutun-azal itxi batean, datuen txartela sartu behar da. Bestalde, euskara@eskoriatza.eus kontura ere bidal daitezke esaldiak.

Udaleko Kultura batzordea izango da esaldi lehiaketaren epaimahaia. Jasotako esaldi guztien artean lehenengo aukeraketa bat egingo da, eta ekainaren 7an iragarriko da talde irabazlearen izena, eskoriatza.eus webgunean. Irabazten duen esaldiarekin, San Pedro jaietan kartel bat jarriko dute Herriko Plazan.

Iñaki Ruiz de Ego eskultoreak hitzaldia eskainiko du

Arte bakarra bi hemisferioentzat erakusketa zabaldu berri, martitzenean, maiatzaren 16an, 18:00etan, *Una dimensión creativa* hitzaldia eskainiko du Iñaki Ruiz de Ego eskultoreak Ibarraundin.

Artistaren ibilbideaz gain, beste hainbat artista ezagunekin duen eta izan duen erlazioa konstatuko du. Arte geometrikoan

zentratuta, bere azken lanen inguruko azalpenak emango ditu, besteak beste. 70eko hamarkadan pintura espresionistarekin izandako hasiera konstatu, eta, ondoren, eskulturaz interesatuta, egindako jauzia azalduko du.

Hala ere, hitzaldiaz gain, erakusketa maiatzaren 25era arte egongo da zabalik Ibarraundi museoan. 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Bertan, bere bildumako hainbat pieza ikusi ahal izango dira.

Gaur da haurren danborradan izena emateko azken eguna

Ekainaren 30ean, San Pedro jaien bezperan, izango dira danborradak Eskoriatzan, eta haurrenean irten nahi duenak gaur izango du azken eguna izena emateko.

Horretarako, izen-emate orria bete eta kultura etxean, Luis Ezeizan, Jose Aranan eta Almenen dauden gutunontzietan sartu behar da. 4 urtetik aurre-

rako haurrak irtengo dira danborradan –txikienak, 2013an jaiotakoak–, eta entseguak astelehenetan eta eguaztenetan izango dira, 18:00etan, Joseba Iñurrategi pilotalekuan. Lehenengo ekainaren 5ean izango da, eta derrigorrezkoa da entsegu guztietara denak joatea; batez ere, egunari begira hobeto antolatuta izateko, eta, justifikatutako kasuetan izan ezik, ezingo da nagusirik egon pilotalekuan entseguek dirauten bitartean.

"Amets onenean ere ez nuke imajinatuko halako agurrik"

JONATHAN VALOR ARETO FUTBOL JOKALARIA

Eskoriatza areto futbol lehen taldeko kapitainak azken partidua jokatu zuen zapatuan. Hamabost urte baino gehiagoren ostean, agur esan dio taldeari

Imanol Beloki ESKORIATZA

Merezitako agurra jaso zuen aurreko zapatuan Eskoriatzako areto futbol taldeko Jonathan Valorrek, ligako azken partiduan. Kapitaina agurtzeko, klubetik pasa diren jokalariei beterranoak gonbidatu zituzten, etxeak ere bertan izan ziren, eta lagun asko eta asko. Sekulako sorpresa hartu zuen, emozio guztiak askatu zituen.

Nola jaso zenuen agurra?

Nire bizitzako egunik politenetakoa izan zen. Hala ere, triste samar joan nintzen partidura, nire azkena zela jakinik. Bero-keta lanak egin, aldageletara sartu, eta irten aurretik Antonio Tena entrenatzailea nirekin bakarrik geratu zen, partidua disfrutatzeke esanez... kantxara irten, eta sekulako sorpresa jaso

nuen. Ibilbide osoan izan ditudan jokalariei asko, familia, lagunak, emaztea, taldekideak... izugarria izan zen. Pasiloa egin ostean, lore sorta, talde osoak sinatutako baloi bat eta plaka bat jaso nituen. Izugarria izan zen.

Emozio handien, zerk?

Publikoren txaloek, Eskoriatzako ereserkia jarri izanak... dena izan zen ederra. Oso maitatua sentitu naiz, kiroldegian zeudenak nigitik egotea... oso polita da hori sentitzea. Malkoak ere horregatik izan ziren, jende hori guztiori nigitik zegoelako.

Zergatik utzi duzu?

1999an bigarren taldearekin hasi nintzen eta 2001 ezkerreko talde nagusiarekin ibili naiz. Orain, aita izan behar naiz eta etapa berri bati ekin behar diot. Momentu on batean utzi nahi

nuen, eta, pena eman arren, elkarteari lotuta jarraitzea da nire asmoa.

Hasi zinenetik, zer aldatu da Eskoriatzako kirol elkartean?

Ez dakit askorik aldatu den, baina gauza bat azpimarratu nahiko nuke: gazteei, Manuel Muñozek transmititzen zizkigun balio berak transmititzen saiatu naiz, eta horiek geratzea nahiko nuke.

Agurreko anekdotaren bat?

Alfredo Futrek areto futbola utzi zuenean besokoa pasa zidan, eta agurrean, partidua hasi aurretik, besoko bat ekarri eta nirearen gainean jarri zidan, hala, biek jokatzeko.

Azken mezurik?

Agurrean egon ziren guztiei eskerrak ematea, eta jokatzeko aguantatu behar izan nautenei ere esker beroa, mila esker denoi!



Jonathan Valor, azken partiduan ateratako argazkia. IMANOL SORIANO



Valor, Narciso Pavorekin besarkatuta emozio momentu gorenean. I.S.



FRUTAN ETA TXARKUTERIAN ESPEZIALISTA

San Juan kalea 12, behea Tel. 652 77 53 58



Valorren agurrean batu ziren lagun, taldekide eta familiarak talde argazkian. I.S.

Motxila 21 izango da eguneko ekitaldi nagusia

Atxorrotx Kultura Elkartearen egunak hamabi urte beteko ditu, eta musikaz beteta izango da egun osoko jaia. Errekan Gora ekimenaren hamargarren urteurrena dela aprobetxatuz, Motxila 21 taldea izango da Herriko Plazan, 20:00etan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Urtean zehar egindako lana kalerara atera eta, era berean, bazkideei, emandako laguntza eskertzeko helburuarekin, Atxorrotx Kultura Elkartearen eguna ospatuko da zapatuan. Urteroko ekintzak izango dira, eta, nola ez, hamabigarren edizio honetan ere ez dira musika emaldiak faltako.

Urtero legez, gaurko kontzertuarekin emango diote hasiera Atxorrotx egunari, motorrak berotze aldera. Hala, Eñaut Zubizarreta musikaria Trigger proiektu berriarekin izango da Inkernu tabernan, 23:00etan. Txeloa, pedalak eta elektrifikazioa erabiliz, punk kantutak eskainiko ditu.

Zapatuan, berriz, 11:00etan umeendako puzgarriak izango dira plazan, txistulariekin kalejira, 12:00etan taloak eta sagardoa, paella jana 14:30ean Hotela tabernan, 18:30ean buruhandiak eta ondoren, 20:00etan,



El Drogas, Motxila 21 taldearekin. E.V.

Errekan Gora ekimenaren hamargarren urteurrenaren harira, Motxila 21 taldearen emaldia Herriko Plazan. Down sindromea duten hamabi gaztek osatzen dute taldea, eta laguntzaile dabilen beste bederatzi

musikari ere oholtzan izango dira. "Jende dezente etorriko delakoan gaude, talde handia baita. Hala ere, eguraldi txarra egiten badu, badugu beste plan bat. Olaetako plazan joko dute; orain arte bertan ez dugu emaldirik egin, eta leku aproposa dela uste dugu", dio Juan Luis Zubizarretak, elkartearen lehendakariak. Egunari amaiera emateko, berriz, DJ Parrucho izango da Inkernu tabernan, 22:30ean.

Elkartea momentu onean

105 bazkide ditu gaur egun Atxorrotx Kultura Elkartea. "Beti izan dugu asmoa bazkide kopurua handitzeko, eta, ekonomikoki momentu onean gauden arren, potentziaztea da gure asmoa. Egiten dugun lana herrira zabaldu da, herritarren onarpenarekin, gainera, uste dut nik, eta lanean jarraitzea da gure asmoa", adierazi du Juan Luis Zubizarretak.



I.B

Atxorrotx jendez beteta

Domekan, maiatzaren 7an, Atxorrotxeko Eguna izan zen, eta jendez beteta izan zen goiz osoan Atxorrotx mendia. Eguraldia lagun, han jarritako tabernan ur eta garagardo barik geratu ziren, gainera.

Arratsaldean, berriz, giro aparta izan zen Imanol eta Unai trikitilariak egindako erromerian. Jende asko irten zen plazara dantza egitera.

LEINTZ GATZAGA 21



Astelehenean, konposta galbahetu eta ontziratut zuten. IMANOL BELOKI

Ingurumen Astearen barruan ekintza ugari prestatu dituzte

Adibidez, ekarpen-gunetik eta ortutik hainbat konpost-zaku atera dituzte erabiltzaileen artean banatzeko

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Ingurumen Astearen barruan ekintzetan murgilduta daude Leintz Gatzagako herritarrak. Asteari ekiteko, astelehenean, ekarpen-gunean batu ziren hainbat herritar, konposta galbahetu eta ontziratutako. "Ekarpen-gunean amaitzen da konpost prozesua, eta gero, ortura ateratzen dugu, azken fasea, sikatztea, egiteko. Hala, fruta-kaxetan galbahetu, filtratu egiten dugu konposta, eta erabiltzari geratzen da. Hala ere, ez dago zertan filtratu, erabiltzaileen esku geratzen da hori, zertarako erabili nahi duten arabera...", adierazi du Roberto Otazu zinegotziak.

Eguenean, berriz, osoko bilkuren aretoan batu ziren, eta han, *Gure ereduaz aztergai* hitzaldia izan zen, Gatzagako ereduaz hitz egin, herritarren kexa eta iradokizunak jaso eta balorazioa egiteko, besteak beste. Gero, pintxo dastatzearekin eman zioten amaiera ekitaldiari.

Hondakinen karakterizazioa

Gaur, bestalde, 16:00etan batuta, hondakin ezberdinetako edukiontzia ateratu eta hondakinen karakterizazioa nolakoa den aztertuko dute. Proportzioak kalkulatu dituzte, eta konpost nola hobe daitekeen ere aztertuko dute, bide batez.

Zapatuan, aldiz, goizean hasiko dira ekintzak. "Umeei begira, jolasak prestatu ditugu; 11:00etan hasiko dira. Ondoren, Zirika Zirkus taldearen *Konpost eroak* antzezlanak izango da. Amaitzean,

astelehenean galbahetu eta batutako hamar zaku konpostak erabiltzaileen artean banatuko ditugu".

Haurrei helarazteko nahia

Ingurumen Astea bukatzeko, datorren martitzenean, Gatzagako eskolako umeei konposta banatuko zaie, hainbat azalpen emanda. "Aste honetan genuen asmoa eskolara joan eta konpostaren prozesua azaltzeko, baina atzeratu egin dugu. Honen helburua da haurrak konturatztea etxeko hondakinak konpost nola bilakatzen diren... Horren ondoren, konpost pixka bat banatuko dugu haurren artean, etxeko loreontzietan edo nahi duten lekuan erabil dezaten", adierazi du Otazuk.

Kalitatezko konposta

Leintz Gatzagan ateratako datuen arabera, maila oneko konposta egiten dute, eta kalitatezkoa izateko zaindu beharra dagoela azpimarratu du Otazuk: "Kalitatea hobetzeko eta, ahal den heinean, herritarrak gehiago kontzientziazteko antolatutako dugu Ingurumen Astea".

Auzo-konposta 50 familia inguruk egiten dute, ekarpen-gunera hondakinak botata. Horrez gain, herriko hainbat baserrikan autokonposta egiten dute gatzagarrek. Eurak ekarpen-gunera joan barik, baserrian dituzten guneean egiten dute. Hain zuzen, baserrian duten ortuan edo lorategietan ongarri moduan erabiltzeko.



Pasa den urtean egindako Lorabbarri Azokan salerosketa. GOIENA

Asteari amaiera emateko, azoka

Egun hauetan mota guztietako ekintzak izan dira Aramaion, Lorabbarri Astearen baitan, eta antolakuntzako kide Irati Mujika "gustura" azaldu da antolatutako ekintzek orain arte eman dutenarekin; bihar, zapatua, azokak emango dio bukaera asteari

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Bukatzear da lehen sektorea ardatz hartzen duen Lorabbarri Astearen bosgarren edizioa. Pasa den zapatuan garagardo azokarekin eman zitzaion hasiera eta ordutik hona askotariko ekintzak izan dira, astea osoan.

Antolakuntzako kide Irati Mujikak balorazio positiboa egin du asteak eman duenaren gainean. "Garagardo ikastaroan jendea oso gustura egon zen, garagardoa bera egiten, probatzen; domekan belar-meta egiten gogotsu aritu ziren, haur zein guraso, eta astean zehar egin diren ekintzekin ere pozik gauden", azaldu du.

Orain, astea borobiltzea falta da. Hala, Lorabbarri Azoka egingo dute bihar, zapatua, Bizente Goikoetxea plazan, 11:00etatik 14:00etara bitartean. Aramaioko eta Bizkaitik etorritako zenbait

ekoizle izango dira, euren produktuak erakusten eta saltzen. "Egun handiena azoka eguna izango da. Hainbat postu jarriko dituzte plazan, eta, aramaiorrez gain, ekoizle bizkaitar batzuk ere gonbidatu ditugu aurten", adierazi du Mujikak.

Askotariko produktuak

Aramaioko ekoizleei dagokienez, honako postu hauek egongo dira: Unda, Kerixara eta Ibabe, ardi-gaztarekin; Tximitxarte, Iturralde eta Lanbide, barazki ekologikoekin; Euzki, ogi ekologikoekin; eta Atxineta, ahabia

ARAMAIOKO EKOIZLEEZ GAIN, BIZKAIKO ZENBAIT ERE EGONGO DIRA AZOKAN

-zukuarekin eta marmeladarekin. Horrez gain, Arbel kooperatibak loreak eta landareak jarriko ditu eta bidezko merkataritza postu bat ere egongo da. Azkenik, Aramaiur Kontsumo Elkarteak berak ere postu bat jarriko du. Bestalde, Bizkaitik datozen gonbidatuen postuak hauek izango dira: Bizkaigane, esneki ekologikoekin eta Olatxuko marmelada eta barazki poteekin. Haiekin batera, azkenik, Dima-ko gaztagileak egongo dira.

Lehen sektorea oinarri

Asko dira antolakuntzatik transmititu nahi diren balioak: elikadura burujabetza, kontsumo arduratsua, eta abar. Mujikaren esanetan: "Balioan jartzen ari gara balio horiek, eta, urtean astebetetz bada ere, guztion ahotan jartzen saiatzen gara, eza gutzera emateko".

Astean zehar, hainbat ekintza



Etxeandiak garagardoa egiteko ikastaroa eman zuen, zapatuan. LORABARRI

Garagardo ikastaroa Etxeandia Garardauak enpresako Jon Etxeandiak garagardoa egiten erakutsi zien ikastaroan izena eman zuten guztiei. Etxeandiak berak azaldu du "oso ondo" joan zela saioa. Mujikak dio "gustura" aritu zirela bertaratutako guztiak.



Belar-meta egin zuten hurrek eta gurasoek domekan. LORABARRI

Belar-meta Ekintza polita izan zela nabarmendu du Irati Mujikak, antolakuntzako kideak. "Haurrak eta gurasoak izan ziren, batez ere, protagonistak. Dotore geratu dela esan dezakegu, ekintza polita izan zen eta jendea gustatu zitzaion", zehaztu du.



Buztinaren nondik norakoak aztertu zituzten martitzenean. ENEKO AZURMENDI2

Buztin tailerra Sane Fisioterapiako Ane Remediosen eskutik, buztinaren erabilera terapeutikoak ezagutzeko aukera izan zuten hurrek eta erretiratuek. "Naturak ematen digun baliabide bat da buztina, eta ezagutaraztea izan da helburua", dio Remediosek.



Paula Amilburu, Irati Axpe, Sara del Campo, Unai Etxenautia eta Nerea Uriarte aramaioarrak. ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Bertsoa Bizi Gazte Eguna egingo dute, lehen aldiz

Legution izango da gazteen euskarazko sormena eta bertsolaritza uztartzea helburu duen ekimena; bideoklip lehiaketako lanak erakustez gain, Arabako Eskolarteko Bertsolaritza Txapelketako finala jokatu da, eta bi aramaioar izango dira bertan

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Arabako Bertsozale Elkartek aurtun jarri du martxan Bertsoa Bizi Gazte ekimena. Bertsozale Elkarteko kide Julen Zulaikaren esanetan, bi ardatz nagusi ditu ekimenak: batetik, hezkuntza arautuan zentratzen da. "1.000 arabar gazterengana iritsi gara, institutu desberdinetan emandako ikastaroen bitartez. Bertsoa, rapa eta musika erabiliz, gazteen euskarazko sormena bultzatzea izan dugu helburu", azaldu du Zulaikak. Bigarren adarra, aldiz, aisialdira zuzentzen da, eta adar horren baitan bideoklip lehiaketa bat sortu dute.

Lehiaketa horretan, gutxienez hiru eta gehienez zortzi pertsonako taldeek hartu dute parte -14 eta 18 urte bitarteko neska-mutilak- eta, guztira, hamaika lan aurkeztu dira, Zulaikaren esanetan. "Taldea gehiago ere aritu dira lanean, baina, epeak direla eta, ezin izan dute garaiz entregatu. Zertxobait luzatu dugu epea, baina, zoritxarrez, ezin

izan ditugu lan guztiak jaso", adierazi du.

Aurkeztutako lan guztiak ikusgai daude nibanaxarabakoa.eus webgunean eta biharko ekitaldian ere erakutsiko dituzte. Lau sari egongo dira: Internet bitartez herritarrek bozkatu dute, bideoklip onenaren saria, bideoklip originalenaren saria -bi horiek epaile talde batek bihar erabakiko ditu- eta *txalometroaren* saria; hau da, biharko ekitaldian txalo gehien jasotzen dituen bideoklipa.

Eskolarteko finala

Lehiaketaz gain, Arabako Eskolarteko Bertsolaritza Txapelketako finala ere jokatu da bihar Legution. Final horretan bi ara-

AITOR UGARTE ETA MARTIN ABARRATEGI ARAMAIOARREK BIHARKO FINALEAN PARTE HARTUKO DUTE

maioar gazte ariko dira: Aitor Ugarte eta Martin Abarrategi, hain zuzen ere.

Ugarte saio "txukuna" egiteko "ilusioz" azaldu da, eta ondo pasatzera irtengo dela adierazi du. Abarrategi ere gogotsu azaldu da finalaren atarian, nahiz eta onartu duen "urduritasun puntu bat" baduela. Finalean "presio gabe" kantatzea nahi duela aitortu du.

Txikitatik aritu izan dira elkarren ondoan, eta elkarrekin kantatzeak ilusio berezia egiten diela nabarmendu dute biek.

Egun osoko festa

10:00etan izango da aurkezpene eta horren ostean erakutsiko dituzte bideoklipak, 10:30ean. Ondoren, hamaiketako egingo dute. 12:00etan izango da aipatutako bertso finala, eta, hori bukatzean, bazkaria egingo dute. Azkenik, 16:00etan, sari banaketa izango da, eta horrekin amaiera emango zaio Bertsoa Bizi Gazte Egunari.



NIRE USTEZ

SABIN ARANBURU

Kirol nazionala

Lagun batek, behin, pentsatu eta prozesatu gabe nuen funtsezko ideia bat partekatu zuen nirekin. Oso ideia zehatza, zuzena. Jakin gabe hitz egitea Euskal Herriko kirol nazionala da!

Gehiago zehaztu eta zabalduko nuke nik errealitate hau, ordea. Jakin gabe hitz egitea munduko kirol nazionala da! Badakizue, globalizazioaren eraginak lurraren izkina guztien homogeneizazioa dakar eta. Baina ez dut globalizazioari buruzko azterketarik egingo, gaur. Batez ere, arduratzen nauen kontua beste bat da: zergatik hitz egiten dugu jakin gabe? Zer du postmodernismoak jakitearen aurka? Erantzun ugari azaldu ahal izango lukete egungo munduaren eta ez-jakitearen arteko *babes-kontratua* edota elkar laguntza.

Intelligentziari buruzko artikulu zientifikoek ziurtatzen dute duela mende batzuetako gizakiak egungoak baino inteligenteagoak zirela. Indar produktiboak inoiz baino garatuak dauden sistema honetan, beraz, zerbaitek huts egiten du. Ez-inteligente nahi gaituzte batzuek, agian.

Ipuin lehiaketako sari banaketa gaur, antzerkiarekin lagundurik

'Zu eta ni sudurluze bi' izeneko antzerkiak emango dio hasiera gaurko ekitaldiari, 18:00etan, kultura etxean

E.A. ARAMAIO

Zu eta ni sudurluze bi -Zirtaka taldea- izeneko antzerkiarekin hasiko da gaurko emanaldia, 18:00etan, kultura etxean.

Antzerkia bukatzean, Txirritola Euskara elkarteak antolatutako ipuin lehiaketako sari banaketa izango da. Aurtengo edizioan, 62 ipuin aurkeztu dira, guztira, sei mailatan banatuta. Maila bakoitzean, lehenengo eta bigarren saria egongo da. Bihar emango dira aditzera sari horiek zeinentzat izango diren, epaimahai talde batek hala eraba-

kita. Talde hori Irene Txurruakak, Elena Zubizarretak eta Ainhoa Bikuñak osatu dute.

Kanpaina

Horrez gain, Txirritolak irakurzaletasuna bultzatzeko martxan izan duen *Begixekin leiru bihotzaz gozatu* kanpainaren baitan parte hartu dutenen artean ere sariak banatuko dira. Kanpaina hori lehen aldiz jarri du martxan elkarteak, liburutegiaren laguntzarekin, euskaraz irakurtzeko helburuarekin. 40 pertsona inguruk hartu dute parte.

San Martin jaietarako kartel lehiaketa martxan dago

Herriko jaietako egitaraua eta ospakizunak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du Udalak. Bi kategoria egongo dira, helduena eta haurrena, eta edozeinek parte hartu ahal izango du. Lanak udaletxean aurkeztu beharko dira, ekainaren 2a baino lehen. Lehiaketaren oinarriak Goiena.eus webgunean daude ikusgai.

Hemeretzi pertsonak eman dute odola; bik, lehenengo aldiz

Astelehenean egon zen odola emateko autobusa Aramaion, eta, Arabako Odol Emaileen Elkarteak adierazi duenez, hemeretzi pertsonak eman zuten odola; horietatik bik, lehenengoz. Elkarteak azaldu du "gutxi" direla, Euskadi mailan egunero 400 inguru behar izaten direla kontuan hartuta. Horregatik, elkartasuna aldarrikatu dute.



Dorleta Eguiara, Lander Arregi, Elena Lete eta Rosa Errazkin Elorregin, argiteria zaharra duen auzoetako baten. JOKIN BEREZIARTUA

Herri argitsuago baterako lanak

Argiteria publikoa aldatzeko lanak uztailera lehen egunetan hasiko dituzte Bergarako 751 argi-puntutan; LED sistema jarrita lortuko dute energia zein kostu ekonomikoa "nabarmen" txikitzea, baina, batez ere, herriko argitasuna hobetuko eta orekatuko da

Jokin Bereziartua BERGARA

Energia eta kostu ekonomikoa aurrezteko asmoz, argiteria publikoa aldatu eta hobetuko du Udalak. Bergara osoan 2.500 argi-puntu edo unitate inguru daude, eta interbentzio honetan 751 puntu aldatuko dira. LED sistemara egokitu dira argi puntu horiek eta horrekin energian eta kostu ekonomikoa aurreztuko da, baina bereziki herriko argitasuna hobetuko da.

Herriarren "kexa asko"

Izan ere, Udal Gobernuaren arabera, hainbat herritarrek salatu izan dute puntu jakin batzuetan oso argi gutxi dagoela. "Kexa asko jaso ditugu. Puntu batzuetan argi gutxi dagoelako, baina, bereziki, falta dena da homogeneotasuna. Kale berean puntu batzuk oso ondo argiztatuta daude eta beste batzuk oso gaizki,

itzalita daudelako. Honekin argiteria orekatu egingo dugu", adierazi du Elena Lete alkatea. Gainera, Udalak aurreikusita dauka beste puntu zehatz batzuk aldatzeko lanak ere abiatzea: "Puntu konkretu batzuetan kexa asko jaso ditugu eta horietan kalearen izaera zeharo aldatuko da. Bolun, Matxiategin eta bereziki trenbide zaharreko tunela argiteria aldatuko dugu". Alkatea aipatutako gune horietan 325 argi puntu aldatuko dira.

LED sistemarekin energia %80 aurrezten da eta kostu ekonomikoa ere "nabarmen" txiki-

**LANEN AURREKONTUA
390.500 EURO DA;
IDAE-RI MAILEGUA
ESKATU ZAIO, "OSO
BALDINTZA ONETAN"**

tu. Hala, Udaleko ordezkariak kalkulatu dute lau edo bost urtetan inbertsioa amortizatu delako. Argiteria aldatzeko lanak 390.500 euroko aurrekontua izango dute, BEZ barne, eta Madrilgo energiaren aurrezpenarako IDAE erakundearen bidez finantzatu da proiektua. "Erakunde horren mailegua oso baldintza onetan lortu dugu. Dirua doakoa da, hau da, maileguak ez dauka interesik; urtebeteko kadentzia izango dugu ordaintzen hasteko eta gero hamar urte dirua bueltatzeko. Hortaz, finantziario aldetik oso egokia iruditu zitzaigun", dio Oñate eta Zerbitzuak zinegotzi Lander Arregik. Arregik, aldi berean, argiteria berriak ekarriko dituen hobekuntzak hiru multzotan sailkatu ditu: zutabeetako luminarien programazioa eta kontrola -telekudea-



Elorregi auzoko irudiko argi puntuak izango dira aldatuko direnetako batzuk. J.B.



San Martin plazako argiteriak LED sistema dauka dagoeneko. MAITE TXINTXURRETA

Aldaketak, bost gunetan banatuta

Lehen gunean, Ibargarai eta arkupeak, Ibargarako jolas parkea, olibondo plaza eta barruko plaza, Harrizuri, Ramon Maria Lili, Iparragirre, Belanbide, Justo Garate plaza, Ikerleku eta Munibe – Ostetako bidea – aldatuko dira. Bigarren multzoan, Elorregi, Ola, Azkarruntz, Ozaeta, Zubiaurre, Arizeta eta San Antonio izango dira argiteria aldatzeko biziko dutenak. Hirugarren multzoaren barruan, argiteria aldatuko dute Santa Anan, Bolun, Bideberrin, Fraiskozurin eta Matxiategin. Eta laugarren multzoan sartu dituzte Basalgo, Ubera, San Juan, Buruñao, Mekolalde, Parisenea eta Osintxu. Amaitzeko, bosgarren multzoan dago Moiuako bidea. Guztira, 751 argi puntu aldatuko dira, horietatik 496 unitateetan luminaria aldatuko da eta beste 255 unitateetan LED teknologiako retrofit berriak jarriko dira.

keta – ezartzeko kableatua doan lortu da, luminaria multzoaren kopurua %5 handitzea lortu da eta, azkenik, hamalau zebra-bidetako argiteria hobetuko da: "Herrian mugimendu gehien dituzten zebra-bideak argiztatuko ditugu. Argi nahikorik ez dagoen lekuetan argiteria berezia jarriko dugu, oso garrantzitsua da herritarrendako".

Sanmartinetarako amaituta

Lanak uztailera lehen egunetan hasiko dira eta espero dute San Martin jaietarako amaitzea. "Kan-

poko auzoetatik eta gunetatik hasiko gara eta abuztuan erdialdeko argiteria aldatzeko ekingo diogu, herritarrengan ahalik eta eraginik txikiena izateko", argitu du zinegotziak.

Argiteria publikoa aldatzea egitasmo orokor baten kokatzen da. "Udaleko eraginkortasun energetikorako planaren barruan kokatu behar da, beste atal bat da. Udalaren informazio energetiko guztia plataforma baten jasoko dugu eta ikusgai jarri", adierazi du Udaleko energia arduradun Rosa Errazkinek.

"Informazio guztia" klik baten, herritarren eskura

Udal webgune berritua aurkeztu du asteon Gobernu taldeak, bergararregandik "gertuago" egon eta zerbitzu hobe" emateko asmoz; aurreko ataria ez bezala, dagoeneko gailu elektroniko guztietan erabil daiteke 'www.bergara.eus' berritua

Jokin Bereziartua BERGARA

Elena Lete alkatearen arabera, "erabiltzaileentzat erakargarria goa egin eta bergararrei zerbitzu hobe" emateko asmoz sortu dute Udalaren webgune berritua, "herritarregandik gertuago" egoteko. Aurreko webgunea "zaharkitua" zegoen eta ez zen bateragarria egungo teknologiek: "Itxura aldatu zaio eta gailu elektroniko guztietara egokitu dago orain". Izan ere, webgune zaharra ordenagailuan bakarrik zen erabilgarria.

Udaleko "informazio guztia" herritarren eskura uzten du webgune berritua. Nobedadeen artean *Alkatearekin zuzenean* ataria dago: "Asteaz zehar ditudan hitzorduak ikusteko aukera izango dute herritarrek, baita hitzordua eskatzeko aukera ere. Udalaren eta herritarren arteko distantzia handia izaten da normalean eta guk distantzia hori klik baten jarri nahi izan dugu. Ez dago hori baino distantzia motzagoarik". Bestalde, parte hartzearen kultura sustatu guran, orain arte herritarren parte hartzearekin burututako proiektuen atal berezitua ere sortu dute. Aurrerago, kultura, kirol edo gizarte arloko elkarrekin zuzendutako gunea ere egokituko dute, eta berdintasunaren eta arlo



Itxura berriaz gain, eduki berriak ere badaude webgune berrituan. JOKIN BEREZIARTUA

sozioekonomikoaren inguruko atal berezituak ere sortu dituzte. Maite Agirre alkateordeak webgune "dinamikoa eta erraza" dela nabarmendu du eta tresna berria "indartsu eta bizi" mantentzea izango dela orain erronka: "Komunikazioa ezinbestekoa da Udalaren eta herritarren artean".

Erasmus Plus, hilaren 19ra arte
Bestalde, 15 eta 17 urte bitarteko gazteek Europako beste herrialdeetako gazteekin elkartruketa egiteko aukera eskaintzen duen Erasmus Plus programan

izena emateko aukera dago oraindik, maiatzaren 19ra arte. Elkartruketa irailaren 18tik 24ra Bergaran eta urriaren 9tik 15era Alemaniako Wiesbaden hirian egingo da. Izena eman behar da www.bergara.eus berrituan. 12 lagunendako lekua dago eta prezio orokorra 60 euro da. "Aukera paregabea izango da beste herrialdeak, gazteak, ohiturak eta hizkuntzak ezagutzeko", adierazi du Euskara, Hezkuntza eta Gazteria zinegotzi Izaskun Labaienek. Udalak 15.000 euro bideratu ditu ekimen horretarako.



IMANOL SORIANO

Dotorezia, beti modan Bergaran

Errotalde parkea moda erakusleho erraldoi bihurtu zuten Bergara Bizik, Bedelkarrek eta Udalak lehenengoz antolatutako Street Style Gauean. Moda gaua berezia izan zen, Bergaran arrakasta bermatua duen formularekin: herritarrek modelo lanetan herriko dendarien produktuak soinean ditzutela. Antolatzaileak, pozik: "Sekulako parte hartzea izan dugu, hau itzela izan da".



NIRE USTEZ

MARIJE UGALDE

Udaberria, loreak, apirila, Musika...

Euskal Herriko paisaia lorez betetzen den bezala, Bergarako herria musikaz betetzen da apirilean. Eta hamahiru urte pasa dira -gezurra dirudi- Apirilean Musika proiektua martxan jarri genuenetik. *Musikarekin hazi, hezi eta bizi* gure lema baldin bada, goazen herriari eskolan egiten den lana, modu ezberdin baten eskaintzera. Hori izan zen gure hausnarketa. Bestalde, saiatu gaitzen herriak dituen txoko eta toki ezberdinak musikaz betetzen, Europako hainbat eta hainbat herritan egiten den bezala. Eta horrela hasi ginen: emanaldiak, tailerrak, hitzaldiak, ikuskizunak, kontzertuak, elkartruketak...

Apirilean eskolako giroa guztiz aldatzen da. Gela guztiak entsegu aretoak bihurtuz, urduritasuna, ilusioa, gauzak ondo prestatu eta egiteko erantzukizuna, musikari ezberdinen elkarlana, ideia berrien laborategiak... Tarteka estresagarria bada ere, egun horietan bizitzen dena benetan polita da. Eta lanaren ostean, ikus-entzulearengandik jasotako txaloak eta animoak; ez dago sari hoberik! Hasita gaude 14. ediziorako ideia berrien bila, hainbeste ematen digun herriari, egiten dakiguna eskaintzeko.

CLINICA DENTAL BERGARA

Hortz-inplanteetan eta estetikan espezialistak gara!

Pastor Dk. - Artetxe Dk. - Goikoetxea Dk.

Bidekurutzeta, 36 - BERGARA • Tel.: 943 76 05 77 • www.clinicadentalbergara.es





Ezkerretik hasita, Gregorio Igartua, Jesus Mari Igartua, Manuel Oruesagasti, Jabier Osa, Martin Lete eta Patxi Larrañaga. I. ZUBELDIA

Auzolana eta transmisioa txondorraren bueltan

Auzolanean eta auzoko nagusien azalpenak jarraituz, txondorra eraikitzen hasiko dira bihar Elosuan; auzotarrek hiru egun beharko dituzte altxatzeko, eta espero dute maiatzeko azken astean su ematea txondorrari Otaba jaietan ikatza ateratzeko

Jokin Bereziartua BERGARA

Txondorra auzolanean eta antzinako erara eraikitzea, euskaldunon antzinako lanbideak belaunaldi berriei erakusteko. Labur azalduta, horixe da Elosuan egitera doazena. Ideia nola sortu zen? Bada, Euskal Herrian beste hainbat eta hainbat ekimen esanguratsu jaio diren moduan: afari baten, mahaiaren bueltan. Eta auzo alkate Iñigo Zubeldiak azaldu duenez, "muturrak apur bat berotuta". Txondorra egiten bihar, zapatua, hasiko dira.

"Txondorra altxatzen hasiko gara bihar, baina hiru egun beharko ditugu. Espero dugu datorren asterako muntatuta izatea. Lanean gauden bitartean jendeak aukera izango du txondorra nola muntatzen den bertatik bertara ikusteko. Eta, behar izanez gero, espero dut gaiaren inguruan dakitenek azalpenak ere emango dituztela", dio Zubeldiak. Elosu osoa inplikatu da proiektuan eta biharko dozena bat auzotar izango dira lanerako.

Goiko argazkiko beteranoez gain, jende gazteagoak ere hartuko du parte txondorra eraikitzen. Izan ere, gazteek egingo dituzte lanik zailenak eta pisutsuenak.

Ikatza jaietan, ekainaren 17an

Maiatzeko azken astean piztuko dute txondorra: "Kalkulatu dugu auzoko Otaba jaietan, ekainaren 17ko asteburuan, ateratzea ikatza. Jai giroan egin nahi dugu, auzotar guztien aurrean". Ikatza sortzeko, hogeitaz bat egun behar da txondorra su hartzen, eta egun horietan guztietan, gainean egongo dira zaintzen egun eta gau: "Oraindik ez ditugu txandak antolatu, txondorra amaitzean egingo dugu berba horren gainean. Adineko auzotarrei ez diegu lan hori eman nahi, baina aurretik azalpenak jaso beharko ditugu zaintza lana ahalik eta ondoen egin dezagun. Imajinatzen duzu egun baten esnatu eta txondorra erabat erraustuta egotea? Bertsoak aterako dizkigute [Barre]".

Dokumental bat egin guran

Lan hori guztia jasota geratzea gura dute. "Gure nagusiek asko dute kontatzeko eta hori dokumentatu gura dugu. Deialdi bat egiten dugu hemendik dirua jartzeko prest egon daitekeena- rentzat, hau ez da eta musu-truk egiten. Belaunaldi oso baten jakintza galdu da dagoeneko...", azaldu du Zubeldiak.



XABI GOROSTIDI

Holokaustoaren biktima gogoan

Holokausto naziaren biktima izan zen Pedro Axpe bergararrari Muniben egin zioten omenaldian, Lore Martinez Axpek hartu zuen hitza: "Omenaldi hauek lehenago egin beharko lirateke, nire aitona anaiari egindakoa eta arrazoi barik eraildako beste hainbat pertsonari egindakoa. Eskerrik asko memoria historikoa lantzen dihardutenei. Ezinbestekoa da ez dadin errepikatu".

Leire Martinen aldeko jaialdirako sarrerak salgai jarriko dituzte

Muskulu-atrofia espinala duen Leire Martin Pineda bergarar neskatilari eta gaixotasun hori dutenen senideak batzen dituen Fundame elkarteari laguntzeko ekainaren 17an antolatu diren ekintzen artean dago 18:00etan Udal Pilotalekuan egingo den jaialdia. Sarrerak datorren martitzenean, 16an, jarriko dituzte salgai Udalaren webgunean. 4 eurotan salduko dira. Zero lerro bat egongo da, halere, diruz lagundu nahi duenarentzako. Jaialdi horretarako hainbat musika talde iragarri dituzte. Aritzeta abesbatza, Bergarako Orfeoia, Alai Taldea, Bergarako Orkestra Sinfonikoko hari taldea dira horietako batzuk.

OHARRAK

Domeka Azoka

Maiatzaren 28an San Martin plazan egingo den Domeka Azoka izeneko elkartruke azokan izena eman daiteke www.bergara.eus webgunean, hilaren 22a baino lehen.

OHZ (IBI)

Landa zein hiri eremuko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren erreziboa ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 15etik ekainaren 30era arte da. Ondoren, errekaruarekin kobratuko da. Informazio gehiagorako: 943 77 91 64.

1951n jaiotakoak

Ekainaren 17an Errioxara joango dira: 615 70 90 02 (Guti).

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

play&say



Uztailean, diberti zaitetz ingelesez.

2 eta 12 urte bitarteko umeentzako udako ikastaroak

DATAK : Ekainak 26-Uztailak 28

ORDUTEGIA: 10:00-13:00.
Nahi izanez gero (09:00-10:00) doaneko zaintza zerbitzua.

LEKUA: San Martin Agirre eskola

INFORMAZIO GEHIAGO:
943 76 26 29 // bergara@playandsay.org

Anima zaitetz!

Nesken futbolari bultzada emateko topaketa etzi

Bergara Kirol Elkarteak antolatuta, Agorrosingo zelaia emakumezko futbolarien bilgune izango da domeka goizean; BKE da bailarako neska futbolari gehien dituen kluba: "Oso pozik gaude egungo kopuruarekin, baina 100 neska baino gehiago izan gura ditugu"



Martitzen iluntzean egindako aurkezpena, Agorrosin. MAITE TXINTXURRETA

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergara Kirol Elkarteak emakumezkoen futbola indartzeko kanpaina jarri du martxan, eta, horren baitan, domekan, hilak 14, neska futbolarien topaketa egingo dute Agorrosingo zelaian. Herriko futbol klubean ehun emakumezko baino gehiago lortzea da kanpainaren helburu nagusia. "Gaur egun, 96 emakumezko dihardute gurean, eta ehun baino gehiago izatearen erronka jarri diogu gure buruari. Egia esan, gaur egungo kopuruarekin oso pozik gaude, herri mailan neska gehien dituen kirol saila da-eta futbolekoa, eta horretaz oso harro gaude. Hala ere, hobetzen jarraitu nahi dugu, eta ahalik eta emakumezko gehien gerturatzea gureru, euren kirola egiteko aukera eskaini eta emakumezkoen kirolaren arloan lanean jarraitzeko", adierazi du asteon egindako aurkezpenean Bergara Kirol Elkarteako presidente Iosu Elortzak.

Bergaratik harago doan deialdia

Topaketa emakume guztiei dago zuzenduta, edozein adinetakoak, Bergarakoak zein inguruko herrietakoak. 10:00etan hasiko da, eta goiz osoan hainbat jardueru egingo dituzte: jolasak, entrenamenduak, hitzaldi saioak... Lun-

txa ere izango da. Aipatzekoa da belar naturaleko zelaian egingo dituztela ekintzok, eta, beraz, neskek aukera izango dutela zelai berezia probatzeko. Klubeko emakumezko taldeetako entrenatzaileek eta emakumezkoen senior taldeko jokalariek gidatuko dute jardunaldia, eta gizonetako lehen taldeko zenbait jokalarik eta harrobiko beste entrenatzaile batzuek ere hartuko dute parte.

Diaz: "Oso aberasgarria izan da"

Mariñe Diaz eta Maider San Torcuato lehen taldeko jokalariek dira, eta azken hori neska infantilen entrenatzailea ere bada. Biek 12 urte inguru zituztenetik dihardute futbolekoan, eta interesa izan dezaketen neska guztiak animatu dituzte topaketara gertura daitezen. "Hasi nintzenean, ez nuen pentsatzen orain arte irabazi dudana guztia irabaziko nuenik; ez naiz ari futbolaren arloetatik, arlo pertsonalagatik ari naiz. Lagun asko egiten dira hemen, eta taldean lan egiten ikasten da. Niretzat oso aberasgarria izan da", adierazi du Mariñe Diazek.

Gaur egun, Bergara Kirol Elkarteak da Debagoienean emakumezko futbolari gehien dituen futbol kluba.

edo egubakoitzean, 19:00etatik 20:00etara. Autobus geltokitik irtengo dira, 08:00etan.

Gazteen taldearen egun berean, beteranoen taldea Trabakua, Oiz eta Gernika inguruan ibiliko da. Egun horretako mendi martxa hori ere egun osorako irteera izango da -sei ordu eta erdiko martxa aurreikusten dute, 19,2 kilometrokoa-. Izena emateko, 20 euroko ordainketa egin behar da, Pol-Poleko egoitzan. 08:00etan elkartuko dira, pilotalekuan.

Pol-Poleko gazteen eta beteranoen irteerak hilaren 21ean

Pol-Pol Mendizale Taldeko gazteek eta beteranoek irteera egingo dute egun berean. Gazteen taldearen irteeran, Barazarren hasi, eta Gorbeia, Arraba eta Zeanuri zeharkatuko dituzte. Egun osorako irteera izango da; 15 euro ordaindu beharko da, eta Pol-Poleko egoitzaren ordutegian eman beharko da izena; hau da, astelehenean, eguenean

Musikarekin hazi, hezi eta bizi...



Matrikulazio epea zabalik ekainaren 15era arte

*Biolina
3 urtetik aurrera

*Musika eta Mugimendu tailerra
5 urtetik aurrera

*Abesbatza
5 urtetik aurrera

*Dantza
6 urtetik aurrera

*Hizkuntza Musikala
helduentzat ere

*Instrumentu musikalak:
sinfonikoak / herrikoiak
polifonikoak / Joera berriak

*Eskolako taldeak: orkestrak, banda, trikitiak, abesbatzak... *Ekintzak: kontzertuak, irteerak,

Informazioa:

Bergarako musika eta dantza eskola
Espolota z/g, 943765780
idazkaritza@bme.e.telefonica.net
www.bergarakomusikaeskola.com



Jaialdia iragartzeko erabili duten kartela, Bergarako gaztetxearen kanpoaldean. M.T.

Zigor Azkargortarekin bat egiteko deialdia

Zigor Azkargorta bergararraren lagun taldeak biharko, zapatua, jai berezia antolatu du, kartzela zaharrean, izan berri duen gaixotasunaren errehabilitazioan laguntzeko eta elkartasuna eta babesa erakusteko asmoarekin

Maite Txintxurreta BERGARA

Bihar, maiatzak 13, *Zigorrekin bat egiteko jaialdia* izango da kartzela zaharrean. Zigor Azkargorta bergararraren lagun talde bat arduratu da antolaketaz lanez, eta egun horretan bildutako dirua hari laguntzera bideratuko dute.

Azkargortak minbizia pasa du orain dela gutxi, eta horrek gor-

putzean paralisia eragin dio. Hori dela eta, orain, errehabilitazioan dihardu, mugikortasuna poliki-poliki berreskuratzen joateko.

Tratamendu horrek gastu ugari dakartza. Hori dela eta, lagunek, festa horrekin, laguntza ekonomikoa jaso gura dute, baina, azpimarratu dutenez, baita Azkargortari babesa eta elkar-

tasuna adieraztea ere: "Berarekin bat egitea". Zigor Azkargortak berak adierazi du "ilusio handia" egin diola lagunek bere aldeko jaialdi hori antolatzeak, eta eskertuta agertu da.

Eguneko egitaraua

Eguerdian hasiko da *Zigorrekin bat egiteko jaialdia*, gaztetxean, bazkariarekin. Bazkarirako sa-

rrerak 15 eurotan daude salgai Pol-Pol, Arrano eta Kortazar tabernetan.

Bazkalostean, 17:30 inguruan hasita, kontzertuak izango dira kartzela zaharreko agertoki gainean. Parte hartuko duten musika taldeak zeintzuk diren jakin nahi duenak bertaratu egin beharko du. Dena den, antolaketa taldeak aurreratu du Bergarako lau talde izango direla.

Hain zuzen, iluntzera arte iraungo dute kontzertuek, eta, ondoren, atsedenditxoa izango da. Jaialdia, baina, ez da orduan bukatuko. Izan ere, gauez, 22:30 aldean, DJak izango dira, eta festak ordu txikietara arte jarraituko du.

Bazkarira joateko 15 euro ordaintzen dutenak egun osoko ekitaldietara joan ahal izango dira, gehiago ordaindu barik. Bazkarira ez doazenendako, sarrreraren prezioa bost euro da.

Hori guztiori aurrera eramateko, antolaketan aritu den Irene Santamariak talde osoaren izenean eskerrak eman nahi izan dizkie boluntario moduan jai horren inguruan laguntzeko prest agertu diren guztiei: barrako txandak betetzen, musikari, bazkaria gertatzen...

Maiatzeko zinekluba gaztetxean

Gaztetxeko ekintzekin jarraituz, Dynamo zineklubak maiatzean ere martxan jarraitzen du. Asteon, *24 hour party people* filmarekin estreinatu dute auzolanean egokitutako zinema gela berria. Datorren eguaztenean (21:00), Dennis Ganselen *La Ola* eman go dute, eta hurrengo astean, berriz, hilak 24, *Million Dollar Baby*. Bukatzeko, maiatzaren 31n, *El jovencito Frankenstein* filma izango da ikusgai.



Heldu zein ume, lanean. BGA

Auzolanean gaztetxea txukuntzen

Auzolanerako deialdia egin zuten kartzela zaharretik joan den zapatu goizerako. 30 bat pertsona batu ziren laguntzeko gertu, eta, taldeetan banatuta, goiz osoan zehar ibili ziren garbiketa, txukunketa eta berrantolaketak lanak egiten, ekainean etorriko den urteurrenara begira, bereziki. Izan ere, aurten Bergarako gaztetxeak 17. urteurrena ospatuko du.

Gaztetxea espazio plurala da, eta, Bergarako Gazte Asanbladaz gain, herriko hainbat taldek erabili ohi dute kartzela zaharra euren zereginak aurrera eramateko. Talde horien artean daude, esaterako, Haur eta Guraso Asanblada, Kopla Barik bertso eskola, Martxanxerak talde feminista, Txapa Irratia....

Xaxau konpartsa martxan da Pentekoste jaiei begira

Biharko, zapatua, jai parte hartzaileen gaineko mahai ingurua antolatu dute, kartzela zaharrean

M.T. BERGARA

Bideberriko txosnagunea izango da ekainaren 2tik 6ra ospatuko diren Pentekosteetako jaigune garrantzitsuenetako bat. Xaxau konpartsak kudeatzen du espazio hori, eta han izango diren kon-

zertu eta ikuskizunak iragarri dituzte. Zerrenda luzea kaleratu dute, eta musika estilo ugari jorratzen dituzten talde eta artistak agertzen dira bertan. Besteak beste, Anestesia, El Txef_A, Anari eta Los Zopilotes Txirriaos

bezalako izen handiak. Bergarako artistak ere izango dira taula gainean -Balza, Ene Kat, Nebulosa, Omen...-. Egitarau osoa goiena.eus-en dago.

Bestalde, film laburren lehiaketak antolatu dute, aurten ere, bosgarrenez. Berrikuntza bezala, film guztietan, antolakuntzak aukeratutako objektu eta esaldi bat agertu beharko da. Azaldu beharreko objektua berokia izango da, eta esaldia, *Hotz itxen dau!* Gehienez, bost minutuko iraupena izan beharko dute la-

nek, eta iosaaz@hotmail.com helbidera bidali behar dira maiatzaren 29a baino lehen. Jaietan guztien emanaldia egingo dute, irabazleak aukeratzeaz batera.

Bestalde, bihar, hilak 13, Xaxauk antolatutako *Jaixak (bir) pentsatzen* zikloko azken saioa egingo dute. Mahai-ingurua izango da, eta jai parte hartzaileak izango dituzte berba, Oreretako Kuadrillen Eguna, Bergarako Olinpiadak eta Ondarruko Zapatua Azule eredu hartuta. 10:00etan izango da, gaztetxean.

Karmele Jaiorekin solasaldi literarioa Mariaren Lagundian

Datorren astelehenean, hilak 15, Karmele Jaio idazle gasteiz-tarrarekin solasaldi literario irekia izango da Mariaren Lagundia Ikastolan (18:00). *Amaren eskuak* liburuaren gainean hitz egiteko elkartuko dira. Bertaratu nahi dutenek 943 76 25 40/1 telefonora deituta eman dezakete izena, edo ikastola1@mla-gundia.net helbidera idatzita.



Lanbide Heziketa 2017-18



- . Mendekotasun Egoeran Dauden Pertsonen Arreta Egiteko Teknikaria
- . Gizarteratzeko Goi Mailako Teknikaria



Ate Irekiak

Maiatzaren 16an

17:30 ean



1.524.312 Atsegin dut

Espoloia Kalea, 1 - 20570 Bergara (Gipuzkoa)

Tel. 943 76 25 40

www.mlagundia.net





Olaran Etxeko areto nagusia goraino bete zen Jon Maiaren hitzaldia entzuteko. MAITE TXINTXURRETA

Elkar ezagutzea, klixeeen kontrako tresna onena

Etorkinen seme izateak umezaroan eta gaztaroan eragindako konplexuez eta horren bueltan bizi izandako esperientziei buruz aritu zen Jon Maia Soria bertsolari urretxuarra, eguaztenean, goraino bete zen Olaran Etxean

Maite Txintxurreta ANTZUOLA

Eguaztenean Olaran txiki geratu zen, herritar ugari bertaratu baitziren Jon Maia Soria bertsolariaren berbaldia entzuteko. Gazteleraz izan zen saioa, eta etorkinen seme eta bertsolari bezala berak bizi izandako esperientziak kontatu zituen Maiak. "Nire ama 4 urte zituela etorri zen Extremaduratik Euskal Herrira eta aita, berriz, 19 urterekin, Zamoratik", azaldu zuen hasieran. Biak haien gurasoei, hau da, Jon Maiaren aitona-amonekin etorri ziren, lan bila.

Maiak azaldu zuenez, umetan eta gaztetan "konplexu" dezentte izan zituen, haren abizen erdaldunekin lotutakoak; "pedigri falta" ei zuen berak, "zortzi euskal abizen izatea" asko baloratzen zen ingurunean.

Guraso biak berez erdaldunak izan arren –aitak euskara ikasi zuen gau eskoletan–, ikastolara bidali zuten semea, eta, hark azaldu zuenez, bertan, Zumaia-ko ikastolan, hasi zen bertsola-

ritzarekin interesatzen, astean behin bertsolaritza eskola izaten baitzuten. Hala, 12 urterekin, bertso eskolan hasi zen.

Ikastolan ikasia izanik, lagun gehienak familia euskaldunekoak zituen Maiak. Aldiz, eskola nazionalera zihoazenak "besteak" ei ziren, "belarrimotzak". Maiak azaldu zuen "bi bando" horien artean "beti gerran" ibili ohi zirela. Hala, azaldu zuen herriak zatituta egon ohi zirela, eta bakoitzak bazuen bere konplexua. Euskaldun askok, esaterako, gazteleraz ongi ez jakitearen konplexu hori zuten, "kaxerotzat" joko zituztelako. Maiak berak ez zuen nahi jendeak bera ere *belarrimotz* haiekin erlazionatzea. Hortaz, "bar-

ne gatazka nahiko handiak" izan zituen garaiotan.

Ziklo itxiera

25 urte zituela irakurri zuen Bertol Brechten poema bat izan zen konplexu horiek alde batera uzteko "palanka". Poema horrek zioen bere lurra gogoz kontra laga behar izan duena ez dela etorkina soilik, desterratua baizik. Bere lehendabiziko Euskal Herriko txapelketan atera zen "armairutik", 8.000 ikusleren aurrean eta telebistaz zuzenean ematen ari ziren saioan azken agurra gurasoei eta *abuelo* eta *abuela*-ri eskainiz.

Bertso horrek eragindako erreakzioarekin konturatu zen istorio hori ez zela berea bakarrik; aldiz, tabuz beteta egon arren, milaka euskaldunen istorioa zela.

Klixeeen aurka mintzatuaz bukatu zuen hitzaldia, eta aldarrikatu zuen horien aurkako erremintarik onena "elkar ezagutzea" dela.

"BARNE GATAZKA HANDIAK" IZATEN ZITUEN GAZTETAN, ERDALDUNEN SEME IZATEAGATIK

Baserrietara bisitak antolatu dituzte San Isidro egunerako

Maiatzaren 15ean, astelehena, nekazaritzan diharduten Antzuolako bost baserri ezagutzeko aukera izango da

M.T. ANTZUOLA

15:30ean egingo dute hitzordua Antzuolako Herriko Plazan, eta parte hartzaileak autoetan antolatuko dituzte.

16:00etan Irumendi elkartekoen Loidiko etxaldean izango dira, eta kooperatiban piriniar arrazako ganaduarekin egiten duten lana ezagutuko dute. Ordubete beranduago, Pikunietan izango dira. Bertan ardi gazta ekoizten dute, hiru motatakoa: Pikunietako harrix, Gasna eta gazta urdina. Jarraian, 18:00etan, Ira-la-Torrera iritsiko dira, non

barazkiak ekoizten dituzten, nagusiki. 19:00etan, berriz, Bidaurrera. Bertan, fruta ekoizten dute, mota desberdinetakoa. Bukatzeko, 20:00etan, Lapatza, nekazaritza biologikoan diharduen baserria bisitatuko dute.

Baserri guztietara joan ezin duenak ere aukera izango du aurreikusitako orduetan baserri batean edo bestean agertzeko. Dena den, kasu honetan ere izena ematea gomendatu dute. Izen ematea doan da, eta 943762547 edo 656781415 telefonora (Mari Karmen) deituta egin daiteke.

Puntako bertsolariak etorriko dira Torresoroara

Bertso saioa izango da hurrengo egubakoitzean, maiatzak 19, Torresoroan, Sebastian Lizaso, Nerea Ibarzabal, Maialen Akizu, eta Jon Maiarekin. 22:00etan hasiko da, eta sarrerak bost eurotan salduko dituzte. *Antzuolako sasibertsolaixak* aritu dira saiorako gaiak prestatzen, eta gai jartzaile eta aurkezle lanetan Alazne Jauregi arituko da.

Landatxopen kopago sanitarioa egiteko eskaerak egitea

Maiatzaren 15etik 19ra bitartean, 16:00tik 18:00ra, Landatxope elkarteko egoitzan kopago sanitarioaz baliatzeko eskaerak aurkezteko aukera izango da. Aurreko urteetan eskatu dutenek, lokalean prest izango duten dokumentazioa sinatu besterik ez dute egin behar. Lehenengoz egingo dutenek, honako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte: NANA, Osakidetza txartela eta kobratzeko erabiliko den kontu korrontearen titularra dela ziurtatzen duen agiria (Kutxa edo Bankuak egin eta sinatu behar du). Kopago eskaera egiteko baldintza urteko 18.000 euro gordin baino gutxiago kobratzea da.

'Catan' txapelketa izango da domekan Olaran Etxean

Domekan, maiatzak 14, Antzuolako lehendabiziko *Catan* txapelketa izango da Olaran etxeko ekintza aretoan, 17:00etan hasita. Estrategia oinarri duen mahai jokoa da *Catan*, eta txapelketa hau Jolasenea mahai jolasen elkarteak antolatu du. Irabazleak *Exploradores* mahai jolasa jasoko du sari modura, eta estatuko finalean egoteko aukera.

EH Bilduk batzar irekia deitu du hilaren 27rako

Antzuolako EH Bilduk batzarra egingo du maiatzaren 27an Torresoroan. EH Bilduren ekaineko kongresura begira, orain arte herrian "barrura begira" egingo dako lana azalduko dute, eta erabakiak hartuko dituzte: "Nola antolatuko da? Nola funtzionatuko du? Zertan eragin behar dugu? Udal taldearekin nola koordinatu?", eta abar. Abenduaren 3ko herri batzarreko ideiekin sortutako proposamenak aurreko galderei erantzuten die la uste du EH Bilduk. Baina gurako lukete hilaren 27ko batzarrean horren inguruko iritziak entzun, bide batez, erabaki datozen urteotan Antzuolan EH Bilduk hartuko duen norabidea.



Ines Osinaga izango da trikiti asteko gonbidatuetakoa bat. IMANOL SORIANO

Trikiti astea badator, luxuzko gonbidatuekin

Datorren astean zehar trikitiaren inguruan hausnartzeko bi saio izango dira Torresoraa aretoan, instrumentu horren bueltako pertsona ezagunekin: Ines Osinaga, Pako Aristi, Unai Narbaiza, Edurne Iturbe eta Izer, Laja II.a eta Lutxurdio

Maite Txintxurreta ANTZUOLA

Trikitizaleek gustuko izango dituzten hitzorduak izango dira datorren astean Antzuolan. Izan ere, trikiti astea antolatu dute, eta horren baitan bi elkarrizketa saio interesgarri izango dira aste barruan, trikitilariarekin eta instrumentu horrekiko lotura estua duten pertsona ezagunen

parte hartzearekin. Torresoraa areton izango dira saioak.

Hasteko, martitzenean, maiatzak 16, 19:00etan hasita, Gose taldeko Ines Osinaga arrasatearra eta Pako Aristi idazlea protagonista izango dituen solasaldia izango da. Beñardo Kortabarria gidatuko du saioa, eta, aurreratu duenez, bideoak eta

bestelako "sorpresak" ere izango dira. Ikusleek galderak eginez eta euren iritzia plazaratuaz saiootan parte hartzeko aukera izango dute.

Ines Osinaga arrasatearra Gose musika taldeko abeslari eta trikitilaria da. Pako Aristi, berriz, bere idazle fazetarik da ezaguna, batez ere, baina

trikitilariarekin lotura estua du Urrestillakoak. Horren adibide gisa, *Gelatxo, soinuaren bidaia luzea* liburua idatzi du, Manuel Sodupe *Gelatxo* trikitilariari buruzkoa, eta baita *Nemesioren trikitixa* izeneko umeendako liburua ere.

Eguenean, hilak 18, trikitiaren inguruko beste solasaldi bat izango da, hori ere Torresoraa, baina 18:30ean hasita. Unai Narbaiza, Edurne Iturbe, *Izer*, Laja II.a eta Lutxurdio izango dira bertan parte hartuko dutenak, guztiak ere plaza, erromeria eta festa askotan aritutako eskarmentudun trikitilariak. Kasu honetan ere, bideoak, musika piezaren bat edo beste tarteka eta ikusleek galderak tartekatuko dituzte. Ordubete inguruko saioa izango da, eta bukatzean, triki poteoa egingo dute tabernarik taberna.

Hausnarketarako tartea

Duela bi aste Oñatin egin zuten bezala, orain dela zortzi urte Antzuolan ospatu zuten Deba-goieneko Trikitixa Eguna. Bada, ordurako eginiko lanaren fruitu bezala, diru kopuru bat batu zuen Antzuolako trikiti taldeak. Gerora, diru hori Udalari bideratu zioten, horri irteera bat emateko; hala, Udalak trikitiaren inguruko ekintzak antolatzeko konpromisoa hartu zuen. Iaz, erromeria berezi bat antolatu zuten, eta aurtén, berriz, trikiti astea, hurrengo domekan

Trikiti asteko egitaraua

Datorren astean zehar bi elkarrizketa saio izango dira Torresoraa aretoan.

Maiatzak 16, martitzena

• **19:00** Ines Osinagaren (Gose) eta Pako Aristiren elkarrizketaldia trikitiaren gainean. Torresoraa.

Maiatzak 18, eguna

• **18:30** Elkarrizketaldia Unai Narbaiza, Edurne Iturbe eta *Izer*, Laja eta Lutxurdioekin, trikitiaren gainean.
• **Ondoren**, triki-poteoa.

ospatuko den San Isidro feria egunera begira. Noski, feria egunean ere trikitiak izango du protagonismoa, herriko trikitilariak kalejira egingo baitute giroa alaitzeko.

Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateak azaldu duenez, iaz antolatutako erromeriaren oinarria jaia izan zen neurrian, oraingoan, prestatutako honi "ukitu kulturalxeagoa" eman nahi izan diote, "hausnarketara gehiago bideratutako saioak" antolatuz.

Yolanda Lizarralde irabazi du Aitz Garbiko argazki lehiaketa

Bigarren saria Ugaitz Iturberentzat izan da eta herritarrek aukeratutakoa, berriz, Patxi Martinentzat

M.T. ANTZUOLA

Domekan, Aitz Garbi tabernak antolatutako argazki lehiaketako sari banaketa egin zuten, tabernan bertan.

Maila handiko lanak aurkeztu zituzten herritarrek, eta irabazle suertatu zena Yolanda Lizarralderen *Luz fugaz* izan zen, ondoko argazkian ikusgai dagoena. Hiru eguneko egonaldia eta bere argazkia mihisean inprimatuta irabazi ditu.

Bigarren saria Ugaitz Iturberentzat izan zen, *Zu-bi* izeneko lanarekin. Hark ere mihisean



Argazki irabazlea. YOLANDA LIZARRALDE

inprimatuta eraman ahal izan zuen argazkia, eta afaria eta otarra ere irabazi zituen.

Horiek epaimahaiak aukeratutako bi irabazleak; sari herrikoia ere izan zen, ordea, herritarren botoek erabaki zutena. Patxi Martinentzat izan zen sari hori, *Izotzpean* argazkiarekin. Afaria eta otarra irabazi zituen.

Bukatzeko, zortearren saria ere banatu zuten domekan, aurkeztutakoen artean zozketa bidez erabaki zena. Sergio Morenori egokitu zitzaion, *Badwater* lanarekin.

Saritutako lau argazkiak *goiena.eus* webgunean daude ikusgai.

Bestalde, maiatzaren 10az geroztik Usoa Mendikute bergararrak Raul Peñarekin elkarlanean egindako margo erakusketa ikusgai dago Aitz Garbi tabernan.



GOIENA

Merezitako ospakizunak

Joan den aste barruan jakin zuten AKEkoek Erregional Preferentera igoera lortu zutela, eta zapatuan zaleen aurrean ospatu zuten, Amara Berriren kontrako bost eta hutseko garaipenarekin. Partidu ostean txanpaina eta ospakizunak izan ziren nagusi. Asteon ere etxean jokatu dute, Beti Onaren aurka, Estalako azken partiduan (zapatua, 16:30).

Tomate-landare berriei lekua egiteko gonbita

Gorrina izan ohi da tomate-landarea aurrera ateratzeko arazorik handiena. Hotza eta hezetasuna direla-eta, gainera, Elgetan komeni izaten da landaketa berandutzea. Hainbat gomendio jaso zituzten, astelehenean, herriko ortuzainek

A. Txintxurreta / L. Zeberio ELGETA

Lehenagoko baserritarrek zioten San Isidro egunaren bueltan hasten dela tomate-landarearen garaia. Hala, Elgetako baratze parkean tomate-landarearen gaineko tailer berezia egin zuten astelehenean. 35 bat lagun gerturatu ziren Elgetako Udalak Ekoguneko Baratze Parke Sarearekin elkarlanean antolatutako tailerrera. Hainbat gomendio eman zituen Mitxel Igarataundi. Azalpenak eman zituen tomate barietateen gainean, eta landare berriak probatzera animatu zituen elgetarrak. Horrekin batera esan zuen tomatea, berez, ez dela hemengoa eta ez duela gustuko hemengo hezetasuna. "Orain dela 500 urte etorri zen Ameriketatik, eta gorrina harrapatzen du. Eragin handia du uda lehorra izan edo ez. Hainbat errezeta ditugu onddo horri aurre egiteko. Batzuetan, eraginkorrek dira eta beste batzuetan, ez", esan zuen. "Elgeta, gai-



Igarataundi, asteleheneko tailerrean, herritarrei azalpenak ematen. A.T.

nera, leku hotza da eta komeni izaten da tomate landaketa apur bat berandutzea".

Hamaika erabiltzaile

Elgetako baratze parkeak bi urte eta hamaika erabiltzaile ditu.

Udalak jakinarazi du beste berderatzi ortu daudela erabiltzeko prest. Urteko kuota ehun euro da eta Udalak hobariak ditu aurreikusita. Egoera zailenetan dauden familiek doan erabil dezakete zerbitzua.

Espaloia kafe antzokiaren etorkizuna berriz ere aztergai

Alkateak esan du kudeatzailerik ez badago ere aretoa ireki egingo dutela lotuta dauden ekintzetarako

Larraitx Zeberio ELGETA

Xabier Ulazia hasita dago Espaloia kafe antzokia husten. Itxitzat ematen du abenduaren 23an Espaloian abiarazi zuen proiektua, eta horrela adierazi dio Elgetako Udalari. "Bilera bat izan dugu eta aipatu digu egoera ez dela ekonomikoki jasangarria eta kontratua moztu nahi duela", azaldu du Iraitx Lazkano alkateak. "E-mailez ere adierazi digu asmo bera. Prozedura aldetik eskatu diogu kontratua eteteko asmoa dokumentu formalago batean aur-

kezteko, bertan adieraziz zergatik, noiztik aurrera eta antzerakoak". Nahiz eta kudeatzailerik ez egon, aretoa Udalarrena dela azpimarratu du alkateak. "Lotuta dauden ekintza guztiak egiten jarraituko dugu. Zabaldu egingo dugu aretoa. Iaz ere hainbat gauza egin genituen horrela", esan du. Gaineratu du gauza asko daudela aztertzeko. "Kalterik egon den kalkulatu beharko dugu eta horrekin batera esleipen berria egin behar den edo beste formula batzuk aztertu behar diren".

Berbalagunen irakurketa kluba Udal Liburutegian

Goiena komunitatea

Udal Liburutegia / ELGETA

"Berbalagun taldeetako parte-hartzaileei zuzenduta martxan jarri berri dugun egitasmoa dugu *Hitzez pitz berbalagun*. Euskaraz irakurri eta irakurritakoaren inguruan euskaraz jardutea da helburua". Gaurko, berriz, *Ipuinen ordua* iragarri du Udal Liburutegiak. "16:40an, 5 urtetik

gorakoendako saioa izango da eta 17:25ean 2 urtetik gorakoendakoa. Azken horretan, boluntario berri batek kontatuko dizkie ipuinak haurrei", esan dute. *Azaleko ipuinak* egitasmoa ere bueltan da. "Masajea eta ipuin kontaketa batzen ditu Sarroa Bikandik saioetan. 0-2 urte arteko haurrentzako eta arduradunentzako 45 minutuko hiru saio izango dira". Zabalik da izen-ematea, eta, plaza mugatuak izanik, iritsiera ordena hartuko dute kontuan.

"Gorinari aurre egiteko formulak eskatu ohi dizkigu jendeak"

MITXEL IGARATAUNDI EKOGUNeko BARATZE PARKE SAREA

Erantzun ona izan du astelehenean egindako tailerrak eta pozik da Igarataundi. **Zenbat tomate barietate daude?**

Askok. Azoketan bizpahiru barietate ikusten dira nagusiki: *Jack*, *Robin* eta *Raff*. Berez, tomatea ez da hemengoa, baina badaude klase batzuk bertako baserritarrek urteetan landatu dituztenak: Aretxabaletako *Mozkorra*, Getaria aldeko *Loidi*, Azkoitiko *Korta*... Gipuzkoako bilduma egin berri dute, eta dozena bat barietate jaso dituzte autoktono moduan.



GOIENA

Barietate berriak landatzera animatu dituzu elgetarrak.

Hemen ere, beste gauza askotan bezala, modak daude. Guri, hemen, tomate leuna gustatzen zaigu, baina Ipar Euskal Herrian

oso bestelako barietateak landatzen dituzte. Tomate latzagoa da, baina, nire iritziz, gozoagoa. Gure saiakera izaten da jendea tentatzea ortuan probak egiteko. Proposatzen duguna da landatu behar badituzte hamar bat tomate-landare, lau zapabost klasikoak izatea, baina gainerakoak beste barietateetakoak aukeratzeko. Izandako emaitzaren arabera, nork bere erabakia har dezake hurrengo urtean.

Horrelako tailerrean zeintzuk izaten dira ohiko galderak?

Tomateari baratzekeo erregina esaten diogu, baina zaila da ekoizten. Gorinari aurre egiteko formulak eskatu ohi dizkigu jendeak gehienetan.



L.Z.

German Albistegiren aurkezpena

Eibar Kirol Elkarteko presidente kargurako hautagai German Albistegi Intxorta elkartearen izan zen martitzenean Hiria Primeran hautagaitza aurkeztu. Kirol Hiriarekin lotuta esan zuen Eibarren bi futbol zelai egiteko aukera badagoela, bere ustez. Herriarendako ondarea eta harrobiko taldeendako azpiegitura moduan ulertu du proiektu hori.

45 lagun Kantsatzeke Txikiren lehen irteeran

Kantsatzeke Mendi Taldeak familiendako antolatutako lehenengo irteerak harrera ona izan du. Domekan egin zuten txangoa, Andastora, eta 24 helduk eta 21 neska-mutikok hartu zuten parte. Udazkenerako iragarri du Elgetako mendi taldeak hurrengo irteera

L.Z. ELGETA

Eguraldi ederrarekin, 45 lagunek egin zuten domekan Andastorako igoera, Kantsatzeke Mendi Taldearen eskutik. Parte-hartzaileak 10:00 aldera abiatu ziren aldapan gora Arrazolako apartakalekutik. Bidean bizpahiru geldialdi egin ostean, taldea pare bat orduan iritsi zen gora. Umeek markatu zuten erritmoa eta aurrekoen lana izan zen atzekoendako bidea markatzea basoan aurkitutako adarrekin geziak irudikatuz. Amaieran, gustura parte-hartzaileak eta gustura antolatzaileak. Argazki bilduma dago ikusgai www.goiena.eus/elgeta atarian.



Elgetar taldea, domekan, Andasto tontorrean. L.Z.

Kantu eta Dantza Eguneko bazkarirako txartelak salgai

Goiena komunitatea

Herrixa Dantzan / DEBAGOIENA

Kantu eta Dantza Eguna antolatutako Elgetan maiatzaren 21erako: kantu-jira (13:00etan), bazkaria kiroldegian (14:30etan), bazkalosteko kantua, eta dantzaldia Jainagaren eta Narbairaren zuzeneko musikarekin (18:00etan).

Ohi bezala, Elgeta Kantuan taldeak etortzeko gonbidapena egin die Arrasateko, Aretxabaletako eta Eibarko bi kantu-taldeei. Aurreko urteetan bezala, espero dugu parte-hartze handiarekin eta giro onean ematea eguna.

Bazkarirako txartelak aldeztu aurretik hartu behar dira. Bola Toki tabernan edo Elgetako Udaren kontu zenbaki honetan 15 euro sartuta: 3035 0009 11 0090900039 (jarri izena eta BAZKARIA). Epemuga maiatzaren 17a da, asteazkena. Antolatzaileak: Elgeta Kantuan eta Herrixa Dantzan. Laguntzaileak: Elgetako Udala.

OHARRAK

'Zumba' maratona

Bihar, zapatua, egingo dute, kafe antzokian, 10:00etatik 12:00etara. 50 lagunetik gora daude izena emanda.

Jaietako kartela

Bi proposamen daude eta buztin gelan izango dira ikusgai hilaren 15etik 19ra. Botoa ematera deitu dituzte herritarrek.

Bolo tiraldia

Hilaren 20an jokatu da Gipuzkoako hiru txirlo txapelketako Elgetako tiraldia.

Nekazarien batzarra

Cooperativa Catolica del Campo-k urteko batzar orokorra egingo du hilaren 21ean, 13:00etan, Ozkarbi elkartearen.

Asentzio Jaia

Angiozarrek, Uberak eta Elgetak hilaren 28an ospatuko dute Asentzio Eguna. Trikitilariak eta hamarretakoa izango dira.

LANBIDE HEZIKETA DEBAGOIENEAN



"etorkizuna zure esku"

ARETXABALETAN

Ate irekiak:

Maiatzak 17, 18:30ean

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola

Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk. • 20550 ARETXABALETA

© 943 79 79 00 / 943 79 79 43

ia@iaretxabaleta.com

www.iaretxabaleta.com



BERGARAN

Ate irekiak:

Maiatzak 25, 18:30ean

Miguel Altuna LHII Bergara

Ibargarai, 1 • 20570 BERGARA

© 943 76 24 91 / 943 76 38 40

imaltuna@saremail.com

www.imaltuna.com



OÑATIN

Ate irekiak: Maiatzak 24, 18:00etan, Larraña egoitzan

IES RM Zuazola - Larraña BHI

San Lorentzo, z/g • 20560 OÑATI

© 943 78 21 50

013015aa@hezkuntza.net

www.onati.net



AURREMATRIKULA: Ekainaren 5etik 16ra. **MATRIKULA:** Uztailaren 13tik 19ra.



Soziolingustika klusterreko Asier Basurto azalpenak ematen. ENEKO AZURMENDI

Oñatiko kaleetan euskara da nagusi

Hamar elkarrizketatik ia zazpi egiten dira euskaraz Oñatiko kaleetan eta gazteen erabilera mailak utzi du daturik onena: 15 eta 24 urte bitartekoen %92,5ek hitz egiten du euskaraz. 2011ko datuekin alderatuta, emaitzak ez dira nabarmen aldatu

Eneko Azurmendi OÑATI

Pasa den udazkenean Soziolingustika Klusterrak behaketa bitartez egindako ikerketa batek ondorioztatu du Oñatiko kaleetan ematen diren hamar elkarrizketatik ia zazpi euskaraz direla eta, batez ere, gazteen datua da aipagarria. Soziolingustika Klusterreko kide Asier Basurto eman du astean ikerketako utzitako datuen berri, Euskaldun Berria gelan. Basurtoren esanetan, gazteen datua "ikaragarria" da. "Euskal Herri mailan, puntuazio altuena ez bada, altuenetakoa izango da Oñatiko gazteen euskara erabiltzen maila", azpimarratu du.

Gazteek gehien

Lau adin taldeetan banatu da ikerketa: haurrak -2 eta 14 urte bitartekoak-, gazteak -15 eta 24 urte bitartekoak-, helduak -25 eta 64 urte bitartekoak- eta adinekoak -65 urtetik gorakoak-. Esan moduan, gazteek egiten dute gehien euskaraz. Haurren

puntuazioa ere kontuan hartzeko da, %84k euskaraz egiten baitu. Helduei erreparatuta, %60k erabiltzen du euskara kalean. Euskara gutxien erabiltzen duen adin taldea adinekoena da, hauetako %40 inguruk, hain zuzen.

Ezagutza maila altua

Ezagutza mailari dagokionez, %74,6 dira euskaldunak, hau da, ulertu eta hitz egiteko gai dira. Ia euskaldunak direnak -ulertu bai, baina hitz egiteko gai ez direnak- %14 dira eta erdaldunak -ez ulertu ez hitz egin- %11,4. Ikerketak utzi duen datu esanguratsu bat da haurrek, nagusiekin daudenean, gaztelaniarako joera dutela. Izan ere, haurrak

bakarrrik daudenean euskaraz egiten dute ia beti -%92-, baina nagusi bat tartean badago, nabarmen jaisten da portzentajea, %75,9. Talde honetan, haurrak %84,3 egiten du euskaraz eta nagusiak %65,6 -batez beste %75,9-. Bestalde, nagusiek haurrik gabe %54 egiten dute euskaraz.

Emaitzak "oso onak"

Oñatiko Udalak emaitzak begi onez ikusten ditu, eta positiboki baloratu. Nerea Zubia Euskara eta Kultura zinegotziak adierazi duenez, emaitzak "oso onak" dira, euskaldun giroa nabarmentzen da herrian. Hala ere, onartu du datu hauek hobetu egin daitezkeela eta horretan lan egingo dutela aurrerantzean, azken urteetako joera mantendu dadin. "Ezin gara erlaxatu. Ikusi dugu beste herri batzuetan beheranzko joera duela euskararen erabiltzen eta hori gertatu ez dadin lan egingo dugu, prebentziarako hizkuntza politika garatuz".

**OÑATIKO UDALAK
EMAITZAK BEGI ONEZ
IKUSTEN DITU ETA
BALORAZIO
POSITIBOA EGIN DU**

Sietevientosko bidegurutzea egubakoitzetik domekara itxita

Bidegurutzea astean zehar motordun ibilgailuendako zabalik izatea proposatu du Udal Gobernuak

M.A OÑATI

Martxoaren erdialdean hasi zen proba pilotua eta ordutik hona, Sietevientosko bidegurutzea oinezkoendako gunea izan da. Bitarte honetan, Udal Gobernuak hainbat eragile eta herritarrekin harremanetan jardun du, eta, aste batzuk pasata eta balorazioa egin ondoren, gaiaren inguruan proposatuko duen irtenbidearen lan ildo nagusiak azaldu ditu: lehena da bidegurutzearen itxiera, egubakoitzetik domekara mugatzea eta, ondorioz, astelehenetik egubakoitzera bidegurutzea motordun ibilgailuendako zabalik izatea. Bidegurutzeko abiadura muga berraztertu eta hori errespetatzeko bitarteko teknikoak ipiniko dira. Hori bakarrik ez, Sietevientos itxita egongo den tartean leudekeen arau hausteen jarraipena egiteko bitarteko teknikoak ere bideratuko baititu. Azkenik, zehaz-

ten du Maiatzaren 1a plazako aparkalekuak bidegurutzea itxita egonagatik ere erabilgarriak direla herritarrei gogoraraztea.

Trafiko neurketen emaitzak

Bestalde, proba pilotuak iraun duen bitartean egin diren neurketek diote Sietevientos itxita egon den bitartean Kalegoienetik %20 ibilgailu inguru gehiago pasatu dela egunean, batez beste. Horrek, oro har, batez besteko abiadura jaistea ekarri du eta abiadura muga errespetatzen ez duten ibilgailuak %8tik %3ra jaitsi dira.

Proba pilotuaren aurretik egindako neurketetan, bestetik, ikusi zen Sietevientosko bidegurutzean bost autotik batek %30eko abiadura gainditzen zuela. Apirilean egindako azterketen emaitzak ere kezkarriak dira. Auto gutxiago pasatzen badira ere, %19k gainditu du %30eko abiadura muga.

Aitajaun-amandreei omenaldia, Elkar Hezi Ikastetxean, gaur

Gaur, 15:00etan hasi eta 16:15era bitartean, omenaldia egingo die Elkar Heziko Haur Hezkuntzako ikasleek euren aitajaun-amandreei. Hala, 2 eta 6 urte bitarteko neska-mutikoei abesti eta dantza bana eskainiko dizkiete aitona-amonei. Gainera, ume bakoitzak oparitoxa ere prestatu du horiendako. Bi urtean behin egiten dute hori.

San Isidro jaiak ospatuko dituzte Kasablankan

Isidrotxo basurdearen jaitsiera-ekin hasiko dituzte gaur jaiak 18:30ean eta domekan bukatuko dira 14:00etan egingo duten auzotarrek eskainitako luntxarekin eta erromeriarekin. Bien bitartean, rock kontzertuak -egubakoitzetan, 22:30ean- umeendako jolasak -zapatuan, 12:00etan- eta poney eta bigantxak -zapatuan, 17:00etan- egongo dira.

Udako kirol kanpainan izena emateko aukera

Udako kirol kanpainaren barruan hainbat kirol jardueratan izena emateko aukera zabalik dago Zubikoa kiroldegian. Hala nola patinajea (nagusiak eta seme-alabak eta HHko 4 urtekoak), *zumba*-n (txiki eta gazte), mendiko bizikletan, aquaerobikean, igeriketan (goizez), eskaladan, mini teniseari (goizez) eta pilotan (goizez).

Kiroldegiko belardia zabalduko da maiatzaren 15ean

Datorren astelehenean zabalduko da Zubikoa kiroldegiko belardia -ekainaren 15era arte igerilekutik ezin izango da belardira irten- eta hala egongo da San Migel jaiak arte. Astelehenetik egubakoitzera 07:30etik 21:30era egongo da zabalik, zapatuetan 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:30era eta domekaren 09:00etatik 13:30era.



Eguaztenean hasi zituzten Eltzia inguruak egokitze obrak. IKER OÑATE

Eltzia ingurua egokitze lanak hasi dituzte

Aisialdirako zenbait gune egokitze obrak hasi dituzte; besteak beste, Eltzia pareko parkea eta plazako pilotalekua eta haren inguruak daude egitasmoaren erdigunean. Egokitze horiekin, "gune atseginagoak" sortu nahi dituzte

Iker Oñate OÑATI

Udara begira, herriko hainbat espazio egokitze obrak hasi dituzte. Horien artean, Eltzia pareko guneko lanak dira nagusi: ur parkea eta erabilera askotariko berdegunea jarriko dituzte. Horretarako, herenegun, eguaztena, hasi zituzten obrak; eta hiru hilabete irautea aurreikusten dute. Hala, aurreikuspenak betez gero, uztaileko erabilgarri leudeke bertako instalazioak. Ur Uhinak bataiatu dute egitasmoa; eta Olanar Paisaia plangintzak bere baitan biltzen duen lehen egokitzea litzateke.

Batetik, plangintzak haurrei zuzenduriko ur parkea du erdigunean; ur jolasak eskainiko dituen esparrua izango da erabilgarri, hiru eremutan banatuta. Hori horrela, adin tarte ezberdinei zuzenduriko jolasak izango ditu ur parkeak.

Bestalde, erabilera askotariko berdegunea egingo dute; 1.300 metro koadro izango ditu. Ber-

tan, besteak beste, adinduen dako kirol txokoa, piknik mahaiak, jesarlekuak eta zuhaiztia jarriko dituzte; adin askotariko jendea bildu gura dute horrela.

"Herritar ugari bizi da inguru horretan, eta horientzat berdegunea sortzeko beharra zegoela ikusi genuen. Martxan dugun plangintzarekin, herritarrek espazio atseginagoa izango dute eskura", dio Irati Etxeberrriak, Hirigintza eta Zerbitzuak batzordeko buruak.

Lur Paisajistak SL enpresak diseinatu du egitasmoa; eta Urbycolan SLk du espazioa egokitze obrak egiteko ardura. 392.000 euroko aurrekontua du horretarako.

**AURREIKUSPENAK
BETEZ GERO,
UZTAILERAKO
ERABILGARRI LEGOKE
ELTZIAKO PARKEA**

Plazako pilotalekua argizatzen

Apirilaren 24ko astean, plazako pilotalekua eta haren inguruak argizatzeko lanak hasi zituzten; eta datorren astean, maiatzaren 15ekoan, bukatzea aurreikusten dute teknikariek. Guztira, hamahiru argi puntu jartzen dihardute zonan; frontoiko harmailetan, berdura plazan eta ikastolako eraikinean daude horietako batzuk.

Kasu honetan, Inergetica enpresak diseinatu du proiektua, baina brigadako langileek eta Txantxiku enpresak dihardute argiztatze lanetan. 25.800 euroko aurrekontua dute pilotalekuko argiztatze lanak egiteko.

Arazerixan-en jasotako ekarpena

Pilotalekua eta haren inguruak argiztatzeko plangintzak Aurrekontuak Arazerixan egitasmoa du oinarrian: 2017ko udal aurrekontuak zehazte aldera, herriko haur eta gazteekin Udalak abiatutako parte hartze prozesua, alegia.

Tren Ibiltaria martxan da Urgaineko ikasleentzat

Urtero legez, aurten ere haurrak eskolara oinez joateko ekimena abiatu du ikastetxeak

I.O. OÑATI

Tren Ibiltaria egitasmoari ekin dio Urgain herri eskolak; astelehenean, maiatzaren 8an, egin zen lehen ekintza eta bi astez errepikatuko dute –egunero–, maiatzaren 19ra bitartean. Tarte horretan, eskolara oinez joateko aukera izango dute 2 eta 13 urte bitarteko haurrek, betiere, ikastetxeko guraso elkar-teak lortutako boluntarioen laguntzarekin.

Ikastetxeko guraso elkarteak da egitasmoaren bultzatzailea; alegia, eurek sortu eta antolatzen dute ekimena, haurrak ikastetxera oinez joatearen onurez kontzientzia daitezen.

Horretarako, guraso elkarteak txartel bat banatzen du ikasleen artean; txartela zulatzen dute bidaia bakoitzean, trenera sartzeko txartela simulatu guran. Ordainetan, egitasmoa amaitzean, oparitxo bat jasotzen dute ikasleek.

Lau ibilbide

Herriko zenbait auzo zeharkatzen ditu Tren Ibiltariak. Zehatz esanda, orotara, lau ibilbide eskaintzen ditu; abiapuntua San Lorentzon, Kasablankan, Bide-

barrietan eta San Martinen duten ibilbideekin bat egiteko aukera dute ikasleek. Horietako batzuek beste geltoki bat dute ikastetxera bidean.

Ikastetxeko langileen hitzetan, egitasmoak harrera ona izan du ikasleen artean. "Ume pila batek egin du bat Tren Ibiltariarekin. Ekintza atsegina da euren dako; pozik datoz ikastetxera", diote.

Denborarekin, gainera, hedatu egin da egitasmoa: Udalak, Eskola Bidea proiektuari ekin zion 2014an. Bide horretan, herriko ikastetxe guztiek egin dute bat proiektuarekin; hori bai, nork bere aldetik, aurrez zehazturiko egunetan.

Urgain eguna

Tren Ibiltaria amaitu eta hurrengo egunean, maiatzaren 20an, Urgain eguna egingo dute. Hainbat ekintza antolatu dituzte egun horretarako. 11:30erako finkatu dute lehen hitzordua: Urgaintxok eta Senzala batukadak lagunduta, hasiera emango diote festa egunari. Gero, jolasak, bazkaria, antzerkia, puzgarriak, kirol festa eta kantaldia egingo dituzte. 19:30ean amaituko dira ekitaldiak.



NIRE USTEZ

GORETTI MADINA

Xoxen indarra

Maiatzaren 1etik aurrera, Katalunian aplikagarria da poteratuak dauden azukretutako edarien zerga. Gai honetaz irakurtzen ari naitzen artikulu batekin batera, nigan oso errepikaria den gogoeta bat datorrit burura: emakumezkoen zein gizonezkoen jokaera.

Maila teorikoan, behintzat, Lege honen oinarria Osasunaren Mundu Erakundeak dioen txosten batean datza, non beste herrialde batzuetan frogatu denez, azukretutako edarien salmenta salneurriaren igoerak kontsumoa jaisten du, eta hori du helburu, osasunaren onuraren bila. Beraz, gizartearen partaide garenon jokaerari dago-kionez eta ezer berririk asmatu gabe, bide zuzenari begira, momentuz ezinbestez, "xoxen indarra" sartzen da jokoan... Dirudienez, ez dira nahikoa heziketa, ez eta osasunaren ikertzaileen lan sakonak, ez Osasunaren Mundu Erakundearen txosten eta komunikabideen abisu eta ohartarazpenak... Zuzen bideak patrikak izorratu behar digu ohartu gaitzen! Eta agian, osasunaren dotorezian jantzita, Legeak izan dezake diru bilketa helburu, besteak beste, baina, dena dela, agerian dago gure jokabideek erakusten duten "diruaren sakralizazioaren" egia gordina.



Gorka Bikuña, Rafa Ugarte eta Iñaki Odriozola, Txantxiku Arkulariak Taldeko kideak. MIREIA BIKUÑA

Arku-tiroak hartuko du protagonismoa domekan

10:00etan hasita, Arantzuko Zozopase gunean Basoko Ibilbideko Euskal Ligako laugarren eta azkeneko jardunaldia jokatu da, eta, era berean, Gipuzkoako Open Txapelketako hirugarrena; 60 arku-tiratzailer inguruk hartuko dute parte

Eneko Azurmendi OÑATI

Azkeneko urteetan ohikoa izan den moduan, Arantzuko Zozopase pagadi eta pinudi inguruek arku-tiroa hartuko dute, beste behin. Domekan izango da hori, 10:00etan. "Bi txapelketa jokatu dira aldi berean: batetik, Euskal Ligako laugarren eta azkeneko jardunaldia; eta bestetik, Gipuzkoako Open txapelketako hirugarren jardunaldia", adierazi du Gorka Bikuñak, Txantxiku Arkulariak Taldeko kideetako batek.

Bikuñaren esanetan, orokorrean, nahiko maila eskasa dago txapelketa hauetan: "Oso maila handia ez dagoela esan daiteke. Arku-tiratzailer batzuk badaude Espainiako Txapelketetan eta ibiltzen direnak, horiek maila ona daukate, baina, orokorrean, erdi mailako txapelketa bat dela esango nuke", zehaztu du.

60 arku-tiratzailer inguruk hartuko dute parte domekako saioan. "Gehienak Euskal Autonomia Erkidegotik etorritakoak izango

dira. Errioxako eta Nafarroako lehiakideak ere egongo dira. Nafarroa ez da sartzen Euskal Ligaren barruan", dio Bikuñak.

Basoko ibilbidea

Basoko Ibilbideko modalitatea izango da domekan egingo dutena. Hau da, dianak animalia itxurakoak dira eta animalia ezberdinak daude ibilbidean zehar. 4-5 pertsonaz osatutako taldeek hartzen dute parte eta talde bakoitzak animalia –diana– ezberdin batetik hasten du ibilbidea. "24 animalia daude ibilbidean, eta helburua da animalia guztiak egitea, talde bakoitzak bere puntuazioa kontuan hartzen du", azaldu du Txantxiku Arkulariak Taldeko kideak.

4-5 PERTSONAZ OSATUTAKO TALDEEK HARTZEN DUTE PARTE BASOKO IBILBIDEKO EUSKAL LIGAN

Hain zuzen ere, lehiakideek egin dituzte epaile lanak txapelketa honetan, Bikuñaren esanetan. "Zalantzaren bat-edo egonez gero, taldekideen artean komentatu eta gehiengoak esaten duena erabakitzen da", adierazi du. Hala, epailea kasu konkretu batzuetarako baino ez dago; bukaerako kontaketa egiteko, adibidez.

Kontuak horrela, eta domekako azken jardunaldia izanik, Oñatin erabakiko da Basoko Ibilbideko Euskal Ligako txapelduna nor izango den aurrean.

Zaletasuna herrian

Txantxiku arkulariak taldean 15 pertsona inguru daude, gaur egun. Tartean gaztetxo batzuk ere badaude eta horietako batzuentzat lehen aldiz izango da domekako: "4-5 gaztetxo ditugu taldean eta gehienek ez dute sekula txapelketa batean parte hartu. Horiek ilusio bereziarekin hartuko dute domekako", adierazi du Bikuñak.

Aloña Mendi Gipuzkoako Lehen Mailan ariko da datorren urtean

Baldintza batzuk emanez gero, badute aukera mailari eusteko, baina, hasiera baten, jaitziera baieztatuta dago

E.A. OÑATI

Urte osoan kili-kolo ibili da Aloña Mendiko saskibaloi taldea, eta, azkenean, ezin izan da Euskal Ligako bigarren mailan mantendu. Aitor Ugarte taldeko entrenatzaileak adierazi du talde gaztea zela, bera ere maila honetan berria zela, eta hori izan daitekeela arrazoietakoa bat. "Denboraldia ez genuen ondo hasi, partidua asko galdu genituen. Esperientzia falta izan daiteke", azaldu du.

Denboraldiaren bigarren zatia askoz hobeto egin du Aloña Mendik, baina erreakzioa berandu iritsi da. "Urte osoko lana ezin izan dugu azken bi hilabeteetan egin". Gainera, taldeak baja asko izan ditu eta horrek ere eragina izan duela dio Ugartek. "Jokalariek batzuk urte guztia egon dira min hartuta eta bigarren taldeetik gora eta behera ibili behar

izan dira beste batzuk. Horrek guztiak eragina du. Oso gutxitan entrenatu gara talde guztiak batera", onartu du.

Mantentzeko aukerekin

Hasiera baten, Gipuzkoako Lehen Mailan jokatu du Aloña Mendik datorren denboraldian. Hala ere, Ugartek azaldu du badaudela mailari mantentzeko aukerak. Izan ere, hiru talde utzi ditu atzetik talde oñatiarrak eta laugarren horrek baditu aukerak Euskal Ligan jarraitzeko. "Baldintza jakin batzuk gertatzen badira, izan daiteke. Probintzia bakoitzeko talde bat igotzen da maila honetara eta logikoa izango litzateke, hiru igotzen badira, hiru jaistea. Hala ere, ez dakit oso ondo ze baldintza geratu beharko liratekeen. Nik badut esperantza, ikusiko dugu zer gertatzen den", bukatu du.

ARGI festibala ekingaz beterik dator asteburu honetan

Gaur gauean Lightpainting tailerra egingo dute gaztelekuko kuboan, 22:30ean. Argiekin marrazteko argazkilaritza teknika nola landu erakutsiko da tailer honetan, linternak eta bestelako aparatuak erabiliz. Ilunpetan argazki taldeak dinamizatu du saioa. Bertan parte hartzeko ilunpetan@gmail.com helbidera idatzi beharko da aurrez.

Bestalde, bihar, Photobook Club izeneko solasaldia egingo dute Gandiaga Topagunean, 10:30ean. Parte-hartzaile bakoitzak natura eta espiritutasuna ardatz hartzen dituen argazki liburu bat eramango du saiora eta gainontzekoekin partekatuko du liburuak jasotzen duena.

Azkenik, domekan, Hysterion 3.0 ikus-entzunezko emanaldia izango da, dantza, testu erreztaldia eta argazkiak uztartzen dituen, Nagore Legarreta argazkilariarekin.

'Los Garay' liburuaren aurkezpena egingo dute gaur udaletxean

Jose Antonio Azpiazu historiariari idatzitako *Los Garay: Una saga industrial en Oñati durante 150 años* izeneko liburuaren aurkezpena egingo dute gaur, egubakoitza, udaletxeko areto nagusian, 11:00etan. Familia baten eta enpresa baten historia batzen du. Liburua Jose Luis Creixell proiektuaren aitzindariari eskaini dio Azpiazuk.

Kontzertuak itzuliko dira Arrano tabernara, Dedorekin

Denboraldi bat kontzerturik gabe egon ostean, asteburu honetan Dedo kantari eta kanta idazle italiarra hartuko du gaur Arrano tabernak. Askotariko instrumentuak jotzen dituen artistaren emanaldia domekan izango da, maiatzaren 14an. *Cuore Elettroacustico* izeneko laugarren albumarekin dator, soinu elektriko eta akustikoekin.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

ALBERDI MIREIA
Bergara / Masterreka kalea 11, behea
943 76 33 99 / 646 43 34 58

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA
ZUATZU KLINIKA
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA
ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA
(AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

SADHANA YOGA
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 8 ZM
690 79 21 55



Txus Aranbururen mutilek igoera lortu zutenekoa, 2002an, Zubikoan. IÑIGO ARREGI

Historia berregin guran doaz

ESKUBALOIA Izarraitz Muñoz Aloña Mendik asteburuan jokatu du Lehen Maila Nazionalera igotzeko fasea. Jokalariek gogoan dute Txus Aranburuk zuzendutako taldeak 2002an erdietsitako igoera. Orduan, Oñatin jokatu zuten fasea

Iker Oñate OÑATI

Esperientzia berria bizi izango du eskubaloiko talde nagusiak asteburuan; Burgos dute hurrengo geltoki, Lehen Maila Nazionalera jokatzeko ahaleginean. Jokalariak jakitun dira igoera lortzearen esanahiaz; oroitzapenean gorderik dute 2002an Txus Aranbururen mutilek eskuratutakoa: Lehen Maila Nazionalera jokatzeko txartela erdietsi zuten, Oñatin jokaturako fasean.

Hori horrela, azken asteetan buru-belarri jardun dute Burgoen jokatu dituzten hiru partiduak prestatzen. "Motibatuta gaude, esperientzia berriari ekiteko gogoz. Zalentzarik gabe, dena emango dugu, jakin baitakigu igoera lortzeko lan ona egin behar izango dugula ezinbestean", aitortu du Aitor Aranburuk, Izarraitz Muñoz Aloña Mendiko entrenatzaileak.

Hiru partidu asteburuan

Oñatiarrek hiru partidu jokatu dituzte ostiraletik larunbatera bitartean. Lehena, etxekoan aurka.

MAIATZAK 12, EGUBAKOITZA

20:30 UBU San Pablo Inmobiliaria - Izarraitz Muñoz Aloña Mendi / Burgos.

MAIATZAK 13, ZAPATUA

15:30 Club Deportivo Ipaceta - Izarraitz Muñoz Aloña Mendi / Burgos.

MAIATZAK 14, DOMEKA

11:00 Izarraitz Muñoz Aloña Mendi - Balonmano Maristas / Burgos.

EL PLANTIO KIROLDEGIAN JOKATUKO DIRA IGOERA FASEKO PARTIDUAK

Prestaketa prozesuan, azken asteotan alor psikologikoan sakondu dute, batez ere. "Denboraldi osoa eman dugu fisikoki prestatzen; alor psikologikoan sakondu beharra zegoen", dio entrenatzaileak.

Sei multzotan banatu dituzte igoera fasean jardungo duten taldeak. Orotara, hogeita lau talde daude. Horien artean egini niko zozketak eraginda, oñatiarrak laugarren multzoan lehiatuko dira; burgostarrak, iruindarrak eta madrildarrak izango dituzte aurkari. Azken asteotan, horien jokoa aztertzen jardun dute oñatiarrek.

Aurkariak tentuz zaindu behar Kasuak kasu, eta aurkarien partidetako hainbat bideo ikusita, badakite tentuz zaindu beharreko taldeak izango dituztela aurrean. Balonmano Maristas

talde iruindarrak, esaterako, aurreko urtean Lehen Maila Nazionalera igotzeko txartela erdietsi zuen; hala ere, plaza saltzea erabaki zuen. Bestetik, UBU San Pablo Inmobiliaria, Burgosko taldea, izango dute aurkari. Proiektu berria da burgostarrena, aurreko sortutakoa, baina helburu argia duena: hiru urteren buruan Asobal Ligako partaide izan gura du. Azkenik, Club Deportivo Ipaceta madrildarrak daude. Azken horiek hirugarren postuan amaitu zuten txapelketa, baina aurreneko biek uko egin zioten fasean esku hartzeari.

Sei multzoetako garaileez aparte, igoera faseko ligaxkan bigarren postua erdietsi dutenen artean emaitza onenak lortu dituzten hiru taldeek ere Lehen Maila Nazionalera jokatzeko txartela eskuratuko dute.

Esperientzia berria

Entrenatzailearentzat berria da Lehen Maila Nazionalera igotzeko saiakera. Horrek ez du esan nahi, ordea, gaian ezjakina denik; Rafa Zulueta baitu laguntzaile. Lehen Maila Nazionalera igotzeko txartela bere egin zuen taldeko kide zen Zulueta. Gogoan daroa garai hartako esperientzia: "Izugarria izan zen. Igoera lortzea da Lehen Maila Nazionalak eskaintzen duen une hunkigarriena. Ederra litzateke esperientzia errepikatzea, dudarik gabe".

Zuluetak aitortu duenez, asteburuan igoera lortzea "are po-

likagoa" litzateke. "Urteek aurrera egin ahala, gauzak beste modu batera ikusten dira; gehiago baloratzen dira lorpenak", azaldu du. Gaineratu duenez, "ederra da hutsetik hasi den taldea Lehen Maila Nazionalera igotzeko lehian sartuta egotea".

2002ko igoera

Esan bezala, Oñatiko eskubaloiak Lehen Maila Nazionalera jokatzeko txartela erdietsi zuen herrian bertan jokaturako fasean. Txus Aranburu zen taldeko entrenatzailea; presente ditu garaiko oroitzapenak. "Oso maila ona eman genuen garai haietan. 2001ean jokatu genuen lehen fasea, Galizian; hurrengo urtera arte, baina, ez genuen mailaz igotzea lortu. Ederra izan zen igoera hura etxean lortzea. Oritzapen politak ditut", aitortu du.

Bestalde, entrenatzaile jarduna alde batera utzia badu ere, eskubaloia ez du inolaz baztertu; ongi ezagutzen ditu Izarraitz Muñozeko mutilak. "Egungo taldeak bloke bat dirudi, kua-drilla gisako bat sortu dute, urte ikaragarri haietan guk sortu genuen moduan. Guk, igotzea lortu genuen; eurek ere lor dezakete", dio.

AZKEN ASTEOTAN, BATEZ ERE, ALOR PSIKOLOGIKOAN SAKONDU DUTE OÑATIARREK



Joan den asteko partiduan (3-1), goletako bat. IMANOL SORIANO

Lasarten du igoerako txartela Arizmendi UDak

FUTBOLA Igoera fasean atzetik aurrera egin dute Esti Loitiren neskek, eta lider dira. Bihar, zapatua, zaleen babesa izango dute Lasarten, ligako azken norgehiagokan; garaipena behar dute, Anaitasunak egiten duenari begira ez egoteko

Xabier Urzelai ARRASATE

Bihar Lasarten (17:30) Arizmen-di UDako neskek Ostadarren aurrean lidergoa defendatzen badute, mailaz igotzeko txartela eskuratuko dute: "Kategoriaz igotzearena aurrerago ikusiko dugu; orain, garrantzitsuena biharko partidua irabaztea da, jokalariek urte osoan lan galanta egin dutelako eta sari hori

merezi dutelako", dio taldeko entrenatzaile Titu-k.

Jokalarikopuruan justu

Ondoren etorriko dira hausnarketak: "Izan ere, ezin gara Euskal Ligara igo hamasei jokalariko talde batekin. Jokalarik batzuek asteburuetan lan egiten dute, lesioak izan ditugu... Jende aldetik justu ibili gara, bai

partiduetan, baita entrenamenduetan ere. Horregatik diot ondo pentsatutako erabakia izan behar duela".

Ostadar, kontrario gogorra

Puntu bateko alde dago Arizmendi UDaren eta Ostadarren artean. Ostadarrek etxean jokatuko du, baina Arizmendikoek zaleak izango dituzte ondoan.

Kopako final-laurdenetan dago Mondra

Kopa txapelketa jokatzen dabil Mondra, eta Andoni Ezkurrearen taldea final-laurdenetarako sailkatu da. Euren multzoan lehenengo sailkatu direnez, zuri-moreek etxean jokatuko dute kanporaketa norgehiagoka hori; domekan, 16:30ean, Mojategin: "Partiduz partidu joan gura dugu, baina garrantzitsua da etxeko zaleen aurrean jokatzea".



Mondrako neskak, Bergararen kontra jokatutako derbian, ligan. I.S.

Otala-Zelai krosaren 39. edizioa domekan, 'Mardo'-ren omenez

ATLETISMOA Internetez izen-ematea martxa onean doa; egunean bertan 15 euro ordaindu beharko da

X.U. ARETXABALETA

Domekan egingo dute Otala Zelai krosaren 39. edizioa – Joseba Mardo-ren oroimenezkoa – eta aurtur nobedadea da lasterketa Udalarren eta UDako ordezkarien artean antolatuko dutela. Bada, antolatzaileek izena aurrez emateko aukera eman dute, Ibarra kiroldegian edo www.herrikrosa.eus webgunean, eta prezioa sinbolikoa da, 5 euro. Egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera, baina orduan atletek 15 euro ordaindu beharko dute.



Sergio Gartzia iaz helmugan. GOIENA

Lehenengo, gaztetxoak

Ohi bezala, haurren eta gaztetxoek lasterketek ekingo diote egunari. 10:00etan benjamin mailakoak hasiko dira lasterketekin, eta jarraian egingo dituzte alebinen (10:10) eta infantilen (10:20)

lasterketak –adin bakoitzak distantzia konkretua izango du–.

Helduen lasterketa, berriz, 11:00etan izango da. Urtero moduan, 8.410 metroko proba izango da, eta bikote mistoen kategoria ere egongo da.

Bi txapeldunak aurrez aurre

PILOTA Eskuz Binakakoan txapeldun izan diren Iker Irribarriak eta Beñat Rezustak elkarren kontra jokatuko dute domekan Eibarren, Astelena pilotalekuan.

Azken bi urteotan protagonista bilakatu dira bi pilotari horiek, kantxan egiten dabilzan lan onagatik. Hala, lehenago Retegi Bi, Tolosa, Jaka eta Jaunarena lehiatuko dira.



GOIENA

FUTBOLA Aloña Mendik miraria behar du azken jardunaldietan

Oñatiko futbol taldeari izugarri zaildu zaio kategoriari eustea. Joan den astean Hernanin 1-0 galdu ostean, bertan behera geratu dira duela hamabost egun Martuteneri irabazi ostean piztutako esperantzak. Hala, matematikek oraindik mirari baterako tartea uzten badiete ere, Elgoibarrek berdindu eta Beti Gaztek irabazi ostean, oñatiarrek

ostera ere sei puntura dituzte bi talde horiek, eta bederatzi daude jokoan. Hala, domekan, bederatzi puntura dagoen Vasconia izango da Azkoagainen.

Mondra eta UDA kanpoan

Ohorezko Erregionaleko Mondrak eta UDak kanpoan jokatuko dute, Oiartzunen eta Errenterian, eta horiek ahalik eta goren amaitzea dute buruan. Erregional Preferentean, berriz, Aretxabaletak Zumaiari irabazi behar dio mailari lasai eusteko.



Aniztasunak gu egiten gaitu spotak jaso du aurtengo sari nagusia. ARTEMAN



Aniztasunak milaka aurpegi ditu lanak jaso du MUko ikasleen saria. ARTEMAN



Guztiok desberdinak gara eta horrek egiten gaitu aberats eta berezi lanarentzako BHKlip saria. ARTEMAN



Ezberdintasunak batzen gaitu, zaitu spotak eskuratu du Music Library saria. ARTEMAN

Euspot 2017 lehiaketak markak hautsi ditu

Unai Portillak egindako lanak eskuratu du aurtengo sari nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundiak Aretxabaletako Udalarekin, Mondragon Unibertsitatearekin, Arizmendi Ikastolarekin eta Arteman enpresarekin batera antolatutako spoten sariketan

A. Aranburuzabala ARETXABALETA

Atzo, eguna, banatu zituzten seigarren Euspot lehiaketako sariak. Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoan egin zuten Iker Galartza eta Aitziber Garmendia aktoreek gidatutako ekitaldia.

Aukeraketa zaila, oraingoan

Aniztasunak aberasten gaitu gaiari buruz egindako euska-

razko 51 iragarki jaso dituzte. "Gai zabala da, baina ez genuen mugatu gura; oso lan ezberdinak jaso ditugu; goi mailako lanak ere, asko", diote antolatzaileek.

Trebiñuko Unai Portillaren *Aniztasunak gu egiten gaitu* lanarentzako izan ziren sari nagusiko 1.000 euroak. "Kalitate tekniko onena du spot horrek, publikoa erakartzeko ikaraga-

rrizko ahalmenarekin"; hori izan zen epaileek emandako argudioa. MUko ikasleen saria (500 euro) eskuratu zuen Nora Lataturen eta Danel Goikoetxearen *Aniztasunak milaka aurpegi* spotaren gainean, berriz, zera esan zuten: "Duen seduzitzeko gaitasuna izan da baloratu dena, baita mezuaren egokitasuna ere". Hain justu, publikoaren

sariaren zati bat ere bereganatu zuen lan horrek. "2.800 bototik gora jaso ditugu sari honetarako; eta 280 botorekin berdinketa egon da aipatutako lanaren eta *Aniztasuna helburu* spotaren artean, saria bien artean banatu dugu", azaldu dute.

14 eta 18 urte bitartekoendako da BHKlip saria (250); 31 spot jaso dituzte, aurreko edizioetako kopuruaren bikoitza. Honako honetan, "mezuaren egokitasuna eta taldeari egokitzapena" baloratu dute. *Guztiok desberdinak gara eta horrek egiten gaitu aberats eta berezi*, horixe lanaren izenburua. Egileak, berriz, honako hauek: Eider Calleja, Eider Magunazelaia, Alazne Zubillaga eta Miren Altuna. Aurten, baina, beste sari bat eman dute: lehiaketako laguntzaile den Music library enpresak emandako 300 euro, euren

musika artxiboak erabili dituztenendako. *Ezberdintasunak batzen gaitu, zaitu* lanarekin irabazi dute Iker eta Aritz Plazaolak.

Euskal Herri osoan hedatu da

Antolatzaileen esanetan, orain arteko ediziorik oparoena izan da kantitateari, kalitateari eta sarean izan duen hedapenari begiratuta. "Sare sozialetako jarraitzaile kopurua bikoiztu egin dugu. Horien artean sari bat banatu dugu: Polaroid Snap kamera bat, eta Isaura Rodriguezek irabazi du".

KANTITATEARI, KALITATEARI ETA SARE SOZIALETAKO HEDAPENARI BEGIRATUTA, ONENA

Herriarteko bertso txapelketako finalaurrekoa bihar Bergaran

Gabiriako eta Villabona-Amasako bertsolariek jokatu dute, Udal Pilotalekuko agertokian, 17:30ean hasita

A. A. BERGARA

Datorren zapatuan Azpeitian egingo dute otsailaren 3an abiarazi zuten Gipuzkoako Herriarteko bertso txapelketako finala. Aurreko astean Alegian lehenengo finalaurre-

koa jokatu ondoren, Asteasu-ko eta Zizurkilgo kideekin osatutako *Karidadeko Benta* taldeak eskuratu zuen finale-rako lehen txartela. Hori horrela, bigarren txartela lortzeko lehiatuko dute Gabiriako

Osinalde eta Villabona-Amasako *Am...ona* taldeek bihar, zapatua, Bergarako Udal Pilotalekuan.

Hasierako agurrarekin hasiko dute saioa, eta, ondoren, orain arteko saioetan egin duten moduan, askotariko ariketak gaingitu beharko dituzte.

Biharko saiorako txartelak zortzi eta hamar euro bitartean eros daitezke, Bergarako Pol-Pol tabernan eta *bertsosarrerak.eus* atarian ere bai.

Manu Barreireoren argazkiak Aroztegi aretoan ikusgai

2010 eta 2014 urte bitartean askotariko emakumeei ateratako erretratuen bilduma erakusgai du Legazpiko Manu Barreiro argazkilariak Bergarako aretoan. "Kondaira zahar batek dioten moduan, pertsona baten argazki bat hartzen duzunean bere arima ere harraipatzen duzu. Nire kamera aurrean jarri ziren emakumeen

arimak, lapurtu beharrean, euren begiraden bidez harraipatzen saiatu nintzen; izan ere, begirada, arimaren ispilua da", dio Barreirok.

Koloretako zein zuri-beltzeko bederatzi argazkirekin osatutako sorta maiatzaren 21era bitartean ikusgai dago Aroztegi aretoan: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuan 12:00etatik 14:00era eta 18:00etatik 20:30era; eta domekan, 12:00etatik 14:00etara.

Dantzari helduen taldeak elkarrekin Aretxabaletan

Ibarreko dantzari helduen taldeek topaketa egingo dute bihar, zapatua —bost talde izango dira—. Aretxabaletako Leizarra Dantza Taldearen ardura izan da anfitrioi lanak egitea, eta Oñatiko, Arrasateko eta Antzuolako dantza taldeak gonbidatu dituzte

A. Aranburuzabala ARETXABALETA

Orain dela bi urtetik, Leizarra Musika eskolak du herriko dantza taldearen ardura eta hari dagokio, aurren, biharko egitaraua antolatzea. "Ohituta gaude haur dantzariak kalean ikustera, baina ez horrenbeste adin batetik gorako dantzariak elkarrekin ikustera; eta, hain justu, hori da biharko topaketaren helburua, bailaran dauden helduen taldeen lana herritarrekin partekatzea", azaldu du Mariatzen Urkiak, Leizarra musika eskolako zuzendariak.

Talde bakoitzak bere izaera eta ezaugarriak dituen arren, bailarako taldeen arteko harremana gertukoa eta elkarlanean oinarritutakoa dela dio Urkiak: "Hiru hilean behin biltzen gara elkarrekin egiten ditugun topaketak prestatzeko. Horrez gainera, elkarrekin ikastaroak ere egiten ditugu. Esaterako, dantza talde batek dantza zehatz bat ikasi gura badu eta beste talderen batek baldin badaki, bata

DANTZA TOPAKETEZ GAIN, ELKARREKIN BESTELAKO EKIMENAK ERE EGITEN DITUZTE

Debagoieneko Musika eskolen kontzertua Santa Ana aretoan

Gaur, egubakoitza, 18:30ean hasita, askotariko musika estilo eta formatuak entzuteko aukera emango dute

A. A. OÑATI

Musika eskolen arteko harremanak sustatzeko helburuarekin, elkarrekin kontzertua egiten dute urtero. Iaz Arrasaten egin zuten, eta gaur, Oñatiko Santa Ana aretoan eskainiko dute,



Iaz Oñatin egin zuten Bailarako Helduen Dantzari Eguna. IMANOL SORIANO

bestearen irakasle izaten gara askotan; eta kanpotik irakasleren bat ekarri behar badugu, guztion artean adosten dugu".

Kalejira, alardea eta bazkaria

120 dantzari inguru batuko dira; erdiguneko kaleetan zehar kalejira egingo dute, 11:30ean, eta alardea gero, 12:00etan, Herriko Plazan. "Dantza batzuk elkarrekin dantzatzeko ditugu: mutilek, esaterako, *Gipuzkoako Palotea-tua* eta *Oiongo Patroia* eskainiko dituzte; neskek, besteak beste, *Gorulariak* eta *Cuatro calles*.

Horrez gainera, dantza mistoak ere izango dira: arin-arina eta fandangoa, *Arabako poutporria* eta *Domingiloa*. Ondoren, talde bakoitzak dantza bana eskainiko du. Durana kalean bazkalduko dugu gero, eta arratsaldean, dantza poteoa egingo dugu erdiguneko tabernetan", azaldu du Mikel Arcek, Leizarra Dantza Taldeko irakasleak.

Datorren urtean, 25 urte

Herriak txandakatuta antolatzen dituzte, eta hurrengo Arrasaten egitea aurreikusten dute.

riatzako eta Soraluzeko musika eskoletakoak. "Eskola bakoitzak hamar minutuko saioa egingo du. Askotariko musika estilo eta formatuak entzuteko aukera izango da: abesbatza, orkestra, hari laukotea, Big Band... Eta nork bere saioa egin ondoren, elkarrekin kantu pare bat abestuko ditugu: Imanol Urbietaren *Behin betiko* eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren *Euskaldunak gera*", dio Aitor Madinak, Oñatiko musika eskolako zuzendariak.

18:30ean. Sarrera dohainik da; edukierak ahalbidetzen duen neurrian, guztiontzako daude ateak zabalik.

120 ikasle batuko dira; herrikoaz gainera, Arrasateko, Bergarako, Aretxabaletako, Esko-


Goiena Klubaren txokoa

Hauk dira maiatzeko sariak:




Energy Screenlight HD Irakurgailua

Parte hartzeko sariaren izena: Irakurgailua



Umeentzako jokoa Perretxiko zaindaria

Parte hartzeko sariaren izena: Jokoa



Sarrerak Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



Otarrea Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarra



PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, aldatzeko edo ezabatatzeko, helbide honetara idatziz: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

ITURRIETA SAGARDOTEGIARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udalari esker

'Burbujas de papel' dantza ikuskizunerako sarrerak ditugu

Amaia antzokian, Arrasaten. | Maiatzaren 20an, 17:00etan

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Burbujas de papel" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, aldatzeko edo ezabatatzeko, helbide honetara idatziz: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitez: 2017 (maiatzetik aurrera): 40 euro. Deitu: 943 25 05 05. goienakluba.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Barrenkalen. Bi logela. Berokuntzarekin. Gutziz berritua eta jantzia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 38 29 96

Calpe (Alacant). Apartamentua ematen da errentan abuztuan, hamabostaldika. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta terraza. Hondartzatik 100 metror. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 655 74 57 97

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Familia batek etxebizitza behar du errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 691 62 39 89

Bergara edo Arrasate. Etxebizitza behar du errentan. Bi logelakoarekin nahikoa da. Berdin da jantzita ez badago ere. 632 77 35 38

Bergara. Bi logeladun etxebizitzaren bila nabil Bergaran. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 625 70 21 98

3. LOKALAK

301. SALDU

Bergara. 79 metro koadroko lokala saldu edo errentan ematen da erdigungean. Interesatuok

deitu zenbaki honetara: 607 34 90 43

303. ERRENTAN EMAN

**Toki-ona
bodegoia**
Errentan
ematen da
Bergaran.
943 76 39 53

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARRASATE

Taberna garbitzeko
eta sukaldean
laguntzeko norbait
behar da.
677 52 48 34

BERGARA

Sukalde
laguntzailea
behar da.
652 73 18 96

IKT on
hezkuntza-aholkularitzak

2017-2018 ikasturterako **hezitzaileak** behar ditu irakasleak IKT eta hezkuntzan formatzeko.

Hona hemen baldintzak:

- Irakasle ikasketak: pedagogiaren eta metodologiaren jakintza.
- Teknologia digitalarekiko grina: hezkuntzan aplikatzeko motibazioa.
- Komunikazio-gaitasuna: formazio-saioak gidatzeko erraztasuna.

Interesatuok bidali CV
kaixo@ikton.eus



IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz zort daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- **ORDAINTZEKO ATALETAN, PARTIKULARREN KASUAN, PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO.**

402. ESKAERAK

Arrasate. Goizetan, zerbitzari moduan lan egingo nuke. 632 70 52 82

Arrasate. Nagusiak edo umeak zaintzen orduka lan egingo nuke, baita garbitasun lanetan ere. 671 97 19 30

Arrasate. Nagusiak zaindoko nituzke egunez edo, astelehenetik egubakoitzera bitartean, etxean bertan bizi izaten. 618 28 91 28

Bergara, Arrasate edo Antzuola. Eskarmentu handiko emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak burutzeko orduka, bazkariak edota afariak prestatzeko edota atariak garbitzeko. 690 86 46 80 edo 943 76 06 10

Bergara. Pertsona nagusiak zaindoko nituzke. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Hamahiru urteko esperientzia daukat nagusiak zaintzen. 616 20 49 83

Debagoiena. Baserrietan, elkarre eta abarren garbiketan eta zaintza lanean jarduteko gertu nago. 632 65 26 58 (Oscar)

Debagoiena. Bertako neska arduratsua gertu umeak zaintzeko, nagusiak zaindu edota paseatzen laguntzeko eta orduka garbiketarako egiteko. Euskaraz moldatzen naiz. 695 73 87 95

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Orduka. Geriatria tituladuna eta esperientziaduna. 633 12 85 30

Debagoiena. Esperientzia handia eta erreferentziak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. Autoa daukat. 662 43 08 54

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo egunez nagusiak zaintzen lan egiteko gertu nago. Esperientzia daukat. 605 60 70 16 (Elba)

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten nagusiak zaindoko nituzke. 634 21 59 07

Debagoiena. Gauetan zaintza lanak egingo nituzke. 632 71 32 64

Debagoiena. Geriatria titulua duen neska gertu nagusi eta gaixoak zaintzeko. Orduka ospitalean edo gauetan etxean ere aritzeko gertu. Eskarmentu handikoa. Autoarekin. 600 00 51 60

Debagoiena. Goizetan edota gauetan nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. 669 66 33 63

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bizi izaten edo orduka, baserrietan ere bai. Esperientziaduna. 722 78 34 78

Debagoiena. Mutila lan bila. Etxean bertan bizi

izaten edo bestela. 631 70 73 85

Debagoiena. Nagusien eta ezinduen zaintzarako ikasketak dituen gizona lanerako gertu. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Erabateko prestasuna. 602 16 05 93 (Jacobo)

Debagoiena. Neska asetburuetan nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 84 06 52

Debagoiena. Neska gertu umeak eta nagusiak zaintzeko, garbiketa lanearako edota sukalde laguntzaile moduan aritzeko. 663 40 92 67

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan eskarmentua daukan gizonezkoa. Lan egiteko prestutasun osoa daukat. Aurretik lan egindako familien erreferentziak aurkez ditzaket. 673 43 82 14

Debagoiena. Taberna, etxe, baserri eta abarren garbiketarako edo hustutze lanak egiteko prest nago. Etxeko mandatuak egiteko ere bai. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

Ile-apaintzailea. Ile-apaintzaile lanetan jardungo nuke. Titulazioduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 671 97 19 30

Lan bila. Oñatiko gizon euskalduna lan bila; garbiketa edo zaintza lanak, tabernan, dendan edo bestelakoak egiteko prest. 615 70 67 17

Umeen zaintza. Neska bergararra udako arratsaldetan umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. 616 36 46 32

Umeen zaintzarako prest. Neska bergararra udan, arratsalde, umeak zaintzeko prest. Magiste-

ritzaz ikasketak izateaz gain, esperientzia daukat. 688 66 13 65

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Marrazketa teknikoa. Batxilergo mailako Marrazketa Teknikoko eskola partikularrak hartuko nituzke, Arrasaten. 675 71 34 90

8. DENETARIK

801. SALDU

Lursailak Aretxabaletan. Bi lursail salgai. Bata, 14.000 metro koadrokoa, 30.000 euroan. Bestea, 2.800 metro koadro ingurukoa, industria-urbanizagarria, 120.000 euroan. 629 10 41 31

807. AURKITU

Bergara. Danborra jotzeko makilak topatu ditut. Naia Okina izena dute jarrita. 635 20 18 56



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Fraiskozuri, 75 m², 3 gela, igogailua, frontoiara bistak. 160.000€.
- Zubiaurre, 60 m², 2 gela, igogailua eta ganbarra. 75.000€.
- Masterreka, 75 m², 2 logela, berritua, bizitzera sartzeko. 169.000€.
- Iraburu, 80 m², 3 logela, trastelekuak, altzariek, bizitzera sartzeko. 142.000€.
- Ibargarai, 87 m², 3 logela, trastelekuak. Garajea aukeran. 165.000€.
- Matxiategi, 90 m², 4 logela, terraza ganbaran. Igogailua. 190.000€.
- Simon Arrieta, 81 m², 2 logela, igogailua, garajea barne. Bizitzera sartzeko. 300.000€.
- Fraiskozuri, 100 m², 4 logela. Igogailua. Berritzea. 180.000€.
- Masterreka, 100 m², 2 logela. Igogailua. Bizitzera sartzeko. 200.000€.
- Martoko, 80 m², 3 logela, trastelekuak, igogailua. Eguzkitsua. 135.000€.
- Zabalategi, 80 m², 3 logela, berritua. Igogailua. Eguzkitsua. 177.000€.
- Martzial Agirre (Espolain) 84 m², 4 logela, trastelekuak eta garajea barne. 235.000€.
- Irizar, 87 m², 3 logela, igogailua eta trastelekuak. 170.000€.
- Barrenkale, 116 m², 5 gela. AUKERA ONA. 90.000€.
- Madura, 57 m², 2 log. Berritua. Bizitzera sartzeko. 110.000€.
- AUKERA OSO ONA.
- Zubieta, 70 m², 3 logela. Bizitzera sartzeko. 127.000€.
- Artzamedia, 75 m², 3 logela, trastelekuak eta garajea. 145.000€.
- Ez du obrarik behar.
- Zubiaurre, 75 m², 3 logela, igogailua. Berritzea. 60.000€.
- Ibarra, 62 m², 3 logela. Trastelekuak. 86.000€.
- AUKERA ONA.
- Askarruntz, 83 m², 3 logela, Berritzea. 62.000€.
- Ola, 52 m², 2 logela. Berritzea. 48.000€.
- AUKERA ONA.
- Bidekurutzeta, 130 m², 4 log. 320.000€.
- Igogailua. NEGOZIAGARRIA.
- Bidekurutzeta, 54 m², 2 logela. Berritzea. Igogailua du. 92.000€.
- Koldo Eleizalde, 76 m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000€.
- NEGOZIAGARRIA.
- Zubiaurre, 50 m², 2 logela, BERRITZETAKO. 24.000€.
- AUKERA ONA.

ANGIOZAR:

- Etxebizitza 60 m², 2 logela, erabat berritua. Trastelekuarekin. 92.000€.
- Baserria 233 m². Lursailak eta bi etxebizitza egiteko baimenarekin. 250.000€.
- Duplexa, 170 m², 4 logela, garajea, txakoa eta terrenoa 180 m².

OSINTXU:

- Osintxu, 92 m², 3 logela, igogailua, garajea. Eraikuntza berrian. 165.000€.
- Osintxu 61 m². 3 logela eta trasteroa. BERRITZETAKO. 43.000€.
- AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 70 m². 2 logela eta igogailua. 62.000€.
- AUKERA BIKAINA.

UBERA:

Baserria eta 15 hektareako lursaila (pinuak eta zelaiak) 470.000€.

ANTZUOLA:

- Errekalde, 68 m², 2 logela. Ezu du obrarik behar. Altzariak barne. 140.000€.
- Buztin-zuri, 65 m², 2 logela. Ezu du obrarik behar. 180.000€.
- Garajea aukeran.
- Ibarrondo, 90 m², 3 logela. Trastelekuak, eguzkitsua. 190.000€.
- Garajea barne.
- Kalebarren, 85 m², 3 logela, igogailua. 180.000€.
- Errekalde, 65 m², 2 logela, igogailua. Aukera ona. 90.000€.
- Buztin zuri, 65 m², 2 logela, igogailua, garajea barne. Bizitzera sartzeko. 180.000€.

ELGETA:

- Torrealdia 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



BERRIA

UNAI ITURRIAGA ETA IGOR ELORTZA AURREZ AURRE

'Kulturizketak' Eguena, 21:30



ETB

KAZETARI GAZTEAK, IKER GALARTZAREKIN

'Galdegazte' Eguaztena, 21:30

EGUBAKOITZA, 12	ZAPATUA, 13	DOMEKA, 14
10:00 Hemen Debagoiena	09:00 Kantari 8	09:00 Kantari 7
11:00 Ikustenda #batzuk: Xabier Ugarte	09:30 Egun batez: Marrazten	09:30 Egun batez: Marrazten
11:30 Hemen Debagoiena	10:00 Korapilo	10:00 Korapilo
12:30 Kulturizketak	10:30 Kantari 7	10:30 Kantari 8
13:00 Kantari 8	11:00 Hemen Debagoiena	11:00 Ikustenda #batzuk: Xabier Ugarte
13:30 Hemen Debagoiena	12:00 Ikustenda #batzuk: Xabier Ugarte	11:30 Galdegazte: Oihan Vega
14:30 Gaurkoak	12:30 Ekonomia gurean	12:00 Ekonomia gurean
14:45 Egun batez: Marrazten	13:30 Kulturizketak	13:00 Hemen Debagoiena
15:15 Hemen Debagoiena	14:00 Amaia DJ	14:00 Egun batez: Marrazten
16:15 Gaurkoak	14:30 Egun batez: Marrazten	14:30 Kulturizketak
16:30 Kulturizketak	15:00 Hemen Debagoiena	15:00 Ekonomia gurean
17:00 Gaurkoak	16:00 Kantari 8	16:00 Amaia DJ
17:15 Egun batez: Marrazten	16:30 Korapilo	16:30 Kantari 7
17:45 Gaurkoak	17:00 Galdegazte: Oihan Vega	17:00 Korapilo
18:00 Hemen Debagoiena	17:30 Osoko bilkura: Arrasate	17:30 Hemen Debagoiena
19:00 Osoko bilkura: Arrasate	18:30 Kantari 8	18:30 Amaia DJ
20:00 Hemen Debagoiena	19:00 Hemen Debagoiena	19:00 Osoko bilkura: Arrasate
21:00 Galdegazte: Oihan Vega	20:00 Kantari 8	20:00 Kantari 8
21:30 Amaia DJ	20:30 Amaia DJ	20:30 Hemen Debagoiena
22:00 Hemen Debagoiena	21:00 Egun batez: Marrazten	21:30 Galdegazte: Oihan Vega
23:00 Osoko bilkura: Arrasate	21:30 Ikustenda #batzuk: Xabier Ugarte	22:00 Kulturizketak
	22:00 Hemen Debagoiena	22:30 Ikustenda #batzuk: Xabier Ugarte
	23:00 Galdegazte: Oihan Vega	23:00 Hemen Debagoiena

ASTELEHENA, 15

OTALAI ZELAIKO KROSA, IRUDIETAN

'Harmailatik'

Astelehena, 21:30

MARTITZENA, 16

ARTZAIN EGUNAREN ERREPASOA

'Hemen Debagoiena'

Martitzena, 18:00/20:00/22:00



GOIENA TELEBISTAKO
PROGRAMAZIO OSOA:
**goiena.eus/
telebista**
Edo eskaneatu
aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 17



GOIENA

ESNEZALE NOLA IZAN

'Egun batez...'

Eguaztena, 21:00

EGUENA, 18

JULEN IRIONDO, PATXI GOIKOLEAREKIN

'Ikustenda: #batzuk'

Eguena, 21:00

ESKER ONA

Eusebio Errasti Agiriano



2017ko maiatzaren 2an hil zen, 88 urte zituela.

Lerro hauen bidez Eusebioren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Arrasaten, 2017ko maiatzaren 12an.

ESKER ONA

Ildefonso Garcia Sanchez



2017ko maiatzaren 9an hil zen, 57 urte zituela.

Lerro hauen bidez Ildefonsoren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Arrasaten, 2017ko maiatzaren 12an.

OROIGARRIA

Kontxi Bedia Madinabeitia



Gasteizen hil zen 2016ko maiatzaren 14an, 69 urte zituela.

Bada urtebete joan zinenetik baina ez da izan egunik zutaz gogoratu ez garenik. Bihotz-bihotzean zaramatzagu. Maite zaitugu.

Etxekoak. Arrasaten, 2017ko maiatzaren 12an.

ESKER ONA

 Xabier Arizabaleta Biteri



2017ko maiatzaren 9an hil zen, 84 urte zituela.

Eskerrik asko momentu hauetan familiaren ondoan egon eta babesa eman diguzuen lagun eta senide guztioi, eta baita ere azken une latzetan arreta eman diguten Arrasateko osasun zentroetako profesionalei.

Arrasaten, 2017ko maiatzaren 12an.

ESKER ONA

Imanol Alberdi Bengoetxea



2017ko maiatzaren 4an hil zen, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Hil zara baina biziko zara zu beti gure gogoan, itxaropena dugu biltzeko berriz zurekin zeruan.

Arrasaten, 2017ko maiatzaren 12an.

URTEURRENA

 Bixente Uribesalgo Aquizu



2016ko maiatzaren 27an hil zen, 88 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 14an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2017ko maiatzaren 12an.

ESKER ONA

Jesusa Alberdi Arabaolaza



2017ko maiatzaren 8an hil zen, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Oñatin, 2017ko maiatzaren 12an.

ESKER ONA

Milagros Garitano Mendibil



2017ko maiatzaren 3an hil zen, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Haren aldeko meza larunbatean izango da, maiatzaren 13an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Aurrez esker on bertaratuko zareten guztioi.

Oñatin, 2017ko maiatzaren 12an.

MEZA

M. Carmen Eguren Azkorbebeitia



(Merzedarietako lekaima)

2017ko maiatzaren 6an hil zen, Gasteizen, 88 urte zituela.

Anai-arrebak: Tomas (†) eta Pakita Laskurain (†), Antoni eta Luis Ibarra (†), Felix (†) eta Arlete Conde (†), Iñaki (†) eta Candida Zornoza (†). Ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Datorren igandean, maiatzaren 14an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian bere arimaren aldeko meza izango da.

Aldez aurretik mila esker. Bergaran, 2017ko maiatzaren 12an.

ESKER ONA

 Ignacio Mari Basterra Muruamendaraz



Mari Kruz Arregui Letamendiren alarguna.

2017ko maiatzaren 10ean hil zen, 84 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2017ko maiatzaren 12an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05 edo eskelak@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena.eus-en: 160 € / Goiena.eus Klubeko bazkideendako 142 €

► Eskela mota guztiak Goiena.eus-en: 140 € / Goiena.eus Klubeko bazkideendako 125 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

OROIOLORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55 BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Kintakoen bazkaria**

1931n jaiotakoek bazkaria egin zuten domekan, maiatzaren 7an, Antzuolan; aurren, 89 urte beteko dituzte bazkarian izan ziren horiek. Hamabost pertsona elkartu ziren.

2. Domeketarrok-en kontzertua

Domeketarrok musika taldeak kontzertua eskaini zuen Oñatiko San Miel Txiki jaietan, domekan. Aurrera begira, herriko beste auzo batzuetan jardun gura dute.

3. Arrasate Musikaleko ikasleen bidaia

Arrasate Musikaleko 42 ikasle Sant Feliu de Guixols herrira joan ziren asteburu pasa; eta kontzertua eskaini zuten bertan. "Esperientzia arrakastatsua izan zen", diote.

4. Ezkondu aurreko agurra, Urduñan

Joseba Fraile, Aretxabaletako areto futbolako taldekidea, ezkontzeko da; ezkondu aurreko agur festa izan zuen taldekideekin, Urduñan. Eskoriatzako taldeko kamiseta jarri zioten.

#DIOTENEZ

LEIKAIXOKA-REN TONBOLA

Korrika 2017rako dirua batu guran, **tonbola** jarri zuten Leikaixoka-ko boluntarioek Oñatiko San Miel Txiki jaietan, Kale Zaharrean. Jende asko gerturatu zitzaizen txartel eske; eta, aurreikuspenak gaindituta, ezin izan zuten tonbola asteburu osoan irekita eduki; domekan itxita egon zen. Jendearen erantzuna eskertu zuten Lekaixoka-ko kideek. Horrenbestez, pozik daude

ekimenak izaniko arrakastarekin. Bestalde, aurrera begira jarriak dira dagoeneko: Eriz magoaren **magia ikuskizuna** antolatu dute maiatzaren 20rako. 17:00etan hasiko da, Oñatiko gaztelekuan.

TALDE BATEN ESTREINALDIA

Arrasateko street-punk talde batek estreinako kontzertua eskainiko du **ekainaren 3an**, Arrasateko gaztetxean. Eurekin batera, Parisko oi! talde ezagun batek eta ibarreko

hardcore laukote batek jardungo dute agertoki gainean. Kontzertu **berezia** izatea espero dute.

EGUZKIERRIPA ROCK

Eguzkierripa Rock jaialdia egingo dute maiatzaren 27an Aramaion. **Egun osoko egitaraua** prestatu dute. Poteoarekin hasiko dute eguna, 12:30ean. Ostean, bazkaria egingo dute; eta, azkenik, **kontzertuek** itxiko dute egitaraua; 20:00etan hasiko da azken saioa.

OÑATIKO GAZTETXEAK 5 URTE

Aurren, 5 urte betetzen ditu Oñatiko Antixena gaztetxeak. Hori ospatu nahian, ospakizun egitaraua prestatzen dihardute gaztetxe kideek. **Urte amaieran** egingo dute urteurren festa. Bestetik, eurentzat urte berezia izanik, material berezia aterako dute datozen hilabeteetan. Bitartean, bere ohiko martxarekin dihardu gaztetxeak. Esaterako, Bullet Proof Lovers talde donostiarrak

kontzertua eskainiko du **egubakoitz arratsaldean**.

AGUR ESANGO DU EMON-EK

Emon taldeak **azken kontzertua** eskainiko du Bergarako jaietan; hitzordu berezi horretarako, Omen izena bereganatu dute. **Emanaldi berezia** izango da. Hori horrela, besteak beste, ibilbidean zehar taldean jardun duten hainbat musikarik esku hartuko dute kontzertuan.

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Erik Oribe
Maiatzaren 18an, 26 urte. Zorionak, tio Eriki! Egun ona pasatzea opa dizugu. Patxo eta besarkada handi bat Kenarren eta Alaineren partetik. Asko maite zaitugu.



ARRASATE
Dunixe Tena Perez
Maiatzaren 17an, 8 urte. Gure etxeko printzesak maiatzaren 17an, 8 urte egingo ditu jada. Zorionak, maitia, etxeko danon partetik. Pila maite zaitugu!



ANTZUOLA
Ane Eraña Belategi
Maiatzaren 16an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure egunian, polit hori! Patxo pila bat, etxeko danon partetik!



OÑATI
Unai Askasibar Herrera
Maiatzaren 16an, 7 urte. Zorionak, Unai! 7 urte! Ondo-ondo pasatu zure egunian! Muxu handi bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE
Sergio Canales Arribas
Maiatzaren 16an, 38 urte. Zorionak, aitatxo! Munduko onena zara! Mila musu, Aitorren, Alazneren eta amatxoren partetik!



ARAMAIO
Auritz Garai Gutierrez
Maiatzaren 15ean, 5 urte. Zorionak, Auritz! Ederto pasatu zure egune! Patxo potolo bat, etxekuan partetik.



ARRASATE
Ander eta Isabel
Isabelek maiatzaren 15ean, urtebetetzea eta Anderrek 19an, 8 urte. Zorionak amama eta Ander! Oso ondo pasatu zuen eguna. Patxo handi bat eta belarri tirakada bana etxekoen guztien partetik.



OÑATI
Lur Biain Aranburuzabala
Maiatzaren 14an, 9 urte. Zorionak, politta! Ederto pasatu eguna, eta jarraitu udaberri askoz urtiak beteten, zu zara-eta maiatzeko gure loratzua!



ARRASATE / BERGARA
Ager Esnaola
Maiatzaren 13an, urtebete. Zorionak zure lehenengo urtebetetzean, txiki! Egun ederra pasako duzulakoan... muxutxo asko. Bergarako eta Eibarko familiak.



OÑATI
Nahia Aramburu Moreno
Maiatzaren 12an, 3 urte. Zorionak, polit hori! Jarraitu zoriontsu izaten. Ikaragarri maite zaitugu: Haizea, Uxue, aitatxo eta amatxo. Musutxuak.



OÑATI
Carmen Isasti
Maiatzaren 12an, urtebetetzea. Zorionak, amama! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat, etxekoen eta, batez ere, Xabaten eta Oxelen partetik.



ESKORIATZA
Irati Gorosarri
Maiatzaren 12an, 6 urte. Zorionak, polit hori! Egun ederra pasa dezazula zure urtebetetze egunean. Muxu potolo bat, etxeko danon partetik.



ARRASATE
Aimar Rodriguez Sanzberro
Maiatzaren 12an, 6 urte. Zorionak! Etxekoen eta, bereziki, Iratiren eta Ekainen partetik.



OÑATI
Hegoi Aramburu Zabaleta
Maiatzaren 11n, etxeko txikitxuak urtebete; ze azkar zabitzen hazten! Patxo potoloak. Amatxo, aitatxo, Haizea, Uxue, Nahia, tio eta Izeko.



ARETXABALETA
Laida Eraña Larrea
Maiatzaren 11n, 6 urte. Zorionak, Laida! Muxu erraldoi bat, danon partetik!



OÑATI
Noa Urtaza Hernandez
Maiatzaren 11n, 4 urte. Dagoeneko 4 urte! Ongi pasatu zure urtebetetze egunean, Noa! Zorionak eta muxu potolo bat, familiaren partetik!



BERGARA
Ion Agiriano Larrión
Maiatzaren 11n, 13 urte. Zorionak! Ondo pasatu etxeko guztien eta, bereziki, Maitaneren partetik.



ANTZUOLA
Irati Sudupe Larrea
Maiatzaren 11n, 6 urte. Zorionak, polit hori! Segi orain arte bezalako irrifartxu eta alaia izaten! Patxo potolo pila bat Izadiren, aitatxoren eta amatxoren partetik!



OÑATI
Xabat Iturbe Larreategi
Maiatzaren 11n, 5 urte. Zorionak, Xabat! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat amatxo, aitatxo eta Elenen partetik.



ARETXABALETA
Zaraitzu Bergaretxe Larrinaga
Maiatzaren 11n, 13 urte. Zorionak, poxpolin! Urtebete gehixau, eta badie... 13! Patxo handi bana. Ondo pasatu eguna, nahiz eta eguna izen.



BERGARA
Joanes Jainaga Exposito
Maiatzaren 11n, 3 urte. Zorionak, Joanes! Ondo-ondo pasatu hirugarren urtebetetzean! Muxu handi bat, laguntxoan partetik!



ARETXABALETA
Jon Altube Porras
Maiatzaren 10ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Elena, amatxo, aitatxo, amama eta familia eta lagun guztien partetik.



ESKORIATZA
Oier Garcia Izquierdo
Maiatzaren 9an, 14 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu eta gozatu zure egunean. Hamalau urte asko dira eta gonbidatu beharko gaituzu. Musu pila bat. Zure gurasoak.



ARRASATE
Naia Martinez Oruna
Maiatzaren 9an, 8 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasatu zure eguna! Jarraitu orain bezala, gure printzesa izaten. Asko maite zaitugu. Etxeko guztien partetik, patxo potolo bat.



OÑATI
Peru Guenetxea Irizar
Maiatzaren 8an, 7 urte. Zorionak, txapeldun. Ondo pasatu zure eguna! Muxu handi bat, familia osoaren partetik.



ARETXABALETA
Xabier Carbajo Alvarez
Maiatzaren 8an, 4 urte. Zorionak Xabier! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu asko, familia osoaren partetik. Maite zaitugu, txapeldun!



BERGARA
Erik eta Ane Beistegi Alvarez
Maiatzaren 7an, Erikek 3 urte eta maiatzaren 16an, Anek 7 urte. Zuen urtebetetzean hartu muxu handi bat hainbeste maite zaituztegun guztien partetik. Aupa gure txapeldunak!



OÑATI
Xabat Urkia
Maiatzaren 6an, 9 urte. Zorionak, Xabat! Disfrutatua topera zure urtebetetzea, txapeldun! Muxu bat danon partetik.



OÑATI
Aimar Ferreira Garcia
Maiatzaren 6an, 5 urte. Zorionak, preioxio! Ondo ospatu zure eguna eta fuerte in putz kandelairi! Muxu handi bat, familiako danon eta, bereziki, Liharren partetik. Mua!



ELOSU
Nora Rebanal
Maiatzaren 2an, 6 urte. Zorionak eta ondo pasatu eguna, aita-ama partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 12

BERGARA Elikagai bankuko boluntarioen topaketa
Euskadiko 200 bat boluntario elkartuko dira 2016ko errepasoa egin eta 2017ko helburuak zehazteko.
Osoko bilkuren aretoan, 10:00etan.

ARRASATE Musakolako jaiak
Erretiratuen eguna ospatuko dute. Informazio osoa Arrasateko orrietan.
Auzoan, 10:00etan.

ESKORIATZA Haur danborradan izena emateko azken eguna
Gaur da azken eguna. Izen-emate orriak Jose Aranan, Almenen edo Luis Ezeizan utzi behar dira. Danborrada ekainaren 30ean izango da.
Izen-ematea, aipatutako lekuetan.

ELGETA Ipuinen Ordua
Herriko ipuin kontalari boluntarioen eskutik: 16:40ean 5 urtetik gorakoendako eta 17:25ean 2-5 urte artekoendako.
Liburutegian, aipatutako orduetan.

OÑATI Odol ateratzea
Deialdia egin dute.
Enpresagintzan, 17:00etan.

ESKORIATZA Sukaldaritza tailerra
Frutekin irudi bereziak egingo dituzte umeek.
Ludotekan, 17:00etan.

ARAMAIO Antzerkia eta ipuin lehiaketako sari banaketa
18:00etan *Zu eta ni, sudurluze bi* antzezlan. Ondoren, ipuin lehiaketako sari banaketa.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Konposterok' antzezlan
Plasti andereñoaren eta Karton jaunaren istorioa kontatzen du Zirika Zirkus taldeak.
Arkupan, 19:00etan

OÑATI Debagoieneko musika eskolen topaketa
Oñatiko, Bergarako, Arrasateko, Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Soraluzeko musika eskoletako

neska-mutikoen emanaldia egingo dute.
Santa Anan, 18:30ean.

OÑATI Bullet Proof Lovers taldea
Donostiako taldeak *Shot through the heart* diskoa aurkeztuko du.
Gaztetxean, 19:00etan.

ESKORIATZA Trigger taldea
Eñaut Zubizarretaren proiektu berria: txeloa doinuari pedalak eta elektrifikazioa gehituz, punk ukituak dituen kantuak sortu ditu.
Inkernu tabernan, 20:30ean.

OÑATI 'Lightpainting' tailerra
ARGI! festibaleko ekintza. Izena emateko: *ilunpetan@gmail.com*.
Gaztelekuan, 22:30ean.

ZAPATUA 13

DEBAGOIENA V. Artzaintza Eguna
Azoka gazta ekoizleekin eta artisauekin, tailerrak, haurrentzako jolasak, dastatzeak...
Herriko plazan, 10:00etan.

ELGETA 'Zumba' maratokia
Bi orduko saioa egingo dute. Izena emateko: 680 68 28 83, 666 71 20 73 edo 615 74 68 89.
Spaloian, 10:00etan.

ARRASATE Txokolate-dastatzea Harreman dendan
Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko ekintza egungo dute.
Harreman dendan, 10:00etan.

ESKORIATZA Atxorrotx Kultura Elkartearen eguna
Askotariko ekintzak egingo dituzte. Informazio osoa Eskoriatzako orrietan.
Egun osoan.

ARAMAIO Lorabarri Azoka
Bosgarren urtez egingo dute azoka, Aramaioko eta Bizkaiko ekoizleekin.
Bizente Goikoetxea plazan, 11:00etan.

ARETXABALETA Ipuin kontaketa
Lur Usabiagaren saioa 4 urtetik gorako umeendako.
Liburutegian, 11:30ean.

BERGARA Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen topaketa
Hainbat ordezkari elkartuko dira.
Udaletxean, 11:30ean.

ARRASATE 'Konkis frogak'
Gazteendako ekintza.
Musakolako gazte txokoaren parean, 11:30ean.

OÑATI Debagoieneko Atzegiren Eguna
2017ko kanpainaren aurkezpena, triki-poteoa eta bazkaria.
Gaztelekuan, 12:00etan.

ARRASATE 'Hi selfie' lehiaketa
Gazteendako ekintza.
Musakolako gazte txokoan, 16:30ean.

BERGARA Herriarteko bertso txapelketako finalaurrekoa
Gabiriako Osinalde eta Villabona-Amasako Am...ona! taldeen arteko lehia.
Pilotalekuan, 17:30ean.

ARETXABALETA 'Escape room'
DBH-1eko nerabeendako ekintza.
Gaztelekuan, 18:00etan.

ARRASATE Arrasate Musikaleko taldeak
Kontzertua egingo dute.
Zigarrolako Santa Teresa elizan, 19:00etan.

DOMEKA 14

OÑATI Mendi irteera
Arantzazu-Duru-Arantzazu ibilaldia egingo dute Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetakoei.
Foruen plazan, 09:00etan.

OÑATI 'Uraren bidea'
Jaturabe-Aitzgain-Orkatzategi-Aitzulo ibilbidea egingo dute. Izena, aurrez, 943-78 34 53 telefonoan.
Arantzazuko parketxean, 10:00etan.

ESKORIATZA Mendi irteera
Zalduondo-San Adrian ibilaldia egingo dute, familiendako.
Huheziko aparkalekuan, 10:00etan.



FERNANDO LEZAUN

ESKORIATZA Motxila 21 taldearen emanaldia
Errekan Gora musika jaialdiaren hamargarren urteurreneko emanaldia. Down sindromea duten hamabi gaztek osatzen dute taldea. Laguntzaile dituzte Enrique Villarreal *El Drogas* eta Marea taldeko *Kutxi* eta *Piñas*.
Fernando Eskoriatza plazan, 20:00etan.

BERGARA Bizikleta irteera
Lokatzaiko kideekin.
Agorrosinen, 10:00etan.

ARETXABALETA Otala Zelai Eguna
Umeendako lasterketak, krosa, animaliekin jolasak, paella txapelketa, bazkaria, dantzaldia... Egitaraua, Aretxabaletako orrietan.
Otala Zelain, 10:00etan.

OÑATI 'Kakao zaporea Ignaziotar Lurraldean' bisita
Txokolatearen ezaugarriak ezagutzeko aukera. Izenak: *turismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
Txokolateixan, 12:00etan.

BERGARA Txistulari Bandaren kontzertua
Herritar guztiendako.
Udaletxeko arkupeetan, 13:00etan.

ESKORIATZA Film emanaldia
Gazteendako ekintza.
Gaztelekuan, 17:30etan.

OÑATI Madalenako ermita ezagutzeko bisita
Ignaziotar Lurralde proiektuaren baitan. Izenak: *turismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
Madalenako ermitan, 18:00etan.

OÑATI Dedo bakarlaria
Kantaria eta kantuen sortzailea da eta askotariko instrumentuak jotzen ditu. *Cuore Elettroacustico* diskoa aurkeztuko du.
Arrano tabernan, 19:00etan.

OÑATI ARG! festibaleko erakusketak ikusteko azken eguna
El bosque dormido, Sistemak, Oñatiarrak eta *Ispiluak* bildumen azken eguna gaur da.
Hainbat lekutan daude.

ASTELEHENA 15

OÑATI Gonbidapen banaketa
Lupe Lekuonak hilaren 25ean egingo duen *Ostegun Kontalariak* saiorako gonbidapenak banatuko dituzte gaur.
Haur liburutegian, 16:30ean.

BERGARA Karmele Jaiorekin solasaldia
Amaren Eskuak liburuaren gainean egingo du berba. Izena emateko: 943-76 25 40 edo *ikastola1@mlagundia.net*.
Mariaren Lagundian, 18:00etan.

ESKORIATZA Ruiz de Eginoren erakusketa
Arte bakarra bi hemisferioentzat delako bilduman hamasei eskultura eta hamabi grafiko daude ikusgai. Abstrakzioa da nagusi.
Ibarraundin, hilaren 25era arte.

MARTITZENA 16

OÑATI Bizipoz tailerra
Gaurkotasuna munduan: Brexit, Trump eta *errefuxiatuak* delako tailerra egingo da.
Euskaldunberri gelan, 17:00etan.

OÑATI 'Gizarte zerbitzuak' hitzaldia

Udako Gizarte Zerbitzuetako ordezkariak egingo dute berba. *Pake Lekun, 17:30ean.*

ARETXABALETA Klarinete eta saxo emanaldia

Leizarra musika eskolako ikasleen kontzertua. *Arkupen, 19:00etan.*

ARRASATE 'Un hombre llamado Ove' pelikula

Martitzenetako zinema emanaldia. *Amaia antzokian, 20:30ean.*

EGUAZTENA 17

ELGETA III. kantu eta dantza egunerako txartelak

Gaur da hilaren 21ean egingo den ekitaldirako txartelak erosteko azken eguna. *Bota Toki tabernan edo Udalaren webgunean.*

ARRASATE 'Education: the simple thinking behind a complex future' hitzaldia

Bat-bateko itzulpen zerbitzua egongo da, euskarara eta gaztelerara. *Amaia antzokian, 19:00etan.*

ARETXABALETA 'Okilak eta biodibertsitatea' erakusketan bisita gidatua

Oñatiko Natur Eskolako kideek gidatutako bisita. *Arkupen, 19:00etan.*

ARRASATE 'Campamento Gdeim Izik, juicio a un pueblo' hitzaldia

IU alderdiko kide Unai Orbegozoren eta Amaia Arenalen hitzaldia, Irabazi-Arrasatek gonbidatuta. *Arkupen, 19:00etan.*

OÑATI 'La música como asignatura troncal' hitzaldia

Musikeneko perkusio irakasle Antonio Domingoren berbaldia. *Kultura etxean, 19:00etan.*

BERGARA Manu Barreireoren erakusketa

Erretratuen bilduma. *Aroztegin, hilaren 21era arte.*

EGUENA 18

ESKORIATZA Txomin Txapel eguna

Unibertsitateko ikasleen eguna. *Eskoriatzan, 11:00etan.*

OÑATI Panpinen lehenengo pijama festa

2-6 urte artekoendako ekintza. *Haur liburutegian, 16:30ean.*

ARRASATE 'Arrasate 1970-1990. Hiriaren aldakuntza' erakusketaren inaugurazioa

Xabier Untzurruntzaga arkitektoaren begirada ikus daiteke. Irekiera ekitaldia gaur egingo dute, 17:30ean. *Kulturateko klaustroan, ekainaren 19ra arte.*

OÑATI'Ahozkotasuna eta bertsolaritza' emanaldia

Ikasturte bukaerako bertso saioak egingo dituzte herriko hiru ikastetxeetako DBH-1eko ikasleek. *Santa Anan, 17:00etan.*

BERGARA 'Mendizaletasuna eta gizarte' erakusketa

Pol-Pol taldearen historiaren urratsik garrantzitsuenak gogora ekartzen dituen bilduma. Mendizaletasunaren alderdi guztiak lantzen ditu. Gaur inauguratuko dute erakusketa. *Laboratoriumen, abuztuaren 27ra arte.*

ARRASATE 'Udaixe 2017'

6ak baietz eta *Gazte extrem* ekimenetarako izena emateko epea zabalik du Txatxilipurdik. Lehen ekainaren 27tik uztailaren 8ra izango da, eta, bigarrena, uztailaren 11tik 14ra. Izena emateko: www.arrasate.eus/izen-ematea, ekainaren 11 baino lehen. *Izen-ematea, aipatutako lekuan.*

BERGARA 'Osintxun, Musikara' lehiaketa

Musika taldeendako eta bakarlariendako lehiaketa. Lanak aurkezteko epea ekainaren 9an bukatuko da, *osintxunmusikara@gmail.com* helbidean. Irabazlearendako, 500 euro. *ilen-ematea, aipatutako korreoan.*

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Mañana empieza todo

Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Los superhéroes

Zapatua eta domeka: 17:00.

BERGARA

ZABALOTEGI

Los ultimos de Filipinas

Domeka: 19:30.

Robinson, una aventura tropical

Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Un italiano en Noruega

Egubakoitza eta

zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

EIBAR

COLISEO

Alien covenant

Zapatua: 17:00, 19:45.
Domeka: 17:00.

El jugador de ajedrez

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Un tailiano en Noruega

Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

Los superhéroes

Zapatua: 17:00.

ANTZOKIA

Alien covenant

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Los superhéroes

Domeka: 17:00.

GASTEIZ

BOULEVARD

Alien: covenant

Zapatua: 15:45, 19:00, 21:30, 00:00.
Egubakoitzetik eguenera: 16:30, 17:30, 19:00, 20:00, 21:30, 22:30, 00:00.

Richard, la cigüeña

Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 18:00.

El círculo

Egubakoitzetik

eguenera: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.

Un italiano en Noruega

Egubakoitzetik astelehenera, eguaztena eta eguena: 20:00, 22:00.

Z, la ciudad perdida

Egubakoitzetik eguenera: 16:30, 19:20, 22:10.

Guardianes de la galaxia

Zapatua: 15:45.
Egubakoitza eta domekatik eguenera: 15:45, 16:15, 18:45, 19:15, 21:45, 22:15.

El bebe jefazo

Egubakoitza: 17:00.
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:05, 20:10.

Zapatua eta domeka: 17:00, 19:05.
Domekatik eguenera: 16:00, 18:05.

Nunca digas su nombre

Zapatua eta domeka: 18:40, 20:40, 22:40.
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 19:50, 22:00.

La bella y la bestia

Zapatua: 16:00.
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 17:00.

Trolls

Domeka: 16:00.

Plan de fuga

Egubakoitza eta zapatua: 22:20.
Domekatik eguenera: 20:10, 22:20.

Mañana empieza todo

Egubakoitza:

19:05, 21:25.
Zapatua eta domeka: 21:25.
Astelehenetik eguenera: 19:30, 21:50.

John Wick

Egubakoitza eta zapatua: 23:45.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

Los pitufos

Zapatua eta domeka: 15:45, 17:40.

Fast & Furious 8

Zapatua eta domeka: 19:35, 22:20.
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 16:30, 19:15, 22:00.

KRITIKA

Z, la ciudad perdida ★★★★★

Zuz.: James Gray. Herr.: Britainia Handia. Aktoreak: Charlie Hunnam, Robert Pattinson, Sienna Miller.

Gauza asko, denbora laburra

ANTONIO ZABALA

Filmeen iraupena gauza nahiko bitxia izaten da. Badira luze egiten diren eta minutuak soberan dituzten 90 minutuko filmak. Eta, alderantziz, badira laburrak geratzen diren iraupen luzeko lanak. Bigarren kasu horren adibide da *Z, la ciudad perdida*. Bere iraupena 140 minutura hurbiltzen bada ere, kontatzen duen guztia azaltzeko denbora luzeagoa beharko zukeen. Percy Fawcett esploratzaile britainiarra da istorioren protagonista nagusia. Amazoniara hainbat bidaia egin zituen ezkutuko hiriburua topatu nahian. Hogei bat urtetan zehar Britainia Handiko gizartean dauden klaseen arteko desberdintasunak ikus daitezke pelikulan: Royal Societyren kide batzuek indiarrenganako duten mesprezua; gizonen eta emakumeen artean dauden



NO ES CINE TODO LO QUE RELUCE

desberdintasunak; eta bidaia horiek familiaren martxan duten eragina. Eta, nola ez, eginiko espedizioak aurrera ateratzeko bizi izandako tirabirak eta bidaia bakoitzeko estualdiak. Gauza askotxo kontatzeko. Oro har, aipatutako alderdi bakoitza behar den moduan azalduta dago.

Pertsonaiaren eta garairen izaera ederki islatzen dira pelikulan. Une oro. Hasieratik bukaerara. Baina Amazoniara egindako bidaiek duten higidura emozionala eta fisikoa adierazteko denbora behar da. Eta James Grayren film eder honi denbora falta izan zaio erabat borobila izateko.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Euskara 4.0

Industria hasi zen, baina gero eta esparru gehiagotan erabiltzen da 4.0 marka. Adierazten du teknologian eta metodoetan belaunaldi berri baten etorrera.

Gipuzkoako Aldundian 4.0 moldean ari gara, hizkuntza gaitan ere bai. Legealdi hasieran esan genuen, diputatu nagusiaren ahotik, euskararen biziberritze prozesuan bidegurutze batera allegatuta geundela; bide berriak elkarrekin bilatzeko ordua zen.

Horretan gabilitza, beste euskal administrazioekin eta euskararen gizarte erakundeekin batera pentsatzen: "Zer egin behar dugu diferente eraginkorrako izateko?".

Bi urte pasata, bilatze lanaren lehen emaitzak erakutsi nahi ditugu.

Aurkezpena datorren astean egingo dugu Orona Galleryn, eta uda ondoren eskualdeetan ibiliko gara, tokiko eragileekin lankidetzan sendotzen.

Aurrez, ostiral eguerdi honetan Udaltop jardunaldian agertu da 4.0 moldearen adierazle ezin argiagoa: Jaurlaritzako HPSk eta Euskaltzaleen Topaguneak elkarrekin landu ondoren aurkeztu dute gizarte aktibazioan lankidetzan jarduteko lan ildo bat, epe luzekoa, erakunde publiko eta gizarteko guztiei zabalduko zaiena. Ona!

BUKATZEKO



Ezkerreko argazkian, Maria Eugenia Paunero Donejakue bidea lehenengoz egiten eta eskubiko argazkian azkenengo bidaian ARGAZKIAK: MARIA EUGENIA PAUNERO



Donejakue bidean, hamargarren aldiz

Maiatzaren bukaeran Sevillatik abiatuta ekingo dio Maria Eugenia Paunero arrasatearrak Galiziarainoko bideari, oinez. Orain dela bederatzi urte egin zuen lehenengoz Donejakue bidea, eta dagoeneko ibilbide guztiak ezagutzen ditu

Maite Txintxurreta ARRASATE

Maria Eugenia Paunero arrasatearrak Donejakue bidea egiteko motxila gertatzen dihardu egunotan. Maiatzaren 23an abiatuko da, Sevillatik, *Zilarraren bidea* deritzona egiteko. Gainera, Santiagora iristearekin nahikoa ez, eta Finisterreraino joango da, 45 egun inguru iraungo duen bidaian.

Bidaia berezia izango da; izan ere, Paunerok Donejakue bidea egiten duen hamargarren aldiz izango da. "Lehena duela bederatzi urte egin nuen semearekin batera, alargun geratu berri nintzela", azaldu du; geroztik, urtero-urtero ekin dio Santiagorako bideari. Gainera, ibilbide posible guztiak egin ditu dagoeneko. Gehienetan, bakarrik

joan izan da, baina, oraingoan, Besaide mendi taldeko lagun batekin batera egingo du.

Paunerok bideari hartu dion *bizio* horrek ez du erlijioarekin zerikusirik. "Azaldu ezinezko zerbait" dela dio, "norberarena".

Bideko abenturak

Orain arte egin dituen bederatzi erromesaldietan denetarik bizi

izan du Paunerok. Onartu du momentu txarrak ere izan ditzuela behin baino gehiagotan, "Etxera itzultzeko tentazioa ere izan dut behin edo behin, baina, azkenean, beti egin izan dut aurrera. Halakoa naiz ni", dio. Dena den, momentu garratzak badira ere, "esperientzia oso aberasgarria" da.

Pertsona irekia da Paunero, eta horrek lagundu izan dio Donejakue bidean topatu izan dituen denetarikoko egoeren aurrean. Esaterako, kontatu du bidea igarotzen den herri txiki batean baino gehiagotan tokatu izan zaiola ostatua zegoela iragarritan egon arren, bertara iritsi eta halakorik ez zegoela jabetzea: "Halakoetan, alkatearekin elkartzen, eta lo egiteko toki bat utz diezadan eskatzen diot. Denetarikoko tokietan egin dut lo: eskoletan, zezen plazetan...".



Innovation
that excites

**STOCK-A KANPORA
OPERAZIOA**
GAURSAN

20

NISSAN
QASHQAI
UNITATE

GEHIENEZKO

%20

KO
DESKONTUA*



APROBETXATU AUKERA ETA ERAMAN DAUZKAGUN 20 QASHQAI UNITATE MUGATUETAKO
BAT %20RAINOKO DESKONTUAREKIN

GAURSA ARABAUTO Gamarrako Atea, 46 A-B 01013 - Vitoria-Gasteiz. Araba - Tel. 945 262 501

Kontsumo mistoa: 3,6 - 9,5 l/100 km. CO₂ isurpenak: 94 - 172 g/km.

*Eskaintza balioduna stock-ean dauzkagun ibilgailuentzat soilik, eta indarrean egongo da 2017/04/30a arte. Qashqai-ren eskaintzaren baldintzak kontsultatu (sustapen deskontua). Eman daitekeen gehienezko deskontua ibilgailu bakoitzaren gomendaturiko FAPan Penintsulan eta Balearretan. 3D RCI Banque-ren bidez (kontratua baldintzen arabera) finantzatzen duten bezero partikularrentzat, enpresentzat eta autonomoentzat.